

José Ignacio Armentia Vizueté
José María Caminos Marcet
Flora Marín Murillo

Txostena: 2013

Elikagaien

Segurtasuna

Euskadiko prentsan



Universidad
del País Vasco



Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunerako
Euskal Fundazioa

AURKIBIDEA

HITZAURREA: ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO KOMUNIKAZIOA

1. KAPITULUA AURREIKUSITAKO HELBURUAK ETA EMAITZAK

2. KAPITULUA AZTERLANAREN FASEAK

- 2.1. Elikagaien segurtasuneko gaiak aukeratzea
- 2.2. Baliabide idatziak aukeratzea
- 2.3. Albisteak bilatzea eta aukeratzea
- 2.4. Albisteak kategorizatzea eta aztertzea

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.1. Elikagaien Segurtasunaren presentzia aztertutako egunkarietan

- 3.1.1. Albisteen banaketa hileka eta egunkarika

3.2. Kalitatea eta zehaztasuna albisteen edukian

- 3.2.1. Elikagaien Segurtasuneko gai ohikoenak
- 3.2.2. Albisteen banaketa, atalen arabera
- 3.2.3. Material grafikoa
- 3.2.4. Albisteen gaurkotasuna
- 3.2.5. Erabilitako kazetaritza-generoak

3.3. Albisteen informazio-iturriak ezagutzea

- 3.3.1. Testuak egitea
- 3.3.2. Albisteen jatorria
- 3.3.3. Informazio-iturriak

3.4. Elikagaien arriskuen pertzepzioa eta tratamendua

- 3.4.1. Albisteen analisia, hileka eta egunkarika
- 3.4.2. Elikagaien arriskuari buruzko gairik ohikoenak
- 3.4.3. Elikagaien arriskuen tratamendua
- 3.4.4. Elikagaien arriskuei buruzko albisteen ikuspegia
- 3.4.5. Elikagaien arriskuei buruzko albisteen gaurkotasuna
- 3.4.6. Elikagaien arriskuei buruzko albisteen kazetaritza-generoak

4. KAPITULUA ELIKAGAIEN SEGURTASUNeko 2013KO GAI GARRANTZITSUENEN ANALISIA

- 4.1. "Albiste-balioa"-ren faktoreak
- 4.2. Testuen banaketa, Elikagaien Segurtasuneko gaien arabera
- 4.3. Gaien deskribapena, hilez hil

5. AZTERLANAREN ONDORIOAK

HITZAURREA: ELIKAGAIEN SEGURTASUNAREN ARLOKO KOMUNIKAZIOA

Arriskuen komunikazioaren azken xedea da kontsumitzaileei eta, oro har, gizarteari laguntzea **arriskueta oinarritutako erabakien arrazoiak ulertzen**. Horrenbestez, funtsezko tresna da, herritarrei iritzi informatuagoak ematea ahalbidetzeko, baita euren bizitzan **topatzen dituzten arriskuez jabetzeko** ere.

Pertsona orok, dagokion heinean, erantzukizuna du Elikagaien Segurtasunaren arloko komunikazioan: hala administrazioak eta elikagaien sektoreko arduradunek nola hedabideek eta kontsumitzaileek.

Komunikabideek Elikagaien Segurtasunaren arloan informazioa eta prestakuntza eman behar dute. Halaber, haiek erabakitzen dute zein gaik duen garrantzia herritarrentzat une jakin batean. Hori dela eta, kontu handiz jokatu behar dute arriskuei buruzko informazioa egiaztatzean, eta ahalik eta modu neutroenean eta zorrotzanean helarazi behar dute informazio hori. Izan ere, euren esku dago, hein handi batean, herritarrek kontsumitzen dituzten elikagaien segurtasunari buruzko pertzepzioa. Horrenbestez, ezinbestekoa da komunikazioaren profesionalak oinarritzko irekitze-, gardentasun-, independentzia- eta erantzukizun-printzipioei jarraitzea mezuak helaraztean.

Horrez gain, gaur egun oso erraza da informazioa eskuratzea teknologia berriak, internet eta gizarte-sareak erabiliz, eta egoera horretan, bereziki garrantzitsua da erabiltzen diren informazio-iturriak egiaziak eta zorrotzak izatea. Ildo horretatik, erakundeek web orriak iturri sendo eta fidagarriak dira, baina funtsezkoa da **herri-administrazioak eta elikagaien sektoreko enpresa pribatuak** gardenak izatea, eta informazioa modu argi eta osatuan ematea beti, baita eguneratuta ere, informazio ofiziala emateko horren bila dabiltzanei.

Ildo beretik, **arriskuaren kudeatzaile horiek** arriskuaren komunikazioa kudeatzeko erantzukizuna ere badute, batez ere

krisi-egoeretan, baina normaltasun-egoeretan ere bai. Herritarrei argi, labur eta ulertzeko moduan helarazi behar dizkiete mezuak, hartzaileentzat hizkera egokia erabiliz, teknizismo gehiegi erabili gabe eta ziurgabetasuna edo nahasmendua saihestuz. Haiek dira herritarren aurrean konfiantza eta sinesgarritasuna sortzeko arduradun nagusiak.

Azkenik, informazioaren hartzaileek ere erantzukizuna dute, elika-kateko azken begiak dira eta. Ildo horretan dihardute **kontsumitzaileak** ordezkatzen dituzten erakundeek, eta herritarrei elikagaien inguruko prestakuntza emateko eragile gisa aritzen direnez, Elikagaien Segurtasun handiagoaren alde egiten dute lan.



1. KAPITULUA AURREIKUSITAKO HELBURUAK ETA EMAITZAK

Elikak, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak, "2013an Euskal Autonomia Erkidegoko prentsan Elikagaien Segurtasunari buruz argitaratutako albisteak" txostena egin du. Horren xedea da aztertzea Euskadiko hedabideetan 2013. urtean Elikagaien Segurtasunarekin loturiko albiste-motak zein diren eta nola ematen den horien berri. Txosten hori Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritzako Ikerketa Talde Kontsolidatuarekin lankidetzan egin da (José Ignacio Armentia, José María Caminos eta Flora Marín).

Antzeko txostena egin zen 2012an, eta bertan aztertu zen urte horretan EAEko prentsan kazetariak nola eman zuten Elikagaien Segurtasunaren arloko gaien berri. Halaber, asmoa zen arriskuaren kudeatzaileek hausnartzea euskal herritarrek irakurtzen duten informazioaren kalitateari eta hedabideek Elikagaien Segurtasunaren pertzepzio publikoan duten eginkizunari buruz.

Beste azterlan hau eginda, **emaitza** hauek aurreikusten dira:

1. Euskal herritarrei hedabideen bidez Elikagaien Segurtasunarekin lotuta helarazten zaien informazio-mota ezagutzea.
2. Jakitea zein diren EAEko hedabide nagusietan agertzen diren Elikagaien Segurtasuneko gai esanguratsuenak, baita horiek urte osoan izaten duten bilakaera ere.
3. Urtean zehar gertatutako elikagaien arriskuek eta alertek izandako eraginari erreparatzea, baita horiei komunikabideetan eman zaien trataerari ere.
4. Albisteen erredaktoreak eta egileak identifikatzea, baita horien espezializazio maila ere.
5. Elikagaien Segurtasunaren arloko informazioaren bilakaera aztertzea, aurreko azterlanaren emaitzak erreferentziatzat hartuta.

Azterlan hau **arriskuaren kudeatzaileei** zuzenduta dago, hedabideek Elikagaien Segurtasunaren arloko gaiak ematen dieten trataeraren berri izan dezaten; beraz, Elikagaien Segurtasunaren arloko komunikazio-estrategiak birbideratu ahal izan ditzaten.



2. KAPITULUA AZTERLANAREN FASEAK

2.1. Elikagaien Segurtasuneko gaiak aukeratzea

Europako erreferentziazko organismoek (EFSA, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaria; eta Europako beste agentzia batzuk: FSA, ANSES, BfR, VWA...) eta nazioartekoei (FAO, Nekazaritzarako eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundea eta OME, Osasunaren Munduko Erakundea) jarraikiz, Elikagaien Segurtasunak bere gain hartzen dituen arloak kontuan hartuta, Elikagaien Segurtasunaren barneko 7 gai nagusi ezarri dira, 2.0 taulan ikus daitekeen bezalaxe.

2013. urteari dagokion azterlanak Elikagaien Segurtasuneko gai zehatz batean jarri du arreta: elikagaien kaltegabetasunean eta higieanean (Food Safety), alegia. Hartara, baztertu egin da elikagai horien eskuragarritasuna (Food Security), 2012ko azterlanean jorratu baitzen. Beraz, azterlan honetan ez da gai hori jorratu, elikagaien kaltegabetasunean eta osasungarritasunean jarri delako arreta, batik bat.

Europako araudi erkidearekin bat etorritik, Elikagaien Segurtasuneko ikuspuntua eraginkorra izateko, integrala izan behar du, hau da, produktuaren ibilbide osoa erakutsi behar du, ekoizpen primariotik kontsumitzailearengana iritsi arte. Horrez gain, arriskuen kudeaketaren eta komunikazioaren arloan, arriskuen analisia hartu behar du erabakiak hartzeko oinarri gisa.

Horrenbestez, ezinbestekotzat jo da Elikagaien Segurtasunari balioa ematen dioten elika-kateko sektore guztiak sartzea: lehenengo sektorea, sektore eraldatzailea, banatzailea eta merkaturatzailea, eta azkenik, elikagaien azken kontsumitzailea.

2.0. taula. Elikagaien Segurtasuneko gaiak

Elikagaien Segurtasuneko gaiak	Barne hartzen dituen kontzeptuak
ELIKAGAIEN SEGURTASUNA	Elikagaien segurtasuna / Elikagaien kaltegabetasuna / Elikagai seguruak / Elikagai-krisia / Elikagai-alerta
ELIKAGAIEN ARRISKUA	Elikagaien bitartez transmititutako arriskua / Elikagaien arriskua / Elikagai-intoxikazioak / Toxiinfekzioak / Infekzioak / Kutsatzaile biologikoak / Bakterioak / Birusak / Mikroorganismoak / Parasitoak / Elikagai-kutsadura / Elikagai kutsatuak / Kutsatzaile kimikoak / Ingurumen-kutsatzaileak / Kutsadura gurutzatua
ELIKAGAIK /ELIKADURA	Elikagai izoztuak / Elikagai ekologikoak / Elikagai funtzionalak / Haurrentzako elikagaiak / Aurrez prestatutako elikagaiak / Elikagai transgenikoak / Genetikoki eraldatutako organismoak (GEOak) / Elikagaien irradiazioa / Kontsumitzeko prest dauden elikagaiak / Elikagai berriak / Arrainak / Haragia / Frutak / Barazkiak / Esnekiak / Zerealak / Lekaleak / Arrautzak / Olioak / Ura
NEKAZARITZA / ABELTZAINZA / ARRANTZA	Animalien osasuna / Landareen osasuna / Animalien ongizatea / Lehenengo sektorea / Ekoizpen-sektorea / Abeltzaintza-ustiategiak / Pentsuak / Animalien elikadura / Arrantza-sektorea
ELIKAGAIEN INDUSTRIA	Elikagaien ekoizpena / Animalien kontserbazioa / Elikagaien higieena / Elikagaien etiketak / Manipulatzea / Elikagaien manipulatzaileak / Trazabilitatea / Gehigarriak / Edulkoratzaileak / Koloratzaileak / Kontserbatzaileak
OSASUNA / NUTRIZIOA / ALEGIK	Kontsumitzeko ohiturak / Kontsumitzailea / Elikagaien ingesta / Dieta osasungarria / Nutrientek / Giza gaixotasunak / Giza osasuna / Osasun publikoa / Elikagai-alergiak / Elikagaiek eragindako intolerantziak / Alergikoak / Alergenoak / Zeliakoak
ELIKA	Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa

2. KAPITULUA AZTERLANAREN FASEAK

2.2. Baliabide idatziak aukeratzea

Azterlan hau egiteko, EAEn argitaratutako egunkari inprimatu guztiak aztertu dira, bai eta estatu-mailako bi egunkarik EAEn dituzten edizioak ere.

Zehazki, honako hauek dira aukeratutako egunkariak:

El Correo
El Diario Vasco
Deia
Noticias de Gipuzkoa
Diario de Noticias de Álava
Gara
Berria
El País (EAEko edizioa)
El Mundo (EAEko edizioa)

Argitalpen horietako batzuek talde mediatico beraren barruan daude:

- Hala, *El Correo* eta *El Diario Vasco* Vocento taldearen baitan daude. 13 egunkari ditu (gehienak eskualde- eta probintzia-mailakoak), eta estatuko prentsaren multzo nagusia osatzen dute, guztira 500.000 ale inguru zabaltzen ditu eta.
- Bestalde, *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario de Noticias de Álava* Grupo Noticias taldearen barruan daude, eta horien jardueraren oinarria Euskal Herrian dute.

Aztertu diren 9 egunkarietatik *Berria* da osorik euskaraz argitaratzen den bakarra.



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

2.1. taula. 2013. urtean aztertutako egunkariak hedapena


Egunkaria	Hedapen osoa	Hedapena EAEn
<i>El Correo</i>	82.943	75.087
<i>El Diario Vasco</i>	59.122	56.066
<i>Deia</i>	14.203	13.890
<i>Gara*</i>	-	-
<i>Berria*</i>	-	-
<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	5.411	5.363
<i>Diario Noticias de Álava</i>	3.925	3.873
<i>El País (EAEko edizioa)</i>	292.226	8.277
<i>El Mundo (EAEko edizioa)</i>	173.507	4.839
Guztira	631.337	167.395
Prentsak Euskadin duen hedapen osoaren %		86,2%

Iturria: *Noticias de la Comunicación*, OJDren datuak aipatuta (343 zk., 2014ko otsaila)**Gara* eta *Berria* ez dira OJDren kontrolatan agertzen

Aztertutako egunkariak hedapenaren (salmenta) % 86,2 pilatu zuten EAEn 2013an, informazio orokorreko prentsari dagokionez. 2.1 taulan ikus daiteke hori. Aintzat hartu behar da Gararen eta Berriaren datuak ez daudela bertan jasota, ez direlako OJDren kontrolatan agertzen. Bestalde, kirol- eta ekonomia-prentsarenak ere jasota daude eguneroko prentsak Euskadin 2013an izandako hedapen osoan (194.168 ale). **Horrexegatik esan daiteke hautatutako 9 egunkarien benetako hedapenak gainditu egiten duela informazio orokorreko prentsak EAEn duen salmenta osoaren % 90.**

Era berean, egunkari horiek, 2.1 irudian ikus daitekeen bezala, lurralde honetako irakurle gehienak erakarri zituzten. **Aipatutako bederatzita egunkariak irakurleen % 86,8 hartzen dute, eta ehuneko hori % 96,5koa da, kirol-argitalpenak kontuan hartzen ez badira.**

2.1 irudia. Prentsa-irakurleen kopurua (milaka) EAEn, 2012an.



Iturria: CIES (hedabideek EAEn dituzten irakurleei buruzko azterlana)

Euskadi da prentsa-kontsumorik (aleak erostea) handienetakoa duen autonomia-erkidegoetako bat. Asociación de Editores de Diarios Españoles (AEDE) elkarteak kaleratutako Libro Blanco de la Prensa Diaria 2014 liburuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa da egunkariak hedapenean indize handiena duen estatuko bigarren autonomia-erkidegoa; izan ere, 2012. urtean 100 ale saldu ziren 1.000 herritarren multzoko. Nafarroak besterik ez du indize handiagoa, 117 ale saldu baitziren 1.000 herritarren multzoko. Zenbaki horiek Espainiako batez bestekoa baino askoz handiagoak dira, 64 ale saldu zirelako 1.000 herritarren multzoko.

CIESen datuei jarraikiz, euskal herritarren % **49,7k euren burua egunkariak irakurletzat zuen 2012. urtean.** Antzekoak dira aipatu datuak eta Asociación para la Investigación de los Medios de Comunicación (AIMC-EGM) elkarteak eginiko Marco General de los Medios en España agirian jasotakoak. Organismo horren arabera, egunkariak sartze-mailaren batez bestekoa Espainian herritarren % 32,4koa zen 2013an. EAEn, aldiz, zifra hori % 46koa zen; horrenbestez, autonomia-erkidegoa eguneroko prentsaren kontsumitzaile handien artean dago kasu horretan ere (hirugarrena da rankingean, Nafarroaren eta Asturiasen ondoren).

2. KAPITULUA AZTERLANAREN FASEAK

2.3. Albisteak bilatzea eta aukeratzea

“2013an Euskal Autonomia Erkidegoko prentsan Elikagaien Segurtasunari buruz argitaratutako albisteak” txostena egiteko, ikerketa honetan kontuan hartu diren 9 egunkariak aipatu urtean argitaratutako ale guztiak kontsultatu dira (bertsio inprimatua). Bi tresna erabili dira albisteak iragazteko, **Eusko Jaurlaritzak 12 hilabete horietan erabili zituenak egunkariak husteko, gaurkotasuneko dossier tematikoak egiteko eta clipping zerbitzuak emateko**. Urtarrietik apirilera bitartean, Acceso enpresaren Acceso 360 plataformak hornitu zuen gobernu autonomoa, hau da, 2012ko azterlanerako erabili zen tresna berak. Apirilaren amaieratik aurrera, lan horien hornitzailea aldatu zen, eta Kantarmedia enpresak ekin zion lan horri, iPressReview tresna erabiliz.

Bada alderen bat plataforma biek eskainitako bilaketa-moduen artean, eta lortutako emaitzetan islatzen da hori. Horren ondorioz, zenbait desberdintasun atzeman daitezke 2013ko lehenengo lau hilabeteetako (Acceso 360) datuen eta gainerako zortzi hilabeteetako (iPressReview) datuen artean. Hala eta guztiz ere, ikerketarako erabili den plataforma informatikoa aldatzeak ekarritako dibergentziak ez dute eragin nabaria izan azterlanaren azken emaitzetan.

Era berean, azterlan honetan ez dira aztertu egunkari digitaletako albisteak, iPressReview plataformak mugak dituelako 9 egunkari horien edizio digitaletako informazio osoa iraultzeko; horrenbestez, azterlan honek 2013ko edizio inprimatuetan jarri du arreta.

2.4. Albisteak kategorizatzea eta aztertzea

Ikerketan, aipatu bederatzia egunkarien edizio inprimatuek 2013an argitaratutako eta Elikagaien Segurtasunaren arloko gaiekin lotutako testu guztiak aztertu dira.

Testuak aztertzeko eta jasotako datuak kategorizatzeke, bederatzia fitxa-multzo erabili dira, aztertutako itemen arabera. Excel programa erabili da informazio horren berriazko tratamendurako.

Fitxa teknikoa	
Aztertutako epea:	2013-01-01etik 2013-12-31ra
Dokumentuak aztertzeke irizpideak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Datuen analisi kuantitatiboa (txertatze-kopurua egunkari eta hileko, gehigarri tematikoak barne) 2. Testuetan jorratutako gaiak (Elikagaien Segurtasuna, elikagaiak/elikadura, nekazaritza/abeltzaintza/arrantza, elikagaien industria, Elika, elikagaien arriskua, osasuna/nutrizioa/alergiak) 3. Testuen kokapena (atalak, gehigarriak eta koadernotxoak, azalean duen presentzia, orrialdea irekitzea) 4. Azaleko testuak aztertzea 5. Erabilitako testuen (azken aldikoa, luzatua, iraunkorra) eta generoen gaurkotasun-mota (informazioa ematekoak, interpretazio-testuak, iritzia ematekoak) 6. Material grafikoa aztertzea (argazkiak eta infografikoak) 7. Testuen egileak eta informazio-iturriak Testuetan gehien aipatzen diren erakundeak eta pertsonak 8. Arriskuaren pertzepzioa (“arriskua” hitza berriaz aipatzen duten testuak, ikuspuntuak, gaurkotasun-mota, gaiak, generoak) 9. Hilabeteko gai aipagarrienak
Aztertutako egunkariak	El Correo El Diario Vasco Deia Noticias de Gipuzkoa Diario Noticias de Álava Gara Berria El País (EAEko edizioa) EAEko El Mundo
Aztertutako egunkari-kopurua	3.214
Elikagaien Segurtasunari buruzko testuen kopurua paperezko edizioan	1.803

KAPITULUA EMAITZAK

3.1. Elikagaien Segurtasunaren presentzia aztertutako egunkarietan

3.1.1. Albisteen banaketa hileka eta egunkarika

Argitaratutako testuen banaketa hileka


Aztertutako 9 egunkariak, guztira, Elikagaien Segurtasunari buruzko 1.803 albiste argitaratu zituzten 2013an; hots, batez beste, 150,2 albiste hileko edo 5 txertatze eguneko, aztertutako egunkari guztien artean. Datu esanguratsua bada ere, ez da oso handia, batik bat kontuan hartuta elikadurak bere gain hartzen dituen gai ugariak eta prentsa idatziaren irakurleen artean pitz dezakeen interesa.

9 egunkari
2013

1.803 informazio
batez bestekoa:
150
berri/hilabete

Abenduan pilatzen da argitaratutako testuen kopuru handiena, eta alde handia dago hilabete horren eta gainerakoien artean. Distantzia nabarmenera agertzen dira otsaila eta urria, eta kota txikiak urtarrilean eta abuztuan topatu dira.

3.1 irudia. Elikagaien Segurtasunari buruzko idatziak 2013an



Urtarrilean, abuztuan eta abenduan gorabehera handiak daude, eta hil horiek alde batera utzita, gainerako hiletan hala-moduzko oreka dago argitaratutako testuen kopuruari dagokionez. Gainerako 9 hilabete horietan 1.346 albiste argitaratu ziren guztira; beraz, batez bestekoa 149,5 testukoa da. Otsailak, apirilak eta urriak batez besteko hori gainditu zuten.


Ohikotzat jo daiteke abenduko gorakada, aintzat hartuta Gabonak direla-eta ugaritzen diren testuak. Halaber, abuztuko beherakada ere ohikoa da, egunkarietako publizitateak behera egiten duelako udako oporraldian, eta horren eraginez, orrialde-kopuruak ere nabarmen egiten duelako behera. Urtarrileko kota hain txikia izatea justifikatzeko, aintzat hartu behar da azterlan honen egileek zailtasunak izan zituztela 2013ko lehen hileko datuak eskuratzeko.



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.1.b irudian ikusgai dago 2012ko eta 2013ko hileko txertatze-kopuruen arteko erkaketa. Nahiz eta deigarria den azken urtean testuen kopuruak gora egin izana aurreko urtearekin alderatuta, zehaztu behar da balitekeela bilaketa hemerografiakorako tresna aldatu (Acceso 360 utzi eta iPressReview erabiltzen hasi dira) eta azterlaneko gaiak berriz definitu izanak (hasieran 15 baziren ere, azkenean 7 dira) zenbait bat ez etortze eragitea. Halaber, ez da ahaztu behar 2013an ez zirela aintzat hartu elikagaiak eskuratzeari (Food Security) buruzko albisteak.

3.1.b irudia. 2012ko eta 2013ko txertatzeen arteko erkaketa






txostena: 2013 elkagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Egunkari bakoitzeko datuen banaketa, hileka

Oso handia da egunkari bakoitzak 2013an egindako txertatzeen arteko aldea; **kopuru handiena *El Diario Vasco* izan zuen (421)**, eta kopuru txikiena *El Mundok* (35) eta *El Paísek* (39) izan zuten. *El Correo El Diario Vasco*tik hurbil dabil: 383 testu txertatu zituen. Bi egunkari horien eta gainerakoen artean alde handi xamarra dago. Erdibidean ditugu *Deia*, argitaraturako 261 testuekin. Gainerako egunkariak, baina, urrunago dabilza: *Noticias de Gipuzkoa* 193 txertatze izan zituen eta *Diario Noticias de Álava* ordea 148. Are txikiagoak dira *El País*en (39) eta EAEko *El Mundoren* (35) zifrak.

3.2 irudia. Elikagaien Segurtasunari buruz 2013an inprimatutako idatziak





txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.1.a taulan egiazta daitekeen bezala, egunkari batek hilabete jakin batean egindako txertatze-kopuru handiena *El Correo*-ri dagokio, abenduan 86 txertatze egin zituen eta.

El País eta *El Mundo*, hilen batean izan ezik, kopuru oso txikietan dabilta, eta horiek alde batera utzita, **Garak** eta **Diario Noticias de Álava** argitaratu ohi dituzte Elikagaien Segurtasunaren arloko kontakizun gutxien hileko.

Datu esanguratsu gisa, nabarmendu behar da Deia dela urtarrilean eta apirilean idatzi gehien kaleratu dituen.


3.1. taulan hileka jaso dira egunkari bakoitzak eginiko txertatzeak.

3.1 taula. Banaketa, hilez hil, egunkari bakoitzean 2013. urtean

Testuak egunkariko eta hileko	<i>El Correo</i>	<i>Diario Vasco</i>	<i>Not. Álava</i>	<i>Not. Gipuzkoa</i>	<i>Deia</i>	<i>Gara</i>	<i>Berria</i>	<i>País</i>	<i>Mundo</i>	Guztira
Urtarrila	15	15	12	15	16	9	10	3	1	92
Otsaila	19	19	13	17	27	22	32	-	2	179
Martxoa	20	20	11	10	19	16	30	2	1	139
Apirila	33	33	10	17	34	11	29	3	-	158
Maiatza	21	21	13	19	25	12	7	2	3	130
Ekaina	38	38	9	10	24	12	4	2	4	142
Uztaila	31	31	7	13	25	15	7	5	3	141
Abuztua	19	19	30	10	6	2	14	9	2	113
Iraila	33	33	12	16	10	10	3	2	4	138
Urria	34	34	18	20	32	8	19	2	1	176
Azaroa	34	34	4	11	17	18	7	4	2	143
Abendua	86	86	9	35	26	17	9	5	12	252
Guztira	383	383	148	193	261	152	171	39	35	1.803

3.3 irudian grafikoki ikus daiteke komunikabide bakoitzak hileka izan duen bilakaera.

3.3 irudia. Elikagaien Segurtasunari buruzko albisteak hilaren eta egunkariaren arabera



3. KAPITULUA EMAITZAK

3.2 Kalitatea eta zehaztasuna albisteen edukian

3.2.1. Elikagaien Segurtasuneko gai ohikoena

Nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin eta arrantzarekin loturiko informazioa bihurtu da multzo tematiko garrantzitsuena 2013an: egunkari guztiek argitaratu zituzten lehendabizi gai horiekin lotutako Elikagaien Segurtasunaren arloko albisteak.



Bigarren multzo tematiko garrantzitsuena osasunari, elikagaien nutrizio-osaerari, elikagai-dietek pertsonen ongizatean duten eraginari eta elikagai-alergieiei buruzko informazioa da. Egunkari guztiek, *Garak* eta *El Paísek* izan ezik, gai horiei buruzko informazioa kaleratu zuten bigarrenik.



Elikagaien industria eta Elikagaien Segurtasunarekin harremana duten gaietan duen parte-hartzea direla eta, 2013ko multzo garrantzitsuenetako bat izan da. Bigarrenik argitaratu zuten egunkari guztiek, *Garak* eta *El Paísek* izan ezik, hirugarren multzo garrantzitsuena deritzote.



2013. urtean Elikagaien Segurtasunari buruzko gai garrantzitsuenak aztertzeko, oinarritzko 7 topikori erreparatuz multzokatu dira, arestian azaldutako zenbait irizpiderekin bat etorritz.

“Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza” gaiaren inguruko 700 testu plazaratu ziren, eta argitaratutako informazio osoaren % 38,8 izan zen; hartara, 2013ko esparru tematiko nagusi bihurtu da, eta soberan gainditzen ditu aztertutako gainerakoak. Bigarren tokian dago “Osasuna, nutrizioa eta elikagai-alergiak” multzoa: 444 albiste argitaratu ziren, % 24,6 izanik. Saillapeneko hirugarren tokia “Elikagaien industria”-ri dagokio: 323 plazaratu ziren eta ehunekoak % 17,9koa da. Laugarrenik, “Elikagaiak eta elikadura” gaiarekin lotutako albisteak agertu ziren, guztira 134 testurekin eta % 7,4 izanik.

Elikagaien Segurtasunarekin (% 6,7) eta arriskuarekin (% 4) lotutako gaiak daude txertatze gutxien izan dituztenen artean, urtean zehar elikagai-alarma edo -alerta gutxi gertatu direlako.




txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Datu horiei buruzko azalpen zehatzak 3.2 taulan eta 3.4.a irudian jasota daude.

3.2 taula. Gaiei banaketa egunkari bakoitzean 2013. urtean.

	El Correo	Diario Vasco	Noticias Álava	Noticias Gipuzkoa	Deia	Gara	Berria	El País	El Mundo	Guztira
Elikagaiak/Elikadura	38	28	3	4	23	12	20	5	1	134
Nekazaritza/Abeltzaintza/Arrantza	106	177	61	82	98	75	78	13	10	700
Elikagaien industria	96	66	30	42	30	24	18	10	7	323
ELIKA	-	5		1	1	-	-	-	-	7
Elikagaien arriskua	12	8	8	11	16	10	3	-	5	73
Osasuna/Nutrizioa/Alergiak	101	126	31	43	67	20	41	8	7	444
Elikagaien Segurtasuna	30	19	11	12	22	11	11	3	3	122
GUZTIRA	383	424	149	195	257	152	171	39	33	1.803

3.4.a irudia. 2013ko gai ohikoena



Zenbait alderdi jorratu behar dira datuok 2012koekin alderatu aurretik. Lehenik eta behin, 2012an espezifikoki aztertutako atal batzuk kendu egin dira 2013an; adibidez, "Eskuragarritasuna", "Kutsadura" eta "Kontrola eta laguntza ofiziala". Halaber, elikagaien etiketen inguruko multzoa "Elikagaien industria" gaiarekin batera jorratu da 2013an.


"Nekazaritza/Arrantza/Pentsuak" gaiak kategoría bat zuen 2012an, baina "Abeltzaintza"-ko albisteek ere. Aitzitik, bi atal horiek multzokatu egin dira 2013an, eta "Nekazaritza/Abeltzaintza/Arrantza" izenpean jaso dira. Horren barruan "Pentsuak" gaiaren inguruko albisteak ere badaude. Orobat, "Osasuna", "Nutrizioa" eta "Alergiak" banaka aztertu ziren 2012an. 2013an, berriz, hiru kategoriak "Osasuna/Nutrizioa/Alergiak" izeneko gaian bildu dira.



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Horrekin guztiarekin bat etorritz, 3.4.b irudian ikusten denez, zehatz **dezakegu nabarmen egin dutela behera “Elikagaiak/Elikadura”-ko albisteek 2012. urtekoekin alderatuta**, eta beherakada % 8,8koa da. **Orobat**, “Osasuna, nutrizioa eta alergiak” gaien inguruko albiste gutxiago argitaratu ziren; izan ere, plazaratutako testu guztien % 31,8 izan zen 2012an. 2013an, aldiz, % 24,6 izan zen. **Aitzitik, aurreko urteko datuekin alderatuta, esan daiteke “Elikagaien industria”-rekin harremana duten txertatzeek gora egin dutela**: 2012an % 7,4 izan zen, eta 2013an % 18. Gaiei dago-kienez, “**Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza**” atalak izan du areagotze handiena, % 28,3 igo baita 2013an.

3.4.b irudia. 2012ko eta 2013ko gai ohikoenen arteko erkaketa



2013ko irizpideei jarraitu zaie 2012ko datuak multzokatzeko, gaiei erreparatuta. Hartara, esaterako, Abeltzaintzako txertatzeak eta Nekazaritzakoak bildu egin dira, Kutsatzaileen ingurukoek Elikagaien arriskuarekin egin dute bat, eta Alergiei zein Nutrizioari dagozkionak Osasunekoekin batera zenbatu dira.

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.2 Kalitatea eta zehaztasuna albisteen edukian

3.2.2. Albisteen banaketa, atalen arabera

Gizartea
atala

Tokikoa/Eskualdekoa

Gizartea

Herritarrak

Ekonomia

Bizia y Euskal Herria

Elikagaien Segurtasunari buruzko albistek oso atal zehatzetan multzokatzen dira. *El Diario Vascok*, *Diario Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoak* eta *Deiak* “Local/Provincial” [Tokikoa/Herrialdekoa] eta “Gizartea/Sociedad” esparruetako atalak erabiltzen dituzte nagusiki. *El Correo* “Ciudadanos” [Herritarrak] izeneko atal bat erabiltzen du batez ere, eta horren ostean, “Culturas y Sociedad” [Kulturak eta gizartea] deritzona, baina urrun samar. **Garak joera du elikagaien inguruko gaiak “Ekonomia” eta “Euskal Herria” ataletan biltzeko; Berriak**, ordea, “Bizia”, “Euskal Herria” eta “Ekonomia” atalen artean banatzen ditu testuak, funtsean.

Azterlan honetan aztertutako egunkarietako informazioa antolatzeko darabiltzaten atalak izendatzeko erak ezberdinak direnez, esparru tematikoen kopuru mugatu batean multzokatu behar izan dugu, argitaratutako testuak zenbatu eta sailkatu ahal izateko. Egunkarietako orrialdeak gertutasun edo urruntasun geografikoko (Tokikoa, Herrialdea, Eskualdea, Estatua, Mundua) edo gaien espezializazioko (Ekonomia, Kultura, Kirola...) irizpideei jarraikiz antolatu ohi dira. Haatik, **“zerbitzuen egunkari-eredua”** deritzonak iragan mendeko azken hamarkadan izandako arrakastak eragin zuen geografiaren eta gaien araberako sailkapen horiek hain zorrotzak ez izatea, baita izaera generiko eta zeharkakoagoa duten izenak agertzea ere.

Sailkatze aldera, testuak 11 talde handitan bildu dira: “Ciudadanos” [Herritarrak], “Contraportada” [Kontrazala], “Economía/Ekonomia”, “Mundo/Mundua”, “Sociedad/Gizartea”, “Opinión/Iritzia”, “Local/Territorial” [Tokikoa/Lurraldekoa], “Otras Secciones” [Beste atal batzuk], “País Vasco” [EAE], “Portada” [Azala] eta “V”. Izen horietako batzuk bat datoz egunkarietako eurek darabiltzaten atalekin; horixe da “Ciudadanos” (*El Correo*) eta “V” (*El Correo* eta *El Diario Vasco*), “Economía/Ekonomia”, “Mundo/Mundua” eta “Opinión/Iritzia” atalen kasua. Beste kasu batzuetan, erabaki da egunkariaren arlo tematikoak deskriptore generikoagoen arabera sailkatzea. Horixe gertatu da, adibidez, **“Sociedad” [Gizartea] eta “Local” [Tokikoa] esparruekin; izan ere, alderatutakoan, Elikagaien Segurtasunaren arloko gai gehiago topatu dira bertan.**

Hala, herrietako eta eskualdeetako informazioa “Local/Territorial” [Tokikoa/Lurraldekoa] atalean sartuko genuke, baita gure hiru lurralde historikoei dagokien informazioa ere. Multzo horren barruan daude *El Diario Vascoren* eskualdeko edizioak, *Noticias de Gipuzkoako* “Bertan” atala, *Deiako* “Bizkaia” eta “Hemendik”, *Diario Noticias de Álava*ko “Araba” eta *Berriaren* Hitza tokiko gehigarriak.

“Sociedad/Gizartea” deskriptore orokorarekin biltzen dira egunkarietako izen zehatz horrekin jorratzen dituzten atalak (*Noticias de Gipuzkoa*, *Deia*, *Diario Noticias de Álava*, *El País*), baita antzeko izenak dituztenak ere; esaterako, “Culturas y Sociedad” [Kulturak eta gizartea] *El Correo*ren kasuan, eta “Bizia” *Berriaren* kasuan. Halaber, multzo horretan sartu da *El Diario Vascoko* “Al Día” [Egunean], gizartearen zein zerbitzuen inguruko gaietako testuak agertu ohi baitira atal horretako orrialdeetan. Izan ere, tokiko edizioetako orrialdeekin batera, “Al Día” [Egunean] atalekoek dakarte egunkari horrek Elikagaien Segurtasunaren arloan kaleratzen duen informazio gehiena.

*El Correo*ko “Ciudadanos” [Herritarrak] atala ere aipatutako multzo horietako batean sar zitekeen, zerbitzuei zein tokiko kontuei buruzko gaiak jorratzen dituelako. Orobat, gertaerak eta zenbait erreportaje bertan kokatu ohi dituzte. Azkenik, izaera hibridoa duenez, deskriptore bereizi gisa ezartzea erabaki da testuak sailkatzean.

“País Vasco” (EAE) izenarekin biltzen dira egunkarietako eremu horri eskainitako atalak. Kasu honetan, multzoaren izenak ñabardurak ditu egunkariaren arabera. Hartara, adibidez, *Noticias de Gipuzkoa*, *Diario Noticias de Álava* edo *El Mundo* argitalpenek “Euskadi” terminoa darabilte, *Garak* eta *Berriak* “Euskal Herria” erabiltzen dute, eta *El Paísek* nahiago du “País Vasco” [EAE] erabiltzea.

txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Izenek adierazi bezala, "Portada" [Azala] atalaren barruan egunkarietako lehenengo orrialdeetan plazaratutako testuak zenbatu dira; aitzitik, azken orrialdeetakoak "Contraportada" [Kontrazala] atalaren barruan daude.

"Mundo/Mundua" ataleko testuak nazioarteko informazioaren ingurukoak dira. Orobat, bistan da zer-nolako gaiak jorratzen dituzten "Economía/Ekonomía" epigrafean multzokatutako testuek. "Iritzia/Opinión" atalean, beste testu batzuen artean, egunkariaren editoriala sartu ohi da. Nolanahi ere, aipatu behar da egunkarietako iritzi-testu guztiak ez direla atal horretan kokatzen, eta ohikoa dela kazetaritza-genero hori egunkarietako beste orrialde batzuetan topatzea.

"V" *El Correo* eta *El Diario Vasco*ko atal bat da, eta funtsean, zerbitzuen eta gizartearen inguruko gaien buruzko erreportajeak jorratzen dira bertan. Azkenik, "Otras Secciones" [Beste atal batzuk] atalean bildu dira hainbat izenekin sartutako testuak, egunkari bakoitzaren arabera. Besteak beste, alderdi hauekin loturiko edukiak dira: "Comunicación y Televisión" [Komunikazioa eta Telebista], "Agenda", "Temas del Día" [Eguneko gaiak], etab. Besteak beste, hauek sartu ditugu atal horretan: Grupo Noticiasen "Mirarte" eta "Begira", *Berriako* "Erdiz erdi" eta *El Mundo del País Vasco*ko "Ciencia" [Zientzia] ataleko orrialdeak.

2013an aztertutako egunkarietako ataletan, guztira, 1.556 testu (% 86) kaleratu dira. Koadernotxo eta gehigarri tematikoetan zein berezietan agertutako 247 testuak gehituz gero, 1.803 txertatze lirateke 2013an guztira.

Albisteak atalen eta hedabideen arabera sailkatzeko irizpideen azalpen zehatza 3.3 taulan ikus daiteke, eta irudikapen grafikoa, berriz, 3.5 irudian.


3.3 taula. Albiste guztien banaketa atalen arabera

	<i>El Correo</i>	<i>El Diario Vasco</i>	<i>Noticias de Álava</i>	<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	<i>Deia</i>	<i>Gara</i>	<i>Berria</i>	<i>El País</i>	<i>El Mundo</i>	Total
Herritarrak	200									200
Kontrazala		3	2	6	4	1	4	1		21
Economía/Ekonomía	37	49	11	40	14	53	20	4	1	229
Sociedad/Gizartea	61	96	38	55	85		77	14		426
Iritzia/Opinión	10	9	11	10	9	3	2		3	57
Tokikoa/Lurraldea		179	66	62	88		4		1	400
Mundo/Mundua					1	13				14
Beste atal batzuk		3	3	3	6	12	9	5	9	50
EAE				1		31	23	10	13	78
Azala	13	5	17	5	6	4	4	4		58
V	18	5								23
GUZTIRA	339	349	148	182	213	117	143	38	27	1.556



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.5 taula. Albiste guztien banaketa atalen arabera



“Ciudadanos” [Herritarrak] ataleko zifra guztiak *El Correo*ri dagozkie. **Atal hori da aipatu egunkariak testuak kokatzeko gehien erabiltzen duena**, eta oso alde handia dago gainerako atalekin. Gehien erabiltzen dituen beste atalak “Culturas y Sociedad” [Kulturak eta gizartea] eta “Economía” [Ekonomia] dira.

El Diario Vasco, *Diario Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Deia* egunkariak antzera banatzen dituzte testuak. Lau egunkari horiek “Local/Territorial” [Tokikoa/Lurraldea] atalean biltzen dituzte lan honen aztergai diren testu gehienak. Bigarren aukera “Sociedad/Gizartea” izan ohi da, eta hirugarrena, aldiz, “Economía/Ekonomia”.

Berriak, bere aldetik, “Bizia”-ko orrialdeetan sartzen ditu albiste gehienak. Horren ostean, eta urrun samar, “Euskal Herria” eta “Ekonomia” ataletako orrialdeak darabiltza. Hain zuzen, *Berriaz* gain, *Gara*, *El País* eta *El Mundo* egunkariak baino ez dute “Euskal Herria/Euskadi/País Vasco” atala erabiltzen testuak kokatzeko.

Garak eta *Deiak* soilik erabiltzen dute “Mundo/Mundua” atala, eta “V”-ren kasuan, aldiz, *El Correo* eta *El Diario Vasco* erabiltzen dute, besterik ez.

Ikuspuntu globaletik abiatuta, “Gizartea/Sociedad” atala da garrantzitsuena (426 testu), eta hurrengoa “Local y Territorial” [Tokikoa eta Lurraldea] da (gertu dago, 400 albiste dira eta). Bestalde, “Economía/Ekonomia” eta “Ciudadanos” [Herritarrak] bigarren mailan daude. Lehenengoan 229 testu bildu dira eta bigarrean 200 testu. Gainerako ataletako kotak askoz txikiagoak dira.

Koadernotxoetan eta gehigarrietan agertzea

Gehigarri bereziak
eta igandekoak
%13,7
Elikagaien
Segurtasunari
buruzko testuak

Koadernotxo eta gehigarri bereziak nahiz igandekoak elikadurari eta nutrizioari buruzko testuak plazaratzeko leku egokiak diren arren, 2013an ez dira gai horietarako gune garrantzitsuak izan. **Guztira 1.803 testu argitaratu zirela aintzat hartuta, 247 (% 13,7) besterik ez zen kaleratu noizean behingo koadernotxo edo gehigarri berezietan zein igandekoetan.** Sarritan, une zehazetan argitaratzen dira; esaterako, horixe gertatzen da *El Correo* eta *El Diario Vasco* giniko Sukaldea gehigarriarekin.




txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Zenbait kasutan, noizean behin argitaratzen diren koadernotxo tematikoak dira, publizitate-euskarri handi batek babestuta. Koadernotxo horiek orrialde-kopuru handi samarra izan dezakete, *El Correok* eta *El Diario Vascok* aldi berean argitaratzen duten eta arestian aipatu den Sukaldeak bezalaxe. Hala ere, **noizean behingo koadernotxoek orrialde gutxi** izatea da **ohikoena**, eta elikaduraren inguruko gai gutxi jorratzen dituzte. Beste zenbaitetan, ordea, aztertutako gaiak aztertutako egunkari gehienek **asteburuetan kaleratzen dituzten gehigarrietan** agertzen dira. Horixe gertatzen da honako kasu hauetan: *El Diario Vascok* plazaratutako FIND, *El Correoren* GPS, *Garak* ateratzen duen Gaur 8, *Berriak* kaleratutako Igandea eta *Deiaren* On koadernotxoak.

El Diario Vascok sartzen ditu Elikagaien Segurtasunaren arloko testu gehien koadernotxo berezietan, gainerako egunkariak baino dezente gehiago. Hona hemen hurrengoak, hurrenkera honetan: *Deia*, *El Correo*, *Gara* eta *Berria*. Gainerako egunkariak oso testu gutxi plazaratzen dituzte horrelakoetan.

3.6 irudia. Koadernotxo berezietako kopuruaren banaketa



Datuok 2012koekin erkatzen baditugu, ikusiko dugu elikadurarekin lotutako gaiak gorakada handia izan dutela koadernotxo berezietako orrialdeetan. Argitaratutako albiste guztien aurrean, 2012an % 1,9koa izan zen koadernotxo eta gehigarrietan agertutako testuen ehunekoa. Aitzitik, ehunekoa % 13,7koa izan zen 2013an.

Halaber, egunkarietan gertatutako aldaketak ere handiak izan dira. ***El Diario Vasco* azken tokian zegoen 2012an eta 2013an lehenengoa** izan zen. *El Correo*, ordea, azkenetakoa zen, baina 2013an bigarren tokia hartu zuen. Bestalde, bai *Deiak*, bai *Garak* behera egin dute, baina kopuru handiari eutsi diote halere. Nabarmen murriztu da *Noticias de Gipuzkoa* zein *Diario Noticias de Álava*ren koadernotxo eta gehigarrietan zenbatutako testuen kopurua, eta azken tokietara aldatu dira, *El Paísek*in eta *El Mundorekin* batera.

Argitaratutako testuei emandako garrantzia

Guztira, egunkariak 1.556 albiste argitaratu zituzten orrialde orokorretan: horien % **3,8 azaleko testuak ziren, % 49,2 orrialdea irekitzeko erabili zituzten, eta % 47 bigarren mailako guneetan kokatu ziren** (orrialdea ez irekitzekoak). Era berean, koadernotxo berezietan 247 testu plazaratu ziren, eta horien % 2 azalean agertu ziren; % 56,2k, aldiz, koadernotxoetako orrialderen bat ireki zuten, eta % 41,7 bigarren mailako toki batean kokatu zituzten.

1.556 albisteetatik
 % 3,8
 azalekoak
 % 49,2
 orrialdea irekitzekoak
 % 47
 bigarren mailakoak

Egunkariak Elikagaien Segurtasunaren arloko testuekin ezarritako informazio-hierarkia aztertzeko, orrialde bakoitzean hartzen duten tokiari erreparatu zaio. Gai bat maketako toki jakin batean kokatzeko erak bisualki adierazten die irakurleei gaiak zer-nolako informazio-garrantzia duen.

Azterlan honetan, kontuan hartu da Elikagaien Segurtasunaren arloko gaiak dagokien orrialdea "irekitzen" ote duten, hau da, kokatuta dauden orrialdearen gai nagusia al diren edo bigarren mailako testu gisa aurkezten diren:

Orrialdea irekitzea

Tabloide gisako egunkarietan (Espainiako prentsak erabiltzen du formatu hori), ohikoa da testu nagusia orrialdeko goiko aldean kokatzea, eta 3 eta 5 zutabe artean betetzea. Orrialde bakoitza "irekitzen" duten gaiak dira.

Orrialdea ez irekitzea

Aitzitik, bigarren mailako albisteak, oro har, orrialdearen behealdean kokatzen dira, edo alboetako zutabeetan. Goiko aldean ezartzekotan, ez du bi zutabe baino gehiagoko zabalera. Orrialdea "irekitzen" ez duten gaiak dira.

Azala

Informazio-item jakin baten garrantzia neurtzeko beste faktore garrantzitsu bat da egunkariaren azalean agertzen den edo ez. Lehenengo orrialdeak espazio mugatua du, eta eguneko albiste nagusietarako soilik erabiltzen da. Azalean dagoen testu orori, egunkariak albistegarritasun-plusa ematen dio.

Koadernotxo bereziak eta gehigarriak

Koadernotxo bereziei dagokienez, irizpide berari heldu zaio orrialde nagusietan erabilitako testuen garrantzia neurtzeko. Kontuan hartu da orrialdean (irekitzea) lehentasuneko lekua duen, baita koadernotxoaren azalean gaia aipatzen ote den ere.

Aipatu behar da argitaratutako 1.803 testuen % 13,7k soilik duela toki koadernotxo berezietan. Orrialde orokorretako testu guztien % 3,8 argitaratu zen azalean, eta % 49,2k orrialdea irekitzeko gunea hartu zuen; aitzitik, % 47 orrialdeko bigarren mailako tokietan kokatutako edukia da. 3.4 taulan eta 3.7.a irudian ikus dezakegu testuei orrialde orokorretan emandako garrantziaren irudikapen grafikoa.

3.4 taula. Testuei orrialde orokorretan emandako garrantzia


Azala		Orrialdea irekitzea		Orrialdea ez irekitzea		Testu-kopurua, guztira
Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%	
59	% 3,8	766	% 49,2	731	% 47	1.556



txostena: 2013 elkagaien segurtasuna Euskadiko prentsan


3.7.a irudian ikus dezakegu testuei orrialde orokorretan emandako garrantziaren irudikapen grafikoa.

3.7.a irudia. Testuei orrialde orokorretan emandako garrantzia



2012ko datuekin alderatuta, azalean agertzen diren testuen kopuruak gora egin du nabarmen: 3.7.b irudian ikus daitekeenez, % 0,12 izan zen 2012an. 2013an, ordea, % 3,8. Dena den, 2012koak ikusita, % 7,4 gutxitu da orrialdea irekitzen duten testuen kopurua.

3.7.b irudia. Testuei orrialde orokorretan emandako garrantzia (2012-2013)



Esan bezala, ehuneko txikia dagokie koadernotxo berezietan argitaratutako testuei. Koadernotxoetan guztira 247 testu kaleratu zirela aintzat hartuta, orrialdea irekitzen dutenak eta irekitzen ez dutenak zein azaleko testuak aztertuz gero, ikusiko dugu 5 albiste azalean agertu zirela, 139 testuk orrialdea ireki zutela eta 103 bigarren mailako intereseko guneeetan kokatu zituztela. Aipatu datuak 3.5 taulan eta 3.8.a irudian jaso dira.


3.5 taula. Testuei koadernotxo berezietan emandako garrantzia

KOADERNOTXO BEREZIAK						
Azala		Orrialdea irekitzea		Orrialdea ez irekitzea		Testu-kopurua, guztira
Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%	
5	% 2	139	% 56,2	103	% 41,7	247




txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.8.a irudia. Testuei koadernotxo berezietan emandako garrantzia



2012an ez zen testurik agertu koadernotxo berezien ataletan; 2013an, berriz, testu batzuk agertu ziren, baina % 2 soil-soilik, 3.8.b irudian ikus daitekeen legez. Aurreko urtearekin erkatuta, esanguratsuena da orrialdea irekitzen duten testuen kopuruan gertatutako erabateko aldaketa; izan ere, beherakada handia izan zuen 2013an: % 37,2koa, hain zuzen.

3.8.b irudia. Testuei koadernotxo berezietan emandako garrantzia (2012-2013)



Garrantzia, egunkarien arabera

Nahiz eta *El Diario Vasco* (348) eta *El Correo* (339) egunkariak izan, alde handiz, 2013an orrialde orokorretan Elikagaien Segurtasunaren arloko testu gehien argitaratu zituztenak (hirugarrena *Deia* izan zen, 214 testurekin), **Diario Noticias de Álava argitaratu zituen arlo horretako gai gehien azalean** (17). Txertatutako albiste guztiei dagokienez, irekitako orrialdeen ehunekoa aintzat hartuta, **Berriak du lehen tokia** (% 55,2), eta *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario Noticias de Álava* egunkariek ere % 50eko muga gainditu zuten.

**Diario
Noticias Alava
+ azalak**

**Berria
+ orrialdea
irekitzekoak**

Berriak, *Deiak*, *Diario Noticias de Álava* eta *Noticias de Gipuzkoak*, *El Correo* eta *El Diario Vasco* baino askoz albiste gutxiago txertatu zituzten, baina hurrenkera horri berari jarraikiz dute orrialdea irekitzen duten testuen kopuru handiena. Bigarren tokian *El Correo*, *El Diario Vasco* eta *Gara* daude. Orrialdea irekitzeko testu gutxien erabili zituzten egunkariak *El País* eta *El Mundo* izan ziren.

Albisteak azalean agertzeari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu *Diario Noticias de Álava* dela atal honetako lehenengoa, % 11,5eko ehunekoa baitu, bertan argitaratutako testu guztien gainean.

3.6 taulan azaltzen dira datu horiek zehaztasun osoz. Irudikapen grafikoa 3.9 irudian dago.

3.6 taula. Egunkari bakoitzak testuei orrialde orokorretan emandako garrantzia


	Testu- kopurua, guztira	Testuak azalean		Orrialdea irekitzea		Orrialdea ez irekitzea	
		Testu-kop.	%	Testu-kop.	%	Testu-kop.	%
<i>El Correo</i>	339	13	% 3,8	165	% 48,7	161	% 47,5
<i>Diario Vasco</i>	348	5	% 1,4	163	% 46,8	180	% 51,7
<i>Not. Álava</i>	148	17	% 11,5	76	% 51,3	55	% 37,2
<i>Not. Gipuzkoa</i>	183	6	% 3,3	95	% 51,9	82	% 44,8
<i>Deia</i>	214	6	% 2,8	112	% 52,3	96	% 44,8
<i>Gara</i>	116	4	% 3,4	51	% 43,9	61	% 52,6
<i>Berria</i>	143	4	% 2,8	79	% 55,2	60	% 41,9
<i>El País</i>	38	4	% 10,5	15	% 39,5	19	% 50,0
<i>El Mundo</i>	27	-	-	10	% 37,0	17	% 62,9



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Garrantzia, egunkarien arabera

3.9 irudia. Orrialdeak ireki zituzten testuen ehunekoa, egunkari bakoitzak argitaratutako kopuru osoaren gainean



2012ko datuekin bat etorritz, orrialdeak ireki zituzten testuen ehunekoak behera egin du egunkari gehienek kasuan, argitaratutako testuen kopuru osoa kontuan hartuta. Hala, beherakada handia gertatu da *El Correo*, *El Diario Vasco*, *Deia*, *Gara* eta *El Mundoko* orrialdeak ireki zituzten testuen ehunekoetan, baina beherakada arinagoa da *Berriaren* kasuan. Beste alde batetik, hala *Noticias de Gipuzkoa* nola *Diario de Noticias de Álava* eta *El País* egunkarietan areagotu egin da orrialdeak ireki zituzten testuen kopurua, baina ez da % 2tik gorakoa izan.

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.2. Kalitatea eta zehaztasuna albisteen edukian

3.2.3. Material grafikoa

Egileak eta erabilitako material-mota

1.296 argazki
+
52 infografia
=
1348 irudi idatzien
% 75ean

Aztertutako egunkariet, guztira, 1.348 ilustrazio bildu zituzten, eta horietatik 1.296 argazkiak dira (% 96,1). Alde batetik, argazkien harira, gehienak egunkarietara dira (% 84,8) agentzien argazkien aurrean (% 15,2). Antzeko zerbait gertatzen da argazki argigarriekin (% 71,5), informazioa ematekoekin alderatuta (% 28,5). **Infografikoen kopurua 52 da (% 3,8), baina kaleraturiko ilustrazio guztiak aintzat hartuta, zifra txiki xamartzat har daiteke.**

Idatzi bat argazkiekin batera agertzeak esan nahi du, oro har, hedabideak garrantzi handiagoa eman nahi diola. Orobat, idatziari infografiko bat eranstean badiote, garrantzia are handiagoa da, marrazki informatikoei lan gehiago eskatzen dutelako. Informazio batek zenbat eta osagai gehiago izan, orduan eta garrantzi handiagoa izango du, eta ikuspuntu horretatik, argazkiak eta infografikok ere bereziki garrantzitsuak dira.

a) Argazkiak

Argazkien atalean, ezberdindu egin dira agentziarenak eta egunkariak berriemaile grafikoaren bidez egiten dituenak. Egunkari batek bereziki nabarmendu nahi dituen gaietan, lehentasuna ematen zaio bere material grafikoari, agentziak emandakoaren aurrean. **Egunkarietara ematen diren material grafikoak esklusibotasuna ematen du, eta agentzien argazkiak, berriz, gainerako egunkarietara partekatzen dira.** Hori dela eta, komunikabide batek uste badu gai hori bereziki interesgarria dela, bere argazkilariak eramanango ditu, irudiak lortzeko. Hortaz, material grafikoa egunkarietara bada, balioa handiagoa da.

b) Infografiak

Infografiekin dagokionez, halakotzat jotzen da **irudiaren (marrazkia, grafikoak, argazkiak) eta testuaren arteko konbinazioa, hain zuzen, irakurleari informazio jakin bat ulertzen laguntzeko** erabiltzen dena. Egunkarietara irudi argigarriak erabiltzen zituzten, argazkiak prentsan sartu baino lehen. Iragan mendeko 80ko hamarkadatik aurrera, diseinu grafikoko programa espezifikoak dituzten ordenagailu pertsonalak egunkarietara erredakzioetara sartu ziren pixkanaka, eta horrek bidea eman zion infografiko suspertzeari. Azken urteotan, zerbitzuen kazetaritza izan da genero horri harrera onena egin dion arloetako bat, irakurleari aukera ematen baitie prozesu jakin batzuk "bistaratzeko". Izan ere, ulertzeko zaila izango litzateke horren azalpena testuaren bidez besterik ez ematea.

Egindako tratamendu grafikoari dagokionez, uste da informazioa emateko **argazki batek harreman zuzena eta estua duela horrekin batera ageri den gertaerarekin.** Hau da, kontakizunak eta argazkiak erabateko kazetaritza osatzen dute: bata eta bestea elkarren osagarri dira.

Informazioa emateko argazkia



Argazki argigarria



Iturria: Noticias de Gipuzkoa eta Deia




txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.7 taulan zehazten dira argazki-materialaren inguruko datuak, eta 3.10.a irudian ehunekoetan ikus daiteke erabilitako argazki-materialaren irudikapen grafikoa.

3.7 taula. Argazkiak eta infografiak erabiltzea


Argazkiak				
Kopurua guztira	1.296	Argazkiaren egilea	Egunkariak	1.099 % 84,8
			Agentzia	197 % 15,2
		Argazki-mota	Informazioa ematekoa	369 % 28,5
			Argigarria	927 % 71,5
Infografikoak				
Kopurua guztira	52			

3.10.a irudia. Egilea eta argazki-materialaren mota



Datu horiek 2012koekin alderatuz gero, esan dezakegu aldaketa nabarmen xamarrak gertatu direla, 3.10.b irudian ikus daitekeenez. Egunkarien euren argazkien erabilerak % 7,3 egin du gora, agentzien argazkien erabilerarekin alderatuta; era berean, argazki argigarrien erabilera % 17,7 handitu da, informazioa ematekoen aurrean. 2013an, hedabideek euren baliabideekin eginiko argazki gehiago erabili zituzten, eta testuaren osagarri den material grafikoaren erabilera areagotzeko joera agertu zuten, informazio-osagai interesgarririk gehitu gabe.

3.10.b irudia. Egilea eta argazki-materialaren mota (2012-2013)




txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan



Aztertutako egunkari bakoitzak material grafikoa erabiltzeko moduari dagokionez, **El Correo, El Diario Vasco eta Deia egunkarietan biltzen dira argitaratutako argazki guztien % 57,3**. Hona hemen handienetik txikienerako hurrenkera: *Diario Noticias de Álava, Noticias de Gipuzkoa, Berria, Gara, El País* eta *El Mundo* (azken biak aurrekoetatik urrun xamar dabilta). 3.11 irudian ikus daitezke erabilitako argazkien ehunekoen irudikapen grafikoa.

3.11 irudia. Erabilitako argazkien ehunekoak



Egunkari guztiek, batera, 52 infografiko kaleratu zituzten 2013an, eta kasu honetan ere, *El Correek* eta *El Diario Vascok* erabili dute marrazki informatikoen ehuneko handiena, baina *Berria* eta *Noticias de Gipuzkoa* dituzte atzean.




Iturria: Noticias de Gipuzkoa



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.12 irudian jaso da egunkari bakoitzak erabilitako infografikoen ehunekoa islatzen duen grafikoa.

3.12 irudia. Erabilitako infografien ehunekoa



Ehunekoetan, kaleratutako infografien kopurua nabarmen gutxitu da, 2012ko kopuruarekin alderatuta. Iaz, marrazki informatikoak argitaratutako ilustrazio guztien % 9,2 ziren, eta ehunekoa % 3,8ra beheratu zen 2013an. Horren ondorioz, plazaratutako ilustrazio guztiak aintzat hartuta, argazkien ehunekoak gora egin du, infografien kalterako.

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.2. Kalitatea eta zehaztasuna albisteen edukian

3.2.4. Albisteen gaurkotasuna

Elikagaien Segurtasunari buruzko 1.803 testu kaleratu ziren, eta gaurkotasunaren ikuspegitik, testuon % 70,2 azken aldiko gaien ingurukoak dira, % 27,5 gaurkotasun iraunkorrekoak eta % 2,3 besterik ez gaurkotasun luzatukoak.

1.803 testu

% 70,2 azken aldikoak % 27,5 gaurkotasun iraunkorrekoak % 2,3 gaurkotasun luzatukoak

Gaurkotasunaren osagaia eta motak

Denbora, gaurkotasunaren osagaia, erabakigarria da albistek eta beste kazetaritza-kontakizun batzuk bereizteko. Hori dela eta, kazetarien lanaren oinarritzko jardueretako bat da gaur egungo gertaerak aukeratzea eta hedatzea. Gaurkotasuna, gainera, ez da kontzeptu lineala. Gertaera bat gaur egungoa dela adierazteak ez du soilik esan nahi une horretan bertan gertatu dela: baliteke iraganeko uneren batean gertatu izana, baina duela gutxi deskubritu izana. Horrenbestez, gaurkotasuna gertaeran zein duela gutxiko deskubrimenduan datza.

Kazetaritzaren esparruan, hiru gaurkotasun-mota daudela esan dezakegu, ikerketan kontuan hartu direnak, alegia:

a) Azken aldiko gaurkotasuna:

gertatu berri diren gertaeretan oinarritutako albisteetan aurkitu ohi dugu, edo, bestela, une horretan deskubritu diren horietan. Gai horietako asko (esate baterako, gertaera jakin batzuk) argitaratzean agortzen dira, eta oso denbora gutxi egon ohi dira indarrean.

b) Gaurkotasun luzatua:

zenbait gai ez dira agortzen argitaratzen diren egunean bertan (esate baterako, elikagai-alerta bat); aldiz, zenbait informazio-ondorio eragiten dituzte. Horrek dakar, hain justu, denbora-tarte jakin baterako gertaerei arreta eskaintzea.

c) Gaurkotasun iraunkorra:

Zenbait kontu, herritarren sektore zabaletan izan ditzaketen ondorioengatik, beti dira gaur egungo gaiak. Pertsonen bizi-kalitatearekin lotura duten gertaerak izan ohi dira. Esate baterako, gaixotasunen tratamenduari buruzko ikerketa gaurkotasun iraunkorreko gaietako bat da.

Esan daiteke gertaerak zenbat eta itxaropen gehiago sorrarazi edo ondorio gehiago sortu, orduan eta gaurkotasun handiagoa duela.

3.8 taulan azaltzen dira lortutako emaitzak, eta horiek ehunekoen bidez adierazi dira 3.13 grafikoan.


3.8 taula. Testuen gaurkotasun-motak

Azken aldiko gaurkotasuna		Gaurkotasun luzatua		Gaurkotasun iraunkorra	
Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%
1.266	% 70,2	41	% 2,3	496	% 27,5



txostena: 2013 elkagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

3.13 irudia. Gaurkotasun-motak, ehunekoen bitartez adierazita



Azken aldiko gaurkotasunaren ehunekoa altua da (% 70,6), eta horrek adierazten du Elikagaien Segurtasunaren inguruan argitaratu diren gaiak txertaketa bakar batekin gauzatu direla: gai puntualak, une horretan gertatutakoak edo deskubritutakoak, zikloa egun bakar batean amaitu zaiena.

Gaurkotasun luzatuaren indizea oso txikia da, eta horrek erakusten du 2013. urtean elikagai-albiste, -alerta edo -intoxikazio garrantzitsu gutxi gertatu direla, kazetaritza-jarraipen etengabea beharko luketenak.

Gaurkotasun iraunkorraren ehunekoa % 27,5 izanik, agerian dago kontakizun askok ez zutela harremana izan gaurkotasunarekin; aitzitik, gai generikoak izan ziren nagusiki, gaur egungo gisa interpreta daitezkeenak, argitaratzen diren eguna alde batera utzita.

Datu horiek 2012koekin erkatuz gero, ikusiko dugu gaurkotasunaren ikuspegitik ez dela aipatzeko moduko ia aldaketarik gertatu; izan ere, 2012an, azken aldiko gaurkotasuneko testuak % 69,6 izan ziren, gaurkotasun iraunkorrekoak % 28,4, eta gaurkotasun luzatukoak % 1,9.

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.2. Kalitatea eta zehaztasuna albisten edukian

3.2.5. Erabilitako kazetaritza-generoak

% 80,1
informazioa ematekoak

% 12,5
interpretazio-testuak

% 7,3
iritzia ematekoak

Alde handiz, informazioa emateko generoa da nagusi (% 80,1), interpretazio-generoaren (% 12,5) eta iritzia ematekoaren (% 7,3) gainetik. Albistek erabat gailentzen dira prestatzen errazak direlako, ez dute eskatzen interpretazio-testuen behar besteko lana eta espezializazioa, ez eta iritzia emateak dakarren sakontasuna ere.

Kazetariak **kazetaritza-generoak** erabiltzen dituzte istorioak irakurleei kontatzeko, eta generoak istorio horiek adierazi eta literarioki komunikatzeko erak dira. **Profesionalen esku dauden hizkuntza-baliabideak dira, komunikabide masiboen bidez mezuak zabaltzeko.** Ondorioz, profesionalak egindako testuak dira. **Generoek pertsonen gertaeren inguruan ikasten, ulertzen edo iritzi propioa sortzen laguntzen diete.**

Idatzizko kazetaritza-generoen sorta zabala bada ere, jardun pedagogiko eta profesionalak aholkatzen du generoak hiru multzo **handitan banatzea: Informazioa ematekoak, interpretazio-testuak eta iritzia ematekoak. Hiru talde horiek ezberdintzen laguntzen duten faktoreetako bat da kazetariak (edo testua egin duenak) eginiko interpretazioa zein mailatan agertuko den islatuta testuaren ezaugarri gisa.** Faktore horren arabera, honako aukera hauek aurki ditzakegu:

a) Informazioa emateko generoak:

kontakizun hauetan, kazetariak gertaerei edo datuei buruz egin dezakeen interpretazioa ez da testuaren ezaugarri. Modu aseptiko edo deskriptibo hutsean egoerak kontatzen dituzten istorioak dira, eta horietan egilearen izaera ez da ia aditzera ematen. Albistea edo informazioa, fotoalbistea eta albiste laburra dira, funtsean, informazioa ematen duten aldaeretako batzuk.

b) Interpretazio-generoak:

testu horien xedea ez da gertaera bat kontatzea soilik, irakurleari horiek interpretatzen ere lagundu nahi baitiote. Interpretazioa ahula izan daiteke, txostenetan bezala, edo nabarmenagoa, kroniketan bezalaxe. Bloke horretan egilearen izaera agertzen da islatuta, eta lehenengo pertsona ere erabil dezake narrazioan. Talde horren baitan leudeke honako hauek: txostena, erreportajea (aldaera edozein dela ere), kronika eta elkarrizketa.

c) Iritzia emateko generoak:

aurrekoek ez bezala, asmoa ez da funtsean gertaera batzuk kontatzea, horiek aztertzea (eta zenbaitetan, epaitzea ere bai) baizik. Editorialaren kasua salbu, bertan egunkari batek ikuspuntu ofiziala eskaintzen baitu gai jakin baten inguruan, genero horietan guztietan sinadura ezartzen da; izan ere, testuaren egilea erabakigarria izan daiteke irakurleek horren inguruko interesa izateko; esaterako, zutabeekin gertatzen den bezala. Editorialarekin eta zutabearekin batera, kritikak, iritzi-artikuluak, zuzendariari gutunak eta zenbait bineta grafikok osatuko lukete multzo hau.

3.9 taula. Kazetaritza-generoak eta horien aldaerak

Informazioa ematekoak	Interpretazio-testuak	Opinativos
-Informazioa edo albistea -Albiste laburra -Fotoalbistea	-Txostena -Erreportajea -Kronika -Elkarrizketa	-Editoriala -Zutabea -Iritzi-artikuluak -Kritika -Zuzendariari gutunak -Bineta grafikoa (ez guztiak)



txostena: 2013 elkagaien segurtasuna Euskadiko prentsan


Argitaratutako testuak, kazetaritza-generoen ikuspuntutik

1.803 kontakizun kaleratu ziren 2013an, eta horietatik 1.445 (% 80,1) informazioa emateko generokoak dira; bestalde, 226 (% 12,5) interpretazio-generoan sartzen dira, eta 132 (% 7,3) iritzia emateko generokotzat jo dira. 3.10 taulan eta 3.14.a irudian datu horiek ikus daitezke.

3.10 taula. Testuen banaketa globala kazetaritza-generoen arabera


Informazioa emateko generoak		Interpretazio-generoak		Iritzia emateko generoak	
Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%	Testu-kopurua	%
1.445	% 80,1	226	% 12,5	132	% 7,3

3.14.a irudia. Banaketa proportzionala, erabilitako generoen arabera



2012ko datuekin alderatuta (ikus 3.14.b irudia), informazioa emateko testuek nabarmen egin dute gora, interpretazio-testuen eta iritzia ematekoen kalterako, nahiz eta azken horien kasuan proportzioa txikiagoa izan den. **Aurreko urtearekin konparatuta, hedabideen joera askoz albiste gehiago kaleratzea izan da (% 13,9 areagotu dira, argitaraturiko testu guztiak kontuan hartuta),** erreportaje-, elkarrizketa- eta kronika-kopurua nabarmen murriztea (2012ko ehunekoa ikusita, % 8,9 gutxiago izan dira) eta iritzi-testuak ere murriztea (% 5).

3.14.b irudia. Banaketa proportzionala, erabilitako generoen arabera (2012-2013)





txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Argitaratutako testuak, kazetaritza-generoen ikuspuntutik

a) Informazioa emateko generoa


Informazioa emateko generoaren barruan, albisteak gailentzen dira % 77,7ko ehunekoarekin, albiste laburren (% 20,1) eta fotoalbisten aurrean (% 2,1).

% 77,7 informazio
(2012an baino % 6,1 gehiago)

% 22,2
albiste laburrak
eta foto-albisteak

Txertatutako 1.445 informazio-gertaeren artean, 1.123 (% 77,7) albisteak dira, 291 (% 20,1) albiste laburrak dira eta 31 (% 2,1), berriz, fotoalbisteak dira. Albiste laburrak idatzi motzak dira, gehienez ere 15 lerrokoak. Garrantzi txikiko deskripzioak izan ohi dira, ez daude ia inoiz sinatuta, eta ez dute datuen jatorria azaltzen. Fotoalbisteak informazio-testu mistoak dira, osagai ikoniko (argazkiak izan ohi dira) eta testu idatzi banak osatuta; hartara, testuak izenburua du eskuarki, eta ez ditu 10 lerro osatu baino gehiago. 3.15 irudian ikus ditzakegu horiek guztiak.

3.15 irudia. Informazioaren banaketa



2013ko datuak aurreko urtekoekin alderatuz gero, ikusiko dugu albisten kopurua % 6,1 areagotu dela, albiste laburren eta fotoalbisten aurrean. **Horrek esan nahi du kalitate handiagoko testu gehiago plazaratu zirela, hots, sakontasun handiagoz eta informazio-iturri gehiagorekin tratatutako informazioa kaleratu dela.**

txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan


b) Interpretazio-generoa

% 53,5 elkarrizketak
% 33,6 erreportajeak

Alde handiz, hedabideek gehien erabilitako interpretazio-generoak elkarrizketak (% 53,5) eta erreportajea (% 33,6) izan dira. Kroniken kopurua baxua da (% 4), eta ez da kazetaritza-txosten bakar bat ere bildu.


Interpretazio-generoko 226 kontakizun plazaratu ziren, eta horietatik 121 (% 53,5) elkarrizketak dira; 76 (% 35,8), berriz, erreportajeak dira. Horietatik nahiko urrun agertu dira 20 publizirreportajeak (% 8,8) eta 9 kronikak (% 4,0). Konplexutasuna eta zailtasuna dira kronika gutxi argitaratzeko eta txostenak desagertzeko arrazoia. Txostenak lan handia eskatzen du, eta aipamen estatistikoak nahiz adituen hausnarketak behar dira; kronikak, berriz, espezializazio-maila handia eskatzen du, eta aurrerago ikusi ahal izango den bezala, ez da halakorik atzeman Elikagaien Segurtasunaren inguruko kontuak idazten dituzten kazetarien kasuan. Publizirreportajeak erreportajeak dira, baina esku artean ditugun elikagai-kontuetan, enpresek babesten dituzte eskuarki, horrexegatik dute izen hori. Zenbaitetan, babesleak ez du harreman zuzena testuaren gaiarekin. Beste zenbaitetan, ordea, idatziaren edukiak publizitate-maila handiagoa du, eta informazioa ematearekin batera, enpresa babeslearen bertuteak ere azpimarratzen ditu. 3.16.a irudian ikusgai dago datu horiei buruzko grafikoa.

3.16.a irudia. Interpretazio-testuen banaketa



Interpretazio-generoek aldaketa handiak izan dituzte 2012. urtearekin alderatuta (ikus 3.16.b irudia). Elkarrizketa da 2013an gehien erabili zen generoa, eta erreportajeak bigarren mailan agertu ziren; hala izanik ere, erreportajeei lehenengo tokoa egokitu zitzaizen aurreko urtean, % 57,9 izan baitzen, eta elkarrizketak ondoren agertu ziren, ehunekoak % 35,8 izanik. Hau da, ehunekoak antzekoak dira, baina interpretazio-genero erabilienak alderantzikatu dira. Gainera, txostenak interpretazio-testuen % 5,1 izan ziren 2012an, baina 2013an desagertu egin ziren. Orobat, kronikek % 4 erdietsi zuten 2013an, nahiz eta 2012an % 1,1 besterik ez zen. Beste alde batetik, aipatzeko modukoa da 2012an ez zela publizirreportajerik kaleratu, baina 2013an % 8,8 izan ziren.

3.16.b irudia. Interpretazio-testuen banaketa



c) Iritzia emateko generoa


Antzeko proportzioan, iritzi-artikuluak (% 46,2) eta zutabeak (% 42,4) izan dira euskal hedabideek iritzia emateko gehien erabili dituzten generoak. Argitaratutako iritzi guztien % 5,3 editorialak dira.

% 88,6
iritzi-artikuluak eta zutabeak

% 11,3
zuzendariari igorritako
gutunak eta editorialak

132 iritzi-testu plazaratu ziren 2013an. Horietatik 61 (% 46,2) artikuluak dira eta 56 (% 42,4) zutabeak. Gainerakoak, eta alde oso handiarekin, 7 editorial dira (% 5,3) eta zuzendariari 8 gutun (% 6). Aurreko urtean gertatu zen moduan, ez zen iritzia emateko binearik topatu Elikagaien Segurtasunarekin lotuta.

3.17 irudia. Iritzia emateko testuak, generoaren arabera



Iritzi-artikuluei eta zutabeei dagokienez, ez da ia aldaketa garrantzitsurik gertatu aurreko urtearen aldean. Bi generoan presentziak gora egin zuen 2013an; zehazki, % 3,6 eta % 1,8. Nolanahi ere, aipatzekoak dira beste bi generoetan gertatutako aldaketak. Editorialak % 2 izan ziren 2012an, eta % 5,3 2013an. Zuzendariari gutunek, ordea, toki gutxiago izan zuten azken urtean, eta % 8,8 murriztu dira.

informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

Kazetaritza-generoak, egunkarien arabera

+ informazio-testuak

*El Mundo, Diario Vasco
El Correo, Deia*

+ interpretazio-testuak

El País, Berria, Deia

+ iritzi-testuak

*Noticias de Gipuzkoa
Berria*

- *El Mundo, Diario Vasco, El Correo* eta *Deia* egunkariak argitaratu zuten albisteen ehuneko handiena, eta zifra txikiena *Berriari* dagokio.
- *El Paísek, Berriak* eta *Deiak* interpretazio-testuen ehuneko handienak argitaratu zituzten: landuagoak eta luzeagoak izan ohi dira, eta ohiko albisteak baino kalitate handiagoak.
- Ehunekoetan, *Noticias de Gipuzkoak* eta *Berriak* erabili dituzte iritzi-artikulu gehien, eta genero horren ehuneko txikienak *El Paísen, El Diario Vascon* eta *Diario Noticias de Álavan* agertu ziren.

Egunkari bakoitzak argitaratutako testu guztiak aintzat hartuta, kaleratutako ehunekoei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu *El Mundok* (% 85,7) txertatu zuela albisteen proportzio handiena. Alabaina, oso testu gutxi atera zituen (35 besterik ez); beraz, datuak ez dira batere esanguratsuak. Antzeko zerbait gertatzen da *El Paísen* ehunekoekin: % 74,3koa da, baina plazaraturiko 39 testuen gainean.

Gainerako egunkariaren harira, *El Diario Vasco* lehen multzoan kokatu behar da, informazioa ematekoak baino ez diren txertatzen ehuneko handiena izan duelako, % 87,9rekin (370 testu); multzo berean daude, atzerago, *El Correo* (% 83,2) eta *Diario Noticias de Álava* (% 80,5). Hauexek dira bigarren multzokoak, antzeko ehunekoekin: *Deia* (% 78,5), *Gara* (% 76,3) eta *Noticias de Gipuzkoa* (% 74,6). Proportzioan informazio-testu gutxien erabili zituen egunkaria *Berria* da (argitaraturiko testu guztien % 66,1).

Interpretazio-testuen kasuan, *El Paísek* (% 23,0) izan zuen txertatze-ehuneko handiena, baina zenbaki absolutuak txikiak direnez (9 soil-soilik), ezin da emaitza kontuan hartu gainerako egunkariekin alderatzeko.

Beste egunkariaren artean, *Berria* nabarmendu da interpretazio-testuen erabileran, testuen % 20,5 dira eta. Datu esanguratsua da; izan ere, aintzat hartu behar da interpretazio-testuek, oro har, informazio-testu gehienek baino dedikazio eta ahalegin handiagoa eskatzen dutela. Logikoa denez, bestalde, *Berriak* kaleratzen ditu informazioa emateko testu gutxien. *Deia* erdibidean dago % 16,1ekin, *Berria* baino dezente atzerago, baina, *Diario Noticias de Álava* (% 12,8), *Gara* (% 12,5) eta *Noticias de Gipuzkoa* (% 10,8) baino aurrerago. *El Mundok* interpretazio-testu bakar bat argitaratu zuen (testu guztien % 2,8), eta azkena da. Aipatu egunkaria alde batera utzita, *El Correorena* (% 10,4) eta *El Diario Vascorena* (% 9,5) dira interpretazio-testuen ehunekorik txikiak.

Iritzi-testuei dagokienez, *El Paísen* eta *El Mundoren* emaitzak ez dira, beste behin ere, gainerako egunkariekin alderatzeko erabilgarri izango, txertatze gutxi egin zituztelako. Lehenengoak iritzi-testu bakar bat argitaratu zuen, eta guztien % 2,6 da; hala, egunkari horrek du iritzi-testuen maila txikiena. Orobat, *El Mundok* mota horretako 4 testu kaleratu zituen, eta ehunekoa % 11,4koa denez, erdi-mailan dago, gainerako egunkariekin konparatuz gero. Proportzioan, *Noticias de Gipuzkoak* (% 14,5) eta *Berriak* (% 13,4) darabilte iritzi-testu gehien, eta *Gara* ere hurbil dago (% 11,2). Bada distantzia handi xamarra gainerako egunkariekin: *Diario Noticias de Álava* (% 6,7), *El Correo* (% 6,2), *Deia* (% 5,4) eta, azkena, *El Diario Vasco* (% 2,6).





informe sobre la seguridad alimentaria


en la prensa del País Vasco en 2013

Bakoitzak erabilitako kazetaritza-generoen azalpen zehatza 3.11 taulan ageri da, eta irudikapen grafikoa, berriz, 3.18 irudian ikusgai dago.

3.11 taula. Kazetaritza-generoak, egunkarien arabera

	Informazioa ematekoak	% guztira	Interpretazio-testuak	% guztira	Iritzia ematekoak	Guztien %
El Correo	319	% 83,2	40	% 10,4	24	% 6,2
El Diario Vasco	370	% 87,9	40	% 9,5	11	% 2,6
Not. de Álava	119	% 80,5	19	% 12,8	10	% 6,7
Not de Gipuzkoa	144	% 74,6	21	% 10,8	28	% 14,5
Deia	205	% 78,5	42	% 16,1	14	% 5,4
Gara	116	% 76,3	19	% 12,5	17	% 11,2
Berría	113	% 66,1	35	% 20,5	23	% 13,4
El País	29	% 74,3	9	% 23,0	1	% 2,6
El Mundo	30	% 85,7	1	% 2,8	4	% 11,4
Guztira	1.445		226		132	

3.18 irudia. Testuen banaketa, egunkarien eta kazetaritza-generoen arabera





informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

Datu horiek aurreko urtekoekin erkatzen baditugu, egiaztatuko dugu aldaketa nabarmenak gertatu direla egunkari bakoitzak kazetaritza-generoak erabiltzeko moduan. Lehenik eta behin, *Noticias de Gipuzkoa* (% 76,2) eta *Deia* (% 72,5) egunkariak agertu zituzten informazio-testuen maila handienak 2012an, eta horien ondoren *Gara* (% 69,0) eta *Diario Noticias de Álava* zeuden (% 68,7). Aitzitik, maila baxuenak *El Correo* (% 64,9), *El Diario Vasco* (% 58,9) eta *Berria* (% 53,8) egunkariei egokitu zitzairen. Bestalde, *Berriak* eutsi egin dio 2013an informazioa emateko testuen kopuru txikiari, nahiz eta aurreko urteko ehunekoa baino handiagoa da. *El Correo*ren eta *El Diario Vasco*ren joera aldatu da, eta 2013an informazio-testu gehien argitaratu zituzten.

Interpretazio-testuen kasuan, *El Diario Vasco* (% 32,5) eta *El Correo* (% 23,4) erabili zituzten gehien 2012an. Egoera hori, baina, 2013an aldatu zen, eta egunkariok dira interpretazio-testu gutxien argitaratu zituztenak. *Berriak* interpretazio-testuen maila altua agertu zuen 2012an (% 23,1), eta lehen tokia egokitu zitzaion 2013an, baina ehunekoa pixka bat txikiagoa da (% 20,5). *Diario Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Deia* eta *Gara* egunkariak aurreko urtean bezala jarraitu dute, hau da, interpretazio-testuen argitalpenen erdi-mailan.

Iritzi-testuetan ere aipatzeko moduko aldaketak gertatu dira. *Berriak* ehuneko 9,7 puntu egin du behera, nahiz eta iritzia emateko testuetan lehenengoen artean egon 2013an, *Noticias de Gipuzkoa*ren atzetik; izan ere, aurreko urtearekin alderatuta, testu-mota horren ehunekoa bikoiztu du. *Gara* bigarrena zen 2012an, % 17,2ko ehunekoarekin, eta 2013an hirugarren tokia suertatu zaio, ehunekoa % 11,2koa izanik. *Deiak* eutsi egin dio aurreko urteko mailari, eta aldaketa nabarmenenak *El Correo*ren eta *El Diario Vasco*ren gertatu dira. *El Correo* ehuneko 5 puntu egin du behera testuetan, eta *El Diario Vasco* ehuneko 5,9 puntu gutxiagorekin, 2013ko azken tokira egin du behera, testu guztien % 2,6 izan zirelako.

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.3. Albisteen informazio-iturriak ezagutzea

3.3.1. Testuak egitea

- **Kazetariak euren sinadurarekin bermatu dute argitaratutako testuen erdia baino gehiago (% 53,1).** Dena den, sinadurarik gabeko testu ugari kaleratu ziren: plazaraturiko guztien % 31,8.
- **Garrantzitsua da aipatzea pertsona espezializatuak testuen % 6,7 argitaratu zituztela, eta informazio-agentziek, aldiz, % 5,5 egin zituztela.**

% 53,1
erredaktoreek
sinatutako testuak

% 6,7
adituek
sinaturiko testuak

Argitaratzen diren idatzien egilea ezagutuz gero, jakin daiteke kazetariak zein espezializazio-maila duten Elikagaien Segurtasunaren arloa jorratzean. Hori dela eta, atal honetan, lehenik eta behin, testuak nork sinatu dituen ikusi da. Sinadura bat agertzeak bermatu egiten du emaitzan abala uzten duen kazetari batek jorratutako informazioa dela. Gainera, izen jakin bat behin eta berriz agertzeak adierazten du horren atzean Elikagaien Segurtasunaren arloan nolabaiteko eskarmentua duen profesionala dagoela. Ikerketa hau egitean, aintzat hartu dira testuak izan ditzaketen bost egile-motak:

a) Komunikabideko erredaktoreak:

egunkari jakin batean lan egiten edo eskuarki kolaboratzen duten kazetariak dira.

b) Informazio-agentziak:

informazioaren handizkari nagusiak dira. Euren testuak, kazetariak idatzi ohi dituztenak, euren zerbitzuetan harpidetuta dauden egunkari guztietara iristen dira modu berean. Egunkari batek ezin duenean erredaktore bat bidali gertaera jakin baten berri ematera, agentziak izan ohi dira eskura dauden informazio-iturri bakarrak.

c) Pertsona espezializatuak:

ez da ezohikoa aditu jakin batzuek komunikabideekin kolaboratzea eta euren espezializazio-eremuarekin loturiko artikulua idaztea (medikuak, zientzialariak, ekonomialariak, abokatuak eta abar). Orobat, egile horiek egoteak islatzen du egunkariak espezialistak izateko kezka duela, hain zuzen, espezialista horiek irakurleei intereseko gaien inguruko ikuspuntu kualifikatua eskaini diezaieketelako.

d) Zuzendariari gutunak:

hala pertsona espezializatuak nola espezializaziorik gabeko irakurleek idatz ditzakete, Elikagaien Segurtasunaren arloko gaien buruz duten ikuspuntua agerian utzi nahi badute.

e) Enpresek babestutako testuak:

zenbaitetan, elikagai-enpresek testuak argitaratzea babesten dute. Publiurreportajeak izan ohi dira, informazioa eta publizitate gisako osagaiak batzen dituztenak.

f) Beste babesle batzuk:

beste zenbaitetan, elikagai-enpresek ez beste elkarte batzuek babes dezakete testuak kaleratzea, esaterako, elkarte sindikalek.

e) Sinadurarik gabeko testuak:

testu guztiak ez daude sinatuta. Kasu horietan, irakurleak ez daki nork idatzi duen testua. Oro har, informazio-agentziak edo komunikazio-kabineteak dira jatorria, kabineteok erakundeetakoak zein enpresa pribatuaren eremukoak izan.



informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

Testuen egileak zehatz-mehatz aztertu ondoren, aipatu beharreko zenbait kontu interesgarri topatu ditugu. Kaleratutako testuen erdiak baino gehiagok (959k, hau da, % 53,1ek) delako testua idatzi duen erredaktorearen sinadura du. Aitzitik, sinadurarik gabeko albisteen zifra ere oso handia da (573 guztira, % 31,8). Hala, zehaztu behar da sinadurarik ez dakarten testuen kopuru handi xamarra albiste laburrak (291 txertatze) eta fotoalbisteak (31 txertatze) direla, eta sinadurarik gabeko testu guztien % 56,2 dira. Horrenbestez, ondoriozta dezakegu sinadurarik ez duten izaera zabaleko albiste guztiak 251 direla, eta sinatu gabeko testu guztien % 43,8 dira. Ohar horiek eginda ere, **ondorioa da, nahitaez, sinadurarik gabeko testuen kopurua handiegia dela**. Testu bat sinadurarik gabe agertzeak nolabait esan nahi du komunikabideak halako interesik eza duela. Zenbaitetan, testuak agentzien materialarekin idazten dira eta hedabideak ez du iturria aipatzen. Beste batzuetan, tokiko berriemaileek emaniko albisteak izan daitezke, baina ez da euren parte-hartzea jasotzen.

Halaber, interesgarria da, nahiz eta oso esanguratsua ez izan, elikaduran espezializatuta dauden pertsonen kazetaritza-idazketan zuzenean parte hartzea. Kategoria horretan 121 txertatze bildu dira (guztien % 6,7). Bestalde, erredakziotik kanpo eta espezializaziorik gabeko pertsonen parte-hartzea (zuzendariari gutunak) oso txikia da: % 0,5 besterik ez.

Agentziek kazetaritza-piezak egitean parte hartzeari dagokionez, 98 kasutan hartzen dute parte guztira (testu guztien % 5,5). 3.12 taulan daude ikusgai datu horiek, eta 3.19 irudian ehunekoetan jaso dira.


3.12 taula. Elikagaien Segurtasunari buruzko albisteen ekoizpena

Nork idazten duen testua	Testu-kopurua	%
Erredaktoreak	959	% 53,1
Informazio-agentziak	98	% 5,5
Pertsona espezializatuak (artikuluak, zutabeak, eta abar)	121	% 6,7
Enpresek babestutako testuak	32	% 1,8
Beste batzuek babestutako testuak	10	% 0,5
Espezializazioa duten pertsonak edo espezializaziorik gabekoak (zuzendariari gutunak)	10	% 0,5
Sinadurarik gabe	573	% 31,8
Guztira	1.803	

3.19 irudia. Albisteen ekoizpenaren banaketa ehunekoetan (2012-2013)

Datu horiek 2012koekin alderatuz gero, ikusiko dugu sinatutako testuen ekoizpenaren ehunekoa ia-ia antzekoa dela bi urteotan, 2013an % 1,1 baino ez zelako murriztu. Haatik, aipatu behar da sinadurarik gabeko testuen ekoizpenak gora egin zuela 2013an: urte horretan % 31,8koa izan zen, eta 2012an % 26,2koa.

Antzeko kotei eutsi diete informazio-agentziek ekoiztutako testuak eta zuzendariari gutunak, baina nabarmen murriztu dira espezialistek idatzitako testuak (iritzi-artikuluak eta zutabeak); izan ere, % 13,6 izan ziren 2012an, baina 2013an % 6,7 izan ziren. Ehunekoetan, ia erdira gutxitu da adituek elikadurari buruzko testuetan izandako parte-hartzea.



informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

Egunkari bakoitzean lanak argitaratzen dituzten erredaktoreak

Elikagaien
Segurtasunaren
inguruko
espezializazio
mugatua

Erredaktore
bakoitzak
2,5 testu/urte

34 kazetarik
6 testu
edo gehiago
sinatu dituzte

- **Ondoriozta daiteke aztertutako egunkarietan ez dagoela elikagaien inguruko espezializazio handirik.** Hori esan daiteke sinatutako 959 albisteak egiten aritu direnen profesionalen kopurua (388) ikusita: erredaktore bakoitzeko, 2,5 testu dira, batez beste. Nabarmentzekoa da *Deia*, profesional-kopuru txikienak eginiko txertatze-kopuru handiena baitu (batez beste, 3,2 testu/erredaktore).
- Testuak sinatu dituzten profesionalen % 8,8k bakarrik (36 kazetarik) egin dituzte 6 informazio edo gehiago. *El Diario Vasco* da, alde handiarekin, kazetari bakar batengan espezializazio-maila handiena ezartzen duena (31 txertatze).

Albisteen idazketan agertzen den sinadura-kopuru osoak oso datu esanguratsuak ematen ditu. Oro har, esan daiteke zenbat eta testu gehiago sinatu, orduan eta interes handiagoa jartzen duela hedabideak albisteak idaztean. Oso-oso esanguratsuak diren iritzi-testuak izan ezik (esaterako, editorialak, inoiz sinatzen ez direnak), sinadurarik gabeko testuak albiste laburrak, jatorria nolabait ezkututzen duten agentzia-testuak edo argitaratzen dituen hedabiderako interes txikia duten albisteak dira.

Datu orokor gisa, esan daiteke erredaktoreek idatzitako 959 mezuetan guztira 388 kazetarik hartu dutela parte. Horrek esan nahi du **erredaktore bakoitzak batez beste 2,5 testu egin dituela**. Joera orokorra hori da hedabide guztietan, eta erakusten du aztergai dugun gaiko espezializazioa oso txikia dela.

2013. urtean, *El Correo* euren erredaktoreek sinatutako 227 kontakizun txertatu zituen guztira, eta guztira 89 kazetarik hartu zuten parte horiek idaztean. Horrek adierazten du egile bakoitzak, batez beste, 2,5 testu egin zituela. *El Diario Vasco* bestalde, 242 egin zituen, eta horietan 104 erredaktorek hartu dute parte, hau da, batez beste 2,3 testu idatzi zituzten.

Noticias de Gipuzkoa, *Gara* eta *Berría* egunkariak aurrekoen kopuru nahiko antzekoak dituzte. Lehenengoak 88 kaleratu zituen, 33 kazetarik idatzita; beraz, batez beste, profesional bakoitzak 2,7 idatzi zituen. *Garak*, bestalde, 23 profesionalak idatziriko 49 albiste plazaratu zituen, eta bakoitzak 2,1 egin zituen batez beste. Azkenik, *Berrian* 86 albiste sinatu agertu ziren, 38 profesionalen eskutik (batez beste, 2,3).

Proporzioan, *Diario Noticias de Álava* eta *Deiak* erabili zituzten kazetari gutxien, hau da, espezializazio-indize zertxobait handiagoekin lan egiten dute. *Diario Noticias de Álava* 27 kazetarik landutako 77 testu argitaratu zituen, hots, profesional bakoitzak 2,8 idatzi zituen, batez beste. *Deiak*, ordea, 146 txertatze agertu zituen, 46 profesionalak eginikoak, hortaz, kazetari bakoitzak 3,2 idatzi zituen, batez beste.

Berriro ere, *El País* eta *El Mundo* eredu orokorretatik kanpo dabilta. Horren zergatia da biek testu-ekoizpen txikia izan zutela. *El País*ek 15 kazetarik sinaturiko 22 albiste argitaratu zituen (batez beste, 1,5); orobat, *El Mundo*n 22 testu agertu ziren, 13 erredaktorek sinatuta (batez beste, 1,6). Erreferentzia horiek guztiak 3.13 taulan zehaztu dira.



informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

3.13 taula. Kazetarien eta sinatutako albisteen arteko harremana

Egunkaria	Sinatutako testu-kopurua	Guztien %	Kazetarien kopurua	Testu-kopurua, batez beste
<i>El Correo</i>	227	% 59,3	89	2,5
<i>Diario Vasco</i>	242	% 57,5	104	2,3
<i>Not. Álava</i>	77	% 52,0	27	2,8
<i>Not. Gipuzkoa</i>	88	% 45,6	33	2,7
<i>Deia</i>	146	% 56	46	3,2
<i>Gara</i>	49	% 32,2	23	2,1
<i>Berria</i>	86	% 50,3	38	2,3
<i>El País</i>	22	% 56,4	15	1,5
<i>El Mundo</i>	22	% 62,8	13	1,6
Guztira	959		388	2,5


Egunkari ia guztiek argitaratutako testu sinatuen ehunekoak honako bi hauen artean dabilta: *Berriaren* % 50,3ren eta *El Mundoren* % 62,8ren artean. Alabaina, bi salbuespen nabarmen daude: *Noticias de Gipuzkoa*, testuen % 45,6 sinatzen duena, gainerakoek baino 5 puntu gutxiago; eta batez ere, *Gara*, testu sinatuen kota oso-oso txikia duena, ekoizpen osoaren % 32,2.

Egunkarietako testu guztiak gogoan izanik testu sinatuen ehunekoak 2012koekin alderatuz gero, ondorioztatzen da *El Correo*, *Deia* eta *Berria* antzeko ibili direla bi urteotan; izan ere, lehenaren kota ia % 60koa da, bigarrenak % 56ko ehunekoa du, eta *Berriari* % 50 egokitu zaio. 2012. urteko jokabidearekin erkatuta, izugarri murriztu dira *Gararen* eta *El Diario Vascoren* testu sinatuen ehunekoak: *Gararen*ak % 16 izan ziren eta *El Diario Vascoren*ak % 11,5.

Diario Noticias de Álava (% 5,1) eta *Noticias de Gipuzkoa* (% 7) egunkarietako besterik ez dute nabarmen areagotu testu sinatuen kopurua. *El País*ek eta *El Mundok* ere gora egin dute, baina testu-ekoizpena oso txikia da, eta horrenbestez, ehunekoak ezin dira gainerako egunkarietakoekin konparatu. Dena den, testu sinatuen kopurua areagotzeko joera agertu zuten.

3.20.a irudiko irudikapen grafikoan ikus daiteke testu sinatuen eta egile-kopuruaren arteko harremana.

3.20.a irudia. Testuen banaketa, egilearen eta egunkariaren arabera






informe sobre la seguridad alimentaria en la prensa del País Vasco en 2013

Datuok 2012koekin konparatuta (ikus 3.20.b irudia), esan dezakegu joera orokorra izan dela elikaduraren arloko gaien tratamenduko espezializazioa areagotzea, testu sinatuen eta horiek idazten dituen kazetarien batez bestekoa 1,8koa baitzen 2012an, eta 2,5koa izan baitzen 2013an. Hau da, testu gehiago, kazetari gutxiagok eginikoak.

Espezializatzeko joera agerian geratzen da aztertutako hedabide guztien kasuan, Gararenean izan ezik, batez besteko txikiagoa izan zuen eta (2,3 2012an eta 2,1 2013an). Gainerako egunkarien batez bestekoa handitu egin da, besteak beste, *Diario Noticias de Álava*renak 0,3 egin du gora (2,5 2012an eta 2,8 2013an), eta *Deiarena* 1,5 areagotu da (1,7 2012an eta 3,2 2013an). Beste hedabideenak aipatu bien artean dabilta.

3.20.b irudia. Testuen batez bestekoa, egilearen eta egunkariaren arabera (2012-2013)



Nahiz eta Elikagaien Segurtasunaren arloko gaien tratamenduko espezializazioa areagotu den, esan dezakegu kota oso baxuetan gabiltzala oraindik ere, eta horren eraginez, hedabideek kazetari-kopuru handiegia erabiltzen dute testuak idazteko. Hala erredaktoreen presentzia egiaztatzeko nola albisteak idaztean modu aktiboagoan parte hartu dutenak zehazteko, hautatu egin dira aztertutako egunkarietan 2013an 6 idatzi edo gehiago txertatu zituzten profesionalen izenak. Bestalde, 6 testuko kopurua ezarri da, datu guztiak ikusita uste izan delako kopuru nahikoa dela halako espezializazio-mailaz jardun ahal izateko.

Guztira, 34 kazetarik argitaratu zituzten 6 albiste edo gehiago. *El Diario Vascoren* kasuan, Alberto Echaluze 31 txertatze kaleratu zituen; beraz, egunkari horrek du kazetari bakar baten espezializazio-maila altuena. Hala ere, gainerako kazetariak ez dituzte 8 txertatze baino gehiago kaleratu. *El Correo*ko 2 langilek egin zituzten 10 txertatze baino gehiago, eta *Diario Noticias de Álavan* eta *Garan* bakar bat dago. *Deia* da halako espezializazio-maila duten profesionalen kopuru handiena, 4 kazetarik 10 txertatze edo gehiago argitaratu zituztelako. Aitzitik, *Noticias de Gipuzkoako*, *Berriako* edo *El Mundoko* inork ere ez zituen 10 txertatze kaleratu. *El País* ez da taulan agertzen, bertako erredaktoreek 6 txertatze baino gutxiago plazaratu zituztelako.



informe sobre la seguridad alimentaria


en la prensa del País Vasco en 2013

3.14 taula. 6 kontakizun edo gehiago argitaratu zituzten kazetarien zerrenda, egunkariaren arabera.

Kazetariaren izena	Egunkaria	Testu-kopurua	Nombre del periodista	Egunkaria	Testu-kopurua
Apeztegia, Fermín	<i>El Correo</i>	19	Pérez, Pablo José	<i>Diario Noticias de Álava</i>	11
Artime, Mirari	<i>El Correo</i>	15	San Pedro, Eva	<i>Diario Noticias de Álava</i>	6
Astui, Iratxe	<i>El Correo</i>	8	Sanz, Jaione	<i>Diario Noticias de Álava</i>	7
Cancho, Rosa	<i>El Correo</i>	7	Lago, Concha	<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	7
Echaluze, Alberto	<i>El Correo</i>	6	San Sebastián, Marta	<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	7
Mayora, Jon	<i>El Correo</i>	7	Zaldua, Asier	<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	9
del Castillo, Alicia	<i>El Diario Vasco</i>	7	Agirregoikoa, Ainhoa	<i>Deia</i>	6
Echaluze, Alberto	<i>El Diario Vasco</i>	31	Alberdi, Iñigo	<i>Deia</i>	8
García, Mario	<i>El Diario Vasco</i>	6	Castrexana, Elixane	<i>Deia</i>	10
Lerate, A.	<i>El Diario Vasco</i>	6	Lago, Concha	<i>Deia</i>	15
Manzanares, Pilar	<i>El Diario Vasco</i>	6	Lauzirika, Nekane	<i>Deia</i>	12
Oliden, Kepa	<i>El Diario Vasco</i>	8	Martínez, Silvia	<i>Deia</i>	12
Turrau, Cristina	<i>El Diario Vasco</i>	7	Basterra, Juanjo	<i>Gara</i>	10
Urdangarin, Ane	<i>El Diario Vasco</i>	8	Salbador, Joseba	<i>Gara</i>	6
Lago, Concha	<i>Diario Noticias de Álava</i>	8	Gárate, Miren	<i>Berria</i>	8
Martínez de Orduña, Carlos	<i>Diario Noticias de Álava</i>	7	Unanue, Maialen	<i>Berria</i>	6
Oiarzabal, Araceli	<i>Diario Noticias de Álava</i>	7	Viñas, Sergio R.	<i>El Mundo</i>	6

Datu horiek 2012koekin alderatuz gero (3.20.c irudia), ikusiko dugu argi eta garbi handitu dela areago espezializatzeke joera, igoera handi xamarra gertatu baita zenbait kazetarik idatzitako testuen kopuruan. Testu gehiago, kazetari gutxiago idatzitakoak.

3.20.c irudia. Gutxienez 6 txertatze argitaratu zituzten kazetarien kopurua (2012-2013)



2012an, 5 kazetarik baino ez zituzten 6 albiste baino gehiago kaleratu; alabaina, 34 izan ziren 2013an. Gainera, erredaktore bakar batek ere ez zituen 10 txertatze kaleratu 2012an; hala eta guztiz ere, 9 kazetarik gaintitu zuten kopuru hori 2013an.

Pertsona espezializatuak

aditu asko testu gutxi

Iritzia zutabeen edo artikuluen bitartez lantzen duten pertsona adituen parte-hartzea ez da bereziki handia (% 6,7), eta agentzien gainean puntu bateko kotari eusten dio (% 5,5). Salbuespenak salbuespen, parte-hartzea, gainera, oso puntuala eta egonkortasunik gabea da.

121 txertatze egin dira, 58 espezialisten eskutik, guztira. Hartara, batez bestekoa 2 testukoa da. ENBAko (Euskal Nekazarien Batasuna) koordinatzaile Xabier Iraola da horrelako testuen ekoizpenean gehien parte hartu duen espezialista. *Noticias de Gipuzkoan* egin zuen eskuarki, baina egunkari horrek, zenbaitetan, Noticias taldeko beste batzuekin partekatzen ditu testuak (talde horretako kide da). Horrexegatik dira hain altuak espezialista horren parte-hartzearen kotak.


Beste alde batetik, *Berria* egunkariak du espezializazio-ildo egonkorrena. Edortak eta Jabier Agirrek, Cristina Pérezekin batera, gutxi gorabeherako maiztasunarekin argitaratzen dituzte elikadurarekin eta nutrizioarekin lotutako testuak.

3.15 taula. Ekoizpen handiena duten pertsonen zerrenda, komunikabidearen arabera

Espezialistaren izena	Egunkaria	Testu-kopurua
Agirre, Edorta	<i>Berria</i>	7
Agirre, Javier	<i>Berria</i>	5
Iraola, Xabier	<i>Noticias de Gipuzkoa</i>	13
Llona Larrauri, Jesús	<i>El Correo</i>	5
Pérez, Cristina	<i>Berria</i>	6

Datuok 2012koekin erkatuta (3.20.d irudia), ikusi dugu atzerapen esanguratsua gertatu dela espezialistek testuak egitean duten parte-hartzean. Guztira, 820 testu kaleratu ziren 2012an, eta horietatik 112 ziren espezializatuak (% 13,6). Alabaina, ehunekoa erdira baino gutxiagora murriztu zen 2013an: 1.803 testu kaleratu ziren guztira, baina 121 besterik ez dira artikulua edo zutabeak. Hortaz, ehunekoa % 6,7koa da.

3.20.d irudia. Egile espezializatuak idatzitako testuak (2012-2013)



Datu esanguratsu bat ere aipatu behar da (eta, bide batez, elikaduraren eta nutrizioaren inguruko gaien tratamenduko euskal hedabideetako aitzindarietako bat omenduz): agerian geratu da behera egin duela *El Correo*ko testu espezializatuaren kopurua. Zehazki, **Jesús Llona Larraurik** 13 testu kaleratu zituen 2012an, eta 2013an 5 besterik ez. Izan ere, 2013ko abuztuaren 4an zendu zen, eta elikagai-gaien dibulgazioaren arloan egile oso adierazgarria eta erreferenteetako bat izan zen urte luzez.

informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

Informazio-agentziak

Efe agentzia Europa Press

Agentziek elikagaien buruzko testuen ekoizpenean duten parte-hartzea ez da oso handia (% 5,5), baina behar bestekoa da, atal zehatz batean horren berri emateko. **Efe eta Europa Press agentziek egiten dituzte elikagaien inguruko testu gehien, batez ere lehenak.**


Guztira, 7 agentziak eginiko 98 elikagai-testu argitaratu ziren 2013an, baina horietako 58 EFErenak eta Europa Pressenak dira. Parte hartu zuten gainerako agentziek ez zuten txertatze bat baino gehiago izan. "Agentziak" izeneko atalean bildu dira hainbat informazio-agentziaren bidez lortutako testuekin idatzi ziren testuak. Horrengatik hedabideek ez dituzte horien izenak zehazten. Era berean, "Efe/Europa Press" atalean egunkariak zehaztu dira, agerian uzteko testua bi agentzia horiekin landu dela.

3.16 taula. Agentzien eta argitaratutako testuen zerrenda

Agentziaren izena	Testu-kopurua
Agencias	8
Efe	58
Europa Press	25
Efe/Europa Press	4
Nueva China	1
Vasco Press	1
Xinhua	1

Ikus daitekeen moduan, Efe eta Europa Press agentziek ia testu guztiak egin zituzten, bakarka edo elkarrekin. Halaber, baliteke besteren bat parte hartu izana "Agentziak" atalean, baina ia erabat ziurra da bi horiek parte hartu izana. Gainerakoek, hots, Nueva Chinak, Vasco Pressekek eta Xinhua ez dute interes estatistikorik eragin.

3.20.e irudia. Agentziek helarazitako testuak (2012-2013)



Datu horiek 2012koekin konparatzen badira (3.20.e irudia), ikusiko da agentzien parte-hartzeak ez duela aldaketa handirik izan, proportzioan. 2012an, agentzien 40 testu argitaratu ziren guztira, eta testu guztien % 4,9 izan ziren, denera 820 testu kaleratu zituztelako. Bestalde, agentzien testuak guztien % 5,5 izan ziren 2013an, 98 testu plazaratu baitzituzten. **Datu garrantzitsu bakarra da Europa Pressen testuen kopurua nabarmen handitu zela aurreko urtearekin alderatuta; izan ere, 2012an 1 izan zen eta 2013an 25 izan dira.**



Babestutako testuak

Nahiz eta, txertatze-kopuruaren ikuspegitik, atal hau oso esanguratsua ez izan (ehunekoetan, testu guztien % 2,3 da), egokitza jo da oso testu berezi batzuei tratamendu zehatza ematea. Elikagai-enpresek babestutako albisteak izan ohi dira, baina baita elikagaien eta nutrizioaren inguruko argibideak ematen dituzten osasun-zentroek babestutakoak ere, bizimodu osasungarriagoa lortzeko. Enpresek babestutako 32 testu argitaratu ziren: 11 parte-hartzaile izanik, Eroski nabarmendu behar dugu, 20 txertatzerekin. Orobat, atal zehatza prestatu da udalen eta elkarteren batek emandako babesari buruz, eta *Garan* egin dute, zehazki.

3.17 taula. Babestutako testuen zerrenda

Enpresaren izena	Testu-kopurua
Aibak	1
Bilbao Dendak	2
Breen (akuikultura-lanak egiten dituen enpresa bat)	1
Eroski y Eroski Consumer	20
Flora pro-activ	1
IMQ	4
Ipar Kutxa	1
Kaiku	1
Ogiberri	1
Beste babesle batzuk	
Zamudioko Udala (Zamudioko Azoka)	1
ENEK (Nekazaritza eta elikadura ekologikoa)	1

Zuzendariari gutunak

Zuzendariari helarazitako gutunen bidez parte hartzen duten pertsonen ekarpena testuen ekoizpenaren % 0,5 da guztira. Zifra oso txikia du, eta ez du eragin handirik. Eskuarki, zuzendariari gutunak bidaltzen dizkieten pertsonak ez dute zertan espezializiorik izan jorratzen duten gaiaren inguruan. Baina hemen bezalaxe, gerta daiteke pertsona espezialistek euren ikuspuntua adierazi nahi izatea euren borondatez, zuzendariari gutun bat igorritz. 2013an zuzendariari bidalitako 10 gutun argitaratu ziren, 8 pertsonak idatzita, eta horietatik 5ek argi utzi zuten espezializazioa bazutela.

3.18 taula. Gutunak argitaratu zituzten pertsona espezializatuen zerrenda

Izena	Izena	Testu-kopurua
Arteagagoitia, Iratxe	Mugarik Gabeko arduraduna Araban	1
Garitano, Juan Karlos	EAJko bozeramailea Arrasaten	1
Lejardi Ibaizabal, Alberto	Berdeakeko ordezkaria Gipuzkoan	2
Puxeu, Joxe	Edari freskagarrien elkarteko zuzendaria	1
Sainz Arregi, Iñigo	Quiróneko medikua Araban	2

2012ko egoerarekin erkatuta, murriztu egin da zuzendariari helarazitako gutunen ehunekoak: aipatu urtean, argitaratutako testu guztien % 1,2 izan ziren eta 2013an % 0,5.

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.3. Albisteen informazio-iturriak ezagutzea

3.3.2. Albisteen jatorria

Geografia-esparrua


Testuen ehuneko oso-oso handi baten jatorria geografia-esparru autonomikoa da (% 83,2). Horien ostean, estatuko jatorriko testuak gailendu ziren (% 10), eta nazioarteko esparruko jatorria dutenak oso gutxi izan ziren (% 6,8).

% 83,2 Euskadikoak
% 10 Estatukoak
% 6,8 nazioartekoak

Jatorria aztertzeko, hiru geografia-esparru hartu dira kontuan: autonomikoa, estatukoa eta nazioartekoa. Hartara, jakin nahi da ikertutako egunkariak dabiltzan inguruak eragin erabakigarria ote duen albisteak hautatzean.

Guztira 1.803 testu izanik, 1.500 testu (% 83,2) esparru autonomikokoak dira; aitzitik, horietatik 181ek (% 10) soilik dute estatuko jatorria, eta 122 (%6,8) nazioartekoak izan ziren. Albisteak gertatzen diren inguru geografikotik urrundu ahala, argitaratuen ehunekoak behera egiten du.

3.21 irudia. Argitaratutako albisteen geografia-esparrua



2012. urtearekin erkatuta, ia berdina da geografia-esparru autonomikoko albisteen ehunekoa, nahiz eta goranzko joera agertu 2013an; hala, aurreko urtean % 81,5 izanik, aztertutako 12 hileetan % 1,7 egin zuen gora. Horrez gainera, beste bi jatorriak alderantzikatu egin dira: estatu-esparrukoak % 7,7koa baziren ere, % 10era egin zuten gora; nazioarteko esparrukoak, ordea, % 10,8 erdietsi zuten 2012an, eta % 6,8 2013an.

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.3. Albisteen informazio-iturriak ezagutzea

3.3.3. Informazio-iturriak

Argitaratutako testuen egileek ez dute beti aipatzen euren albisteak egiteko erabili dituzten datuen jatorria. Kazetaritza-lanean, egoera ideala da jendeak informazio-iturriak ezagutzea, horrek sinesgarritasun handiagoa ematen baitio eginiko testuari. Alabaina, kazetariak datuen jatorria ezkutatzeko sarri, izan oso albiste laburrak direlako, izan albisteak iturri zehatzik kontsultatu gabe egiten dituztelako.

Testuen % 35
informazio-iturririk
gabekoak
pertsonalak
erakundeak
aldizkari espezializatuak
elikagaien enpresak

631 testutan, hau da, argitaraturiko guztien % 35ean, ez da informazio-iturria aipatzen. Ehuneko handia da, eta egilearen sinadura agertzen ez den albiste laburrei dagokie. **1.172 dira iturria berariaz aipatzen den testuak, eta guztien % 65 dira.**

2012. urtearen aldean, argitaratutako testuak hobetzeko joera txikia ageri da. Izan ere, 2012an iturria aipatu gabeko testu-kopurua % 39,2 zen; hots, 2013koa baino 4,2 puntu gorago zegoen.

Iturriak pertsonak, dokumentuak, artxiboak, aldizkari espezializatuak, datu-bankuak eta abar dira, eta horietara jotzen dute kazetariak euren albisteak sortzeko lehengaien bila. Kazetaritza-ekoizpenean, iturriak osagai erabakigarriak dira eta lortzeko ematen dute profesionalen jardueraren inguruan. Iturri asko eta askotarikoak daude, baina guztiak ez dira garrantzi berekoak.

Iturri onenak beti izango dira informazio pribilegiaturako eta espezializaturako bidea ematen digutenak; hau da, adituak dira lantzen dituzten gaietan. Elikagaien Segurtasunari buruzko testuetan, iturriak honako kategoria hauetan sailkatu dira:

a) Pertsonak:

euren izenean, norbanako gisa edo erakunde batean (publikoa izan zein ez) duten karguaren ordezkari legez jardun dezakete.

b) Erakundeak:

batzuetan, erakundeak zuzenean jartzen dira profesionalarekin harremanetan. Oro har, komunikazio-kabinetek dituzte hedabideekin komunikatzeko. Erakundeak askotarikoak izan daitezke eta ematen dituzten erreferentzien balioa handia da; baina, kasu horietan maiz gertatzen da igorleak anonimotasuna erabiltzea babes legez.

c) Enpresak:

erakundeen antzera funtziona dezakete. Arlo horretan, era berean, gero eta ohikoagoa da komunikazio-kabinetek ahaleginak egitea, hedabideek enpresaren irudirako albiste onuragarriak argitara ditzaten.

d) Argitalpen espezializatuak:

argitalpen espezializatuak, era berean, iturri legez ere erabil daitezke. Normalean, kazetariak oso erabilgarriak izan daitezkeen azterketak eta ikerketak jasotzen dituzte. Testu paregabeak dira, kalitate eta berritasun gorenekoak. Oso interes handikoak dira, nahiz eta euren ahalmen gutzia ustiatzen ez den.

e) Iturri anonimoa:

zenbaitetan, pistarik eman gabe edo erabilitako iturriak aipatu gabe argitaratzen dira albisteak. Albiste laburretan nahiko ohikoa da, eta ohikoena izaten da sinatuta ez egotea eta jatorriaren iturria ere ez aipatzea. Jatorriari buruzko anonimotasun hori, nahiz eta gutxiagotan izan, garrantziko zenbait albisterekin ere gertatu ohi da. Azken kasu horretan, esan daitezke akats profesionala dela; izan ere, irakurlearentzat oso garrantzitsua da datuen edo horiek idatzi dituen kazetariaren jatorria bezalako kontuak ezagutzea.

Iturri pertsonalak dira albisteak egiteko erabilienak (% 69,8). Ondoren daude erakundeak (% 20), argitalpenak (% 5,5) eta, azkenik, elikaduraren sektoreko enpresak (% 4,7).

informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013


2013. urtean, Elikagaien Segurtagunari buruzko 1.780 informazio-iturrietatik, 1.242 albistetan (% 69,8) pertsonak erabili dira iturri gisa. 355 (% 20) erakundeetatik etorri dira, kazetariekin izandako harremanean inolako bozeramailearik bitartekari-lanak egin gabe. 84 (% 4,7) enpresek zabaldu dituzte, eta normalean elika-katearekin loturikoak izan dira. Kazetariak 99 aldiz (% 5,5) jo dute argitalpenetara, izan konpetentziako hedabideetara, izan aldizkari espezializatuetara.

3.19 taulan daude zehaztuta datu horiek. Irudikapen grafikoa 3.22.a irudian ikus daiteke.

3.19 taula. Iturriak kategorien arabera

Pertsonak		Erakundeak		Enpresak		Argitalpenak		Iturriak guztira
Testuak	%	Testuak	%	Testuak	%	Testuak	%	
1.242	69,8	355	20,0	84	4,7	99	5,5	1.780

3.22.a. irudia Informazio-iturriak kategorien arabera



Datu horiek 2012koekin alderatuta, aipatzeko moduko aldaketa gutxi gertatu direla ikusten dugu. Pertsonak iturri diren kasuak % 1,9 ugariatu dira, erakundeak iturri diren kasuak % 1,2 murriztu dira, enpresak iturri diren kasuak % 2,1 murriztu dira eta argitalpenak iturri diren kasuak % 1,4 ugariatu dira. Bi urte horien arteko ehunekoen arteko gorabehera ez da esanguratsua.

a) Pertsonak

- Iturri pertsonalen % 72,4 organismoren baten bozeramaile legez jardun duten norbanakoak izan dira, baina oso iturri anitzak dira, espezializazio eskasekoak. Organismoren baten ordezkari jardun duten 15 iturri pertsonalek bakarrik parte hartu dute 6 albiste edo gehiago idazteko prozesuan.
- Iturri pertsonal horiek administraziokoak dira nagusiki (% 34,9). Ondoren, zientzialariak edo adituak daude (% 25,7), eta horien atzetik gizarteko ordezkariak (% 25). Erika-katea ordezkatzan duten iturriak % 14,3 izan dira.

% 73
bozeramaileak



Administrazioa eta
Elikagaien Segurtagunaren
agentziak

Zientzialariak eta adituak

Gizartea

Nekazaritzako elikagaien sektorea

informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013



Pertsonak euren izenean edo erakunde, elkarte zein enpresaren batean duten karguaren ordezkari legez jardun dezakete. Lehenengo kasuan, parte-hartzea banakakoa da, eta horren irismena, berriz, mugatua da ia beti. Bozeramaile jarduten dutenean, erantzukizuna partikularretik orokorrera doa, garrantzitsuagoa da eta albisteak ere proiektio handiagoa du. Hori dela eta, iturri pertsonalak aztertu direnean, bereizi egin dira euren izenean jarduten dutenak eta erakunderen baten ordezkari legez jarduten dutenak.

Iturri pertsonalek parte hartu duten 1.242 albisteetatik 900 (% 72,4) erakunderen baten ordezkari legez aritu direnei dagozkie, eta 342 (% 27,6), berriz, euren izenean jardun duten pertsonari.

Euren izenean eta organismoen baten ordezkari legez jarduten duten iturri pertsonalen banaketa 2012koaren parekoa da, organismoen arduradunen iturriak erabiltzeko joera zertxobait murriztu bada ere; zehazki, iturri horien ehunekoa 2,5 puntu murriztu da 2013an. 2012an, euren izenean jardun zuten iturriek kasuen % 25,1ean parte hartu dute. Organismoen ordezkariak, aldiz, % 74,9an parte hartu dute.

Euren izenean iturri gisa jardun duten pertsonak

Euren izenean jarduten duten iturrietan parte hartu duten 342 kontakizunetan (% 27,6), kazetariak guztira 286 iturri jorratu dituzte; hau da, batez beste 1,2 iturri bakoitzeko.

Bere izenean jardun duen norbaitek oso gutxitan parte hartu du testu bat baino gehiago egiteko lanetan. Kasu askotan hori gertatzen da **talde berberako hedabideek** (*El Correo* eta *El Diario Vasco*, alde batetik; *Diario Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Deia*, bestalde) **testuak partekatzen dituztelako; beraz, horrela, iturri bakar bat hainbat hedabideren testuetan agertzen da**. Iturri horietatik guztietatik, 35 alditan bakarrik argitaratu du iturri berberak bi testutan. Bestalde, beste 7 kasutan 3tan edo gehiagotan argitaratu du (gehienek 4tan).

3.20 taulan euren izenean jardun duten pertsonak jarri dira, euren parte-hartzea 3 alditan edo gehiagotan gertatu denean.

3.20 taula. Euren izenean iturri gisa jardun duten pertsonen zerrenda

Iturriaren izena	Jarduera	Testu-kopurua
Aduriz, Andoni Luis	Sukaldaria	4
Bruscas, Manuel	Aholkularia	3
de Jorge, David	Sukaldaria	3
Elbusto, Ana	Nutrizionista	5
Llona Larrauri, Jesús	Nutrizionista	4
Pérez, Eneko	Beganoa	4
Ventades, Josu	Arrantza-patroia	4

Aurreko urtearen aldean (ikusi 3.22.b irudia), handitu egin da testuen ekoizpenean euren izenean jardun duten iturrien parte-hartzea. 2012an 7 pertsonak bakarrik parte hartu zuten 2 testutan, eta 2k parte hartu zuten 3tan. Alabaina, 2013an 42 pertsonak parte hartu zuten 2 testuren edo gehiagoren ekoizpenean.

3.22.b. irudia Iturri pertsonalen ordezkari-tza-mota (2012-2013)



informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

Betetzen duten karguaren ordezkari izanik, iturri gisa jarduten duten pertsonak

Karguren baten ordezkari legez jarduten duten iturri pertsonalak aztertzeke eta katalogatzeko, lau multzo ezarri dira:

Administrazioen ordezkariak eta Elikagaien Segurtasunaren agentzien eta Osasun Publikoaren arloko arduradunak: zehatzago, kolektibo horretan sartu dira Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko ordezkariak, Osasun Saileko ordezkariak, foru-aldundiak, ministerio-, udal- eta autonomia-gobernuetako ordezkariak, administrazioko beste buruzagi batzuk (esate baterako, zuzendari eta idazkari nagusiak), parlamentariak, Europar Batasuneko agintariak, agentzia publikoetako zuzendariak, ELIKA eta abar.

Zientzialariak eta Elikagaien Segurtasunaren arloko adituak: ikerketa-zentro, ospitale eta osasun-zentroetako kideak, medikuak, unibertsitateak, ikastetxeak, sektoreko profesionalen elkarteetako arduradunak eta abar.

Elika-katea osatzen duten kideak: lehenengo sektorea, elikagaien industria, farmazia-laborategiak eta elikagaien eta osasunaren arloak zein beste arlo batzuk ordezkatzan dituzten banatzaileak, komertzialak, elkarteak eta pertsonak.


Gizarte zibila ordezkatzan dutenak: kontsumitzaileen elkarteak ordezkatzan dituzten pertsonak, GKEak, sindikatuak eta abar.

Erakunderen baten ordezkari legez jarduten duten iturri pertsonaletatik datozen 900 albisteetatik 314 (% 34,9) administrazioaren eta Elikagaien Segurtasunaren Agentzienak dira, 232 (% 25,7) zientzialari eta adituenak, 129 (% 14,3) elika-katea osatzen duten pertsonenak, eta 225 (% 25) gizarteko ordezkarienak. 3.21 taulan antolatu dira erreferentzia horiek; 3.23 irudian, berriz, irudikapen grafikoa eman da.

3.21 taula. Karguren baten ordezkari izanik, iturri gisa jarduten duten pertsonak

Administrazioa eta Elikagaien Segurtasunaren Agentziak		Zientzialariak eta adituak		Elika-katea		Gizartearen ordezkariak	
Textos	%	Textos	%	Textos	%	Textos	%
314	% 34,9	232	% 25,7	129	% 14,3	225	% 25

3.23 irudia. Organismoren bat ordezkatzan duten iturri pertsonalak



Karguren baten ordezkari legez jarduten duten iturri pertsonalen parte-hartzea izan duten 900 kontakizunak idazteko, 550 pertsonak hartu dute parte (batez beste 1,6). Horrek agerian uzten du, berriz ere, **erabilitako iturri-kopuru altua eta gutxieneko espezializazioa dutela.**

15 iturri pertsonalek baino ez dute parte hartu 6 albiste edo gehiago idazten, hau da, guztira egindako 167 albisteetatik, 11 testuko batez bestekoa iturri bakoitzeko. **Kota altuenak Miguel Arias Cañetek (32 testu) eta Bittor Orozek (20 parte-hartze) dituzte. Ondoren, Leandro Azkue dago (14 parte-hartze). Azken bi horiek Eusko Jaurlaritzako karguak dira.**

3.22 taulan agertzen da betetako karguaren ordezkari legez 6 testutan edo gehiagotan parte hartu duten iturri pertsonalen zerrenda.

informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013


3.22 taula. Euren karguaren ordezkari izanik, iturri gisa jardun duten pertsonen zerrenda.

Iturriaren izena	Zein kargu duen	Testu-kopurua
Aranceta, Javier	Nutrizioaren Espainiako Elkartearen presidentea	6
Arias Cañete, Miguel	Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen ministroa	32
Azkue, Leandro	Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura zuzendaria	14
Bilbao, Izaskun	EAJko eurodiputatua	7
Borg, Tonio	Osasunaren eta Kontsumoaren Europako komisarioa	10
Conveney, Simon	Irlandako Nekazaritza ministroa	6
Damanaki, María	Bruselako Arrantza komisarioa	8
Garmendia, Miren	Bizkaiko Kofradien Federazioko idazkaria	11
Gómez, Mariano	Bilboko Udaleko zinegotzia	9
Iraola, Xabier	ENBAko idazkari nagusia	6
Markaide, Agustín	Eroskiko zuzendaritza-taldeko kidea	6
Oroz, Bittor	Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailburuordea	20
Pardo, Irene	Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza diputatua	12
Tapia, Arantza	Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburua	11
Zabaleta, Iñaki	Bizkaiko Kofradien Elkarteko presidentea	9
Guztira		167

Datu horiek 2012koekin erkatzen badira, joera argia ikusten da: parte-hartzean, kontzentrazio handiagoa dago organismoren bat ordezkatzeko duten informazio-iturrien inguruan. 2012an 3 iturrik bakarrik parte hartu zuten 6 testutan edo gehiagotan, eta parte-hartze handiena Osasun sailburu Rafael Bengoarena izan zen (9 aldiz). 2013an 9 izan dira 9 testutan edo gehiagotan parte hartu duten informazio-iturriak, eta protagonista bakar baten gehienezko kota 32koa da.

Orain sexuaren arabera iturri pertsonalei erreparatzen badiegu, euren izenean zein karguren baten ordezkari legez jarduten badute ere, egiaztatu da halako iturriek parte hartzen duten 1.242 kasuetatik 880 (% 70,8) gizonak direla eta 362 (% 29,2) emakumeak. 2012aren aldean, beherako joera arina (% 2,6) ageri da emakumeek informazio-iturri gisa duten parte-hartzean.

3.24 irudia. Iturri pertsonalen banaketa, sexuaren arabera



informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

b) Erakundeak

administrazioa

gobernuz kanpoko erakundeak

nazioarteko organismoak

ikerketa-zentroak

- **Informazio-iturri instituzional arruntenak honako hauek dira, hurrenez hurren: administrazioarenak (% 34,6), gobernuz kanpoko erakundeenak (sindikatuak, alderdiak, etab.) (% 24,2) eta, azkenik, FAO, OME edo KME bezalako nazioarteko organismoenak (% 9,3).**
- Kota txikiena ospitaleek eta osasun-zentroek (% 1,4) eta ELIKAK (% 1,7) osatzen dute.

2013an erabilitako 1.780 iturrietatik, 355 txertatzetan **erakunde batek parte hartu du, inolako bozeramailerik bitartekari-lanak egin gabe (iturri guztien % 20).**

Hedabidea, bai iturriarekin egindako hitzarmen baten ondorioz, bai kazetariak ez duelako egokitzen jotzen berariaz aipatzea, bai ez dakielako zein den, erakunde bat aipatzen du, testuak egiteko erabilitako apunteen jatorria aitortze aldera.

3.23 taulan jaso dira erreferentziak. Grafikoa 3.25.a irudian ikus daiteke.


3.23 taula. Iturri gisa zuzenean jarduten duten erakundeak

Iturriaren izena	Testu-kopurua	%
Administrazioak	123	34,6
Elika	6	1,7
Elikagaien eta Osasunaren Segurtasun Agentziak	17	4,8
Nazioarteko erakundeak (FAO, OME, KME eta abar).	33	9,3
Ikerketa-zentroak.	28	7,9
Unibertsitateak eta ikastetxeak	13	3,7
Profesionalen elkarteak	30	8,4
Kontsumitzaileen elkarteak	14	3,9
Ospitaleak eta osasun-zentroak	5	1,4
Beste batzuk (GKEak, sindikatuak, alderdiak eta abar).	86	24,2
Guztira	355	



informe sobre la seguridad alimentaria en la prensa del País Vasco en 2013

3.25.a. irudia Bozeramailerik gabe jarduten duten erakundeen iturriak



2012aren aldean (ikusi 3.25.b irudia), administrazioa, GKEak eta gizarte-erakundeak dira oraindik ere, hurrenez hurren, gehien erabiltzen diren erakunde-iturriak. Gainera, proportzioak antzekoak dira. 2013an, Elikagaien Segurtasunaren eta Osasunaren agentziak, eta kontsumitzaileen erakundeak aurreko urteko antzeko kotetan mantentzen dira. Bestalde, ikerketa-zentroak dira landutako testuetan presentzia areagotzen duten bakarrak. ELIKAREN, nazioarteko organismoen, unibertsitate eta ikastetxeen, eta ospitale eta osasun-zentroen presentzia murriztu egin da, aurreko urteko datuen aldean.

3.25.b. irudia Bozeramailerik gabe jarduten duten erakundeen iturriak (2012-2013)



informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

c) Enpresak

Enpresek zeregin bikoitza dute informazioen ekoizpenean, hala testuen babesle gisa (publirreportajeak) nola informazio-iturri gisa. Azken kasu horretan, kazetariak enpresa bat aipatzen du iturri gisa, arduradunen edo bozeramailearen izena aipatu gabe. **Ez dute leku garrantzitsurik testuen ekoizpenean, eta 84 aldiz agertzen dira** (guztira erabilitako iturrien % 4,7).

% 4,7
Elikaduraren sektoreko enpresak
(garrantzi gutxikoa)


Informazio-iturri gisa merkataritza- edo industria-enpresak aipatzen dituzten 84 testuetatik, guztira 31 konpainia agertzen dira; hots, batez besteko presentzia 2,7koa da. Enpresek 59 testutan parte hartu dute, eta enpresa gehienak elikaduraren esparrukoak dira, 3 txertatzerekin edo gehiagorekin. **Parte-hartzearen kota handiena Eroskirena izan da: 26 aldiz agertzen da**; alabaina, hurrengo presentziak ez du 5 txertatzeen muga gainditzen. 3.24 taulan agertzen dira elikadurari buruzko 3 testutan edo gehiagotan parte hartzen duten 9 markak.

3.24. taula. Bozeramaileak gabe iturri gisa jarduten duen enpresak

Enpresaren izena	Testu-kopurua
Campofrío	3
Carrefour	5
Eroski	26
Espanghero (haragi-enpresa)	3
Ikea	5
Mercadona	5
Ner Group	3
Nestle	4
Uvesco	5

Ehunekoetara dagokienez, **informazio-iturri legez jardun duten enpresen presentzia (3.25.c irudia) murriztu egin da 2013an, aurreko urtearen aldean**; zehazki, % 6,2tik % 4,7ra murriztu da. Alabaina, 2013an dibertsifikatzeko joera ageri da. 2012an 4 enpresak bakarrik parte hartu zuten 3 testutan edo gehiagotan; bada, 2013an 9 izan dira.

3.25.c. irudia Iturri legez enpresak eta argitalpen espezializatuak erabiltzea (2012-2013)



informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

d) Argitalpen espezializatuak

erabilera eskasa
% 5,5
aldizkari espezializatuak

Elikaduran espezializatutako zientzia-aldizkari eta -argitalpenak potentzial handiko iturriak diren arren, euren erabilera erlatiboki baxua da. 2013an 97 testutan erabili ziren argitalpenak iturri gisa; hots, % 5,5.

Aldizkari espezializatuak (elikadurari eta nutrizioari buruzkoak zein zientzia-aldizkariak) zuzenean edo zeharka jarduten dute elikagaiei buruzko gaiak egiteko prozesuan. Potentzial handia duten arren, 2013an, aztertutako egunkariak 1.773 alditatik 93 alditan besterik ez dute jo beste hedabide batzuetara, informazioaren bida. Bestalde, iturri legez parte hartu duten 62 argitalpenetatik, 47 (% 75,8) behin bakarrik erabili dira, eta 15 (% 24,2) birritan edo gehiagotan erabili dira. 3.25 taulan ageri dira 2013an aztertutako egunkarietan gehien aipatu diren 15 hedabideak.

3.25. taula. Iturri legez erabilitako argitalpenen zerrenda

Aldizkariaren izena	Testu-kopurua
American Journal of Clinical Nutrition	2
Antena 3	3
China Daily	2
Circulation: Journal of the American Heart Association	2
Emergency Medicine Journal	2
Eroski Consumer (aldizkaria)	16
Estudio Save Food	2
International Journal of Obesity	2
Nature	4
New England Journal of Medicine	2
Revista europea de nutrición clínica	2
RNE	2
Shangai Daily	4
Sud-Oueste	2
The Guardian	3

2012an, iturri legez erabili ziren **argitalpenen ehunekoa** % 3,8koa izan zen. **2013an, aldiz, kotak 1,7 puntu egin du gora.** Gainera, 2012an, erabilitako 17 argitalpenetatik, bik besterik (% 10,5) ez dute parte hartzen 2tan edo gehiagotan informazio-iturri legez. Zenbatekoa 15era (% 24,2) igo da 2013an.

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.4. Elikagaien arriskuen pertzepzioa eta tratamendua

3.4.1. Análisis de las noticias por meses y diarios

“~~arrisku~~”
hitza

albisteen % 10ek
aipatzen dute
elkagaien arriskua

195 albistek (guztien % 10,8) darabilte “arrisku” hitza elikagaiez berriaz aritzeko. Proporzioa txikia bada ere, esanguratsua da, eta arrazoia da 2013an ez direla elikagaien arriskuen inguruko gorabehera asko gertatu.

Gainera, aintzat hartu behar da elikagai-alertak gerta daitezkeela hedabideek arriskuko egoera gisa identifikatu gabe.

Azterlaneko atal berezi batean jaso dira “arrisku” hitza berriaz aipatzen duten albisteak. Kasu horietan, mezuek elikagaiei lotutako arriskuen berri ematen diote gizarteari; beraz, ez dira aintzat hartu “arrisku” hitza agertzen duten testuak, hitz hori azterlan honen aztergaiarekin zuzenean lotuta ez dagoenean.

“Arriskuaren pertzepzioa”-z hitz egiten denean, argitu behar da hedabideek gai jakin batzuei emaniko tratamenduz bakarrik hitz egiten dela, eta ez irakurleen balizko hautemateaz; izan ere, alderdi hori neurtzeko, beste azterlan-mota batzuk egin behar dira.

Adierazi den bezala, prentsak arriskuaz duen pertzepzioa aztertzeko, hitz hori zehazki azaltzen duten idatziak jaso dira. Halaber, **begiratu egin da ea irakurleentzako aholkuak ematen diren edo ez, kontrol- eta/edo prebentzio-neurriak azaltzen diren, eta alerta bat edo elikagai-krisi bat den. Orobat, egokitzat jo da azertzea kazetariaren ikuspegia positiboa, negatiboa edo neutroa den.**

2013an zehar, 195 testutan hitz egiten da arriskuaz beren-beregi. Apirilak, otsailak eta martxoak (35, 29 eta 29 txertatzerekin, hurrenez hurren) betetzen dituzte lehenengo lekuak kontakizunaren kopuruan. Aitzitik, irailak (9), abuztuak (7) eta ekainak (5) ezarri dituzte urteko maila txikiak.

3.26. taulan ematen da hilez hileko zerrenda, egunkariaren arabera.

3.26 taula. Arriskuari buruzko albisteak, hilez hil eta egunkariaren arabera

	El Correo	El Diario Vasco	Not. Álava	Not. Gipuzkoa	Deia	Gara	Berria	El País	El Mundo	Guztira
Urtarrila	3	2	2	2	3	2	-	1	1	16
Otsaila	5	6	2	2	7	2	4	-	1	29
Martxoa	1	4	6	4	8	1	4	-	1	29
Apirila	10	4	3	6	6	2	3	1	-	35
Maiatza	1	4	2	2	2	1	-	-	1	13
Ekaina	1	1	-	-	1	2	-	-	-	5
Uztaila	5	1	-	-	1	1	-	1	2	11
Abuztua	1	1	-	2	-	-	3	-	-	7
Iraila	1	3	1	-	-	1	-	1	2	9
Urria	2	6	-	2	-	1	1	-	-	12
Azaroa	3	2	-	-	2	-	1	2	2	12
Abendua	2	1	1	3	7	-	1	-	2	17
Guztira	35	35	17	23	37	13	17	6	12	195

informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

Albisteen ehunekoa txikia izan da, 2013an ez delako egon, salbuespenen bat salbuespen, elikagaien arrisku garrantzitsurik. Gainera, halakoren bat egon denean, ez du osasun-arazo larrik sortu euskal gizartearen. Gainera, bitxia bada ere, sortutako elikagai-alertaren batean, hedabideek ez dute berariaz aipatu "arrisku" hitza.

Albisteen datu txikia normala da, aintzat hartzen bada argitaratutako 195 testuetatik 14tan bakarrik aipatzen dela "arrisku" hitza izenburuan. Gainerako kasuetan, informazioaren gorputzean ageri da. *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria izan da "arrisku" hitza izenburuan gehien jaso duen argitalpena (5 aldiz). Ondoren, *Deia* (4 aldiz), *Gara* (2 aldiz) eta *El Correo*, *El Diario Vasco* eta *Berria* (1 aldiz) daude.

3.27 taula. Izenburuan "arrisku" hitza berariaz jasotzen duten albistek

Fecha	Diario	Título
01/27	<i>Gara</i>	La nueva cocina del hospital comete errores que ponen en riesgo la salud
02/15	<i>Not. Gipuzkoa</i>	La UE estudiará el riesgo sanitario de la carne de caballo
02/15	<i>Gara</i>	El fraude de la carne de caballo apunta ahora al riesgo sanitario
04/14	<i>Not. Gipuzkoa</i>	El jueves se impartirá un curso de manipulador de alimentos de mayor riesgo
04/15	<i>El Correo</i>	"Con prevención es posible disminuir el riesgo de degeneración macular asociada a la edad"
04/16	<i>Not. Gipuzkoa</i>	Orio acogerá un curso de carné de manipulador de alimentos de alto riesgo
05/03	<i>Deia</i>	El ácido fólico en el embarazo reduce un 40% el riesgo de padecer autismo
05/03	<i>Not. Gipuzkoa</i>	El ácido fólico en el embarazo reduce un 40% el riesgo de autismo
05/03	<i>El Diario Vasco</i>	La ingesta de ácido fólico en el embarazo reduce un 40% el riesgo de autismo
05/08	<i>Not. Gipuzkoa</i>	La mitad de los alérgicos vascos cree un riesgo comer fuera de casa
07/22	<i>Deia</i>	Mayor riesgo de legionelosis por los sistemas de nebulización
10/29	<i>Berria</i>	Arrisku kardiobaskularra
11/19	<i>Deia</i>	Los arrantzales alertan de la situación de riesgo de la pesca
12/22	<i>Deia</i>	"Hacemos nuestro trabajo de forma cercana, salvo cuando hay un riesgo claro"

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.4. Elikagaien arriskuen pertzepzioa eta tratamendua

3.4.2. Elikagaien arriskuari buruzko gairik ohikoena

1. tokia

Osasuna, Nutrizioa eta Alergiak

2. tokia

Elikagaien Segurtasuna

3. tokia

Elikagaien arriskua


“Arriskua” hitza jasotzen duten albisteetan, hiru gai-multzo nabarmentzen dira. **Lehenengo eta behin (kasuen % 47,2), “Osasuna, nutrizioa eta alergiak” gaiei buruzko testuak daude. Bigarrenik (% 18,9), “Elikagaien Segurtasuna”-ren inguruko albisteak daude, eta ondoren daude elikagaien arrisku jakin baten inguruko ohartarazpenak (% 15,4).**

Azterlan honetako testuak banatzeko erabili diren zazpi gaietatik, hiru argi eta garbi nabarmentzen dira gainerakoen artean, “arriskua” hitza lotuta duten albisteetan. Hautatutako itemetatik ia erdiak (% 47,2) “Osasuna, nutrizioa eta alergiak” esparrukoak dira. Bestalde, “Elikagaien Segurtasuna” (% 18,9) eta “Elikagaien arriskua” (% 15,4) dira “arriskua” hitza gehien agertzen duten beste bi edukiak. 3.28 taulan zehatz eta xehaturik ageri dira datu horiek, eta horri dagokion irudikapen grafikoa 3.26.a irudian ageri da.

3.28. taula. Arriskuari buruzko albisteetako gairik ohikoena

Gaia	Testu-kopurua	%
Elikagaiak/Elikadura	8	% 4,1
Nekazaritza/Abeltzaintza/Arrantza	14	% 7,2
Elikagaien industria	10	% 5,1
Elika	4	% 2,1
Elikagaien arriskua	30	% 15,4
Osasuna/Nutrizioa/Alergiak	92	% 47,2
Elikagaien Segurtasuna	37	% 18,9
Guztira	195	% 100

3.26.a irudia Arriskuei buruzko albisteen gaiak






informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

Datu horiek 2012ko datuekin erkatzen badira, ikusten da lehenengo eta behin nabarmen ugartu direla euren izenburuan “arriskua” hitza beren-beregi jasotzen duten albisteak: 2012an % 5,7 izan ziren eta 2013an % 10,8 izan dira.

Gaien azterketa zehatzari eta hori 2012ko datuekin konparatzeari dagokionez (ikus 3.26.b irudia), “Osasuna/Nutrizioa/Alergiak” da oraindik esparru errepikatuena; baina, 2013ko ehunekoa aurreko urtekoaren (% 53,2) azpitik dago. “Elikagaien arriskua”-ri buruzko albisteen kotak altu eta nahiko pareko mantentzen dira: % 12,8 izan zen 2012an eta zertxobait (% 15,4ra) igo da 2013an. “Elikagaien Segurtasuna”-ri buruzko albisteen ehunekoa asko handitu da 2012aren aldean; zehazki, % 18,9raino. Areagotze horiek “Elikagaien industria” (% 3) eta “Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza” (% 3) gaietan ere gertatu dira. Elikak % 2,1eko ehunekoari eusten dio, aurreko urtearen aldean. Bestalde, bigarren ehuneko-beherakada, gaiari gagozkiela, elikagaiari eta elikadurari buruzko albisteak dira (% 8,7 egin dute atzera). Gogoratzekoa da 2012an atal horretan zenbatu zirela “Eskuragarritasun”-ri buruzko gaiak. Horien ehunekoak “Beste batzuk” atalean jaso dira 3.26.b irudian.

3.26.b irudia Arriskuari buruzko albisteen ehunekoa (2012-2013)



3. KAPITULUA EMAITZAK

3.4. Elikagaien arriskuen pertzepzioa eta tratamendua

3.4.3. Elikagaien arriskuen tratamendua

ez alertatzea
prebenitzea
eta gomendatzea

Elikagaien Segurtasunari buruzko testuen ia erdiak ematen dizkie gomendioak irakurleei.

% 36,9k, gainera, prebentzio-neurriak azaltzen dituzte, eta kasuen % 25,8tan alertak edo elikagai-krisiak dira.


Argitaratutako 195 testuetatik, 94k (% 48,2) irakurleentzako aholkuak ematen dituzte albisteetan. 72 aldiz (% 36,9), gainera, prebentzio-neurriak argitaratu zituzten, elikagaien arriskuak murrizteko. Bestalde, 50 aldiz (% 25,6) alertak edo elikagai-krisiak dira. 3.29 taulan jaso da datu horien azalpena.

3.29 taula. Izenburuan "arrisku" hitza berariaz jasotzen duten albisteak

	Bai		Ez	
	Testu- kopurua	%	Testu- kopurua	%
Aholkuak	94	48,2%	101	51,8%
Prebentzioa	72	36,9%	123	63,1%
Alerta edo krisia	50	25,6%	145	74,4%

2013an, elikagai-krisiaz jarduten duten edo herritarrei ohartarazpenak egiten dizkieten testuen ehunekoa aurreko urteko berbera da; izan ere, % 0,1 besterik ez dira ugarritu. Beste horrenbeste esan daiteke irakurleentzako aholkuak jasotzen dituzten arriskuari buruzko testuez: % 0,7 murriztu dira 2012aren aldean. **Aldaketa nabarmenena kontrol- eta prebentzio-neurriak jasotzen dituzten testuetan dago: 2012an % 46,8 ziren eta 2013an % 36,9; hots, beherakada % 9,9koa izan da (ikusi 3.26.c irudia).**

3.26.c irudia Aholkuak, prebentzio-neurriak edo alertak, edo elikagai-krisiak agertzea (2012-2013)





informe sobre la seguridad alimentaria


en la prensa del País Vasco en 2013

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.4. Elikagaien arriskuen pertzepzioa eta tratamendua


3.4.4. Elikagaien arriskuei buruzko albisteen ikuspegia

3.27.a irudia Ikuspegi-mota: positiboa, negatiboa edo neutroa



Datu horiek 2012koekin erkatuta (ikusi 3.27.b irudia), ikuspegi neutroa da nagusi, baina ikuspegi horren ehunekoa 23,2 puntu jaitsi da, aurreko urtearen aldean. Ikuspegi positiboa antzeko kotan mantentzen da; izan ere, 2012aren aldean % 0,3 besterik ez da areagotu. **Beste datu esanguratsu bat elikagaien arriskuei buruzko albisteetako ikuspegi negatiboen agerrera ematen du. 2012an ez zen bat ere egon, eta 2013an % 23ra heldu dira.**

3.27.b irudia Ikuspegi-mota: positiboa, negatiboa edo neutroa (2012-2013)



3. KAPITULUA EMAITZAK

3.4. Elikagai arriskuen pertzepzioa eta tratamendua

3.4.5. Elikagaien arriskuei buruzko albisten gaurkotasuna

arriskuei buruzko 195 albiste

% 41,5 azken aldikoak

% 33,4 gaurkotasun iraunkorrekoak


% 25,1 gaurkotasun luzatukoak

Gaurkotasunaren ikuspegitik, arriskuari buruzko albisten % 41,5 (81 txertatze) azken aldikoak dira, % 33,4 (65 albiste) gaurkotasun iraunkorrekoak dira, eta % 25,1 (49 item) gaurkotasun luzatukoak dira. Beraz, ondoriozta dezakegu **kasuen % 25ean bakarrik ditugula aurrean ondoz ondoko zenbait egunetan edo aldizka editatzen diren testuak, nahiz eta gaien presentziak denboran iraun.**

Bestalde, "arrisku" hitza berariaz aipatzen duten testuak aztertu dira, hiru gaurkotasun-motak (azken aldikoa, luzatua eta iraunkorra) aintzat hartuta.

Horrela, datuak lor daitezke, ikuste aldera arriskuari buruzko testuak egun bakar batean sortu eta desagertutako gai puntualak diren edo denboran irauten duten elikagaien arriskuak diren (txertatzeak ondoz ondoko egunetan agertuz). Halaber, aukera dugu zehazteko parametro generikoen (hain generikoak ezen beti baitute egunerokotasuna; beraz, gaur zein beste egun batean argitara daitezke, denbora igarotzeak ez baititu kontsumitzen) aurrean gauden.

3.28 irudia. Gaurkotasun-mota



2012ko datuen aldean, ezberdintasun nabarmenena gaurkotasun luzatuko gaiak areagotu direla da (% 2,1 izan ziren 2012an), azken aldikoen kaltetan (% 59,5 izan ziren 2012an). Aldaketa horien azalpena izan daiteke 2013ko albiste batzuen indarraldiak zenbait aste eta hilabete ere iraun zuela; esate baterako, zenbait haragi-produktutan zaldi-haragiaren DNA agertzearen ondoriozko polemikarenak. "Zaldi-haragiaren iruzurra" delakoa hedabideetan agertzen zen jada 2013ko urtarrilean, eta informazioak indarrean jarraitu zuen hurrengo hilabeteetan. Aurreko urtearekin alderatuta, aldaketa ez da hain nabarmena, gaurkotasun iraunkorrari dagokionez (% 38,3 izan zen 2012an).



informe sobre la seguridad alimentaria

en la prensa del País Vasco en 2013

3. KAPITULUA EMAITZAK

3.4. Elikagaien arriskuen pertzepzioa eta tratamendua

3.4.6. Elikagaien arriskuei buruzko albisteen kazetaritza-generoak


arriskuei buruzko
195 albiste

% 93,9
informazio- eta interpretazio-
albisteak

Arriskuari buruzko albistetan erabilitako kazetaritza-generoen ikuspegitik, informazio-testuak % 47,6 dira, interpretazioa ematen dutenak % 46,3 eta iritzi-testuak % 6,1.

Interpretatzeko generoaren barruan, elikagaien arriskuari buruz argitaratutako 51 erreportajeak guztien % 26,5 dira. Bigarrenak elkarrizketak dira, 29 izan baitziren eta interpretatzeko testuen % 14,8 dira. Kronikena da maila txikiena, ehunekoak % 5,1eko da eta.

3.29 irudia. Arriskuei buruzko albisteen genero-motak





txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

4. KAPITULUA ELIKAGAIEN SEGURTASUNEKO 2013ko GAI GARRANTZITSUENEN ANALISIA

- Txertatzeen kopuruari dagokionez, prentsak 2013an gehien nabarmendutako gaien artean, urteko lehenengo herenean, zaldi-haragiaren iruzurrak Elikagaien Segurtasunarekin, elikagaien arriskuarekin eta elikagaien industriarekin lotutako informazioen presentzia handiagoa izatea ekarri zuen.
- Urteko gainerako sasoietan, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektoreari lotutako edukiak, eta osasunari eta nutrizioari lotutakoak, nagusi dira.
- Gai batzuk askotan agertzen ez diren arren, nabarmenak dira, audientzietan zuzeneko inplikazioak dituztelako. Arriskuak eta elikagaien segurtasunak eragindako egoeren ondorioak dira.

1. tokia:
Osasuna, Nutrizioa
eta Alergiak

2. tokia:
Elikagaien
Segurtasuna

3. tokia:
Elikagaien
arriskua

Aztertutako hil bakoitzeko bi gai garrantzitsuenak hautatzeko, kazetaritza-irizpide zurrunak erabili dira. Mauro Wolf bezalako egileek **“albiste-balioa”** kontzeptua azaltzen dute: **laburbilduz, gertakizun batek informazio-eduki bihurtzeko hautatua izateko izan beharreko ezaugarria da.**



4. KAPITULUA ELIKAGAIEN SEGURTASUNeko 2013ko GAI GARRANTZITSUENEN ANALISIA

4.1. "Albiste-balioa"-ren faktoreak

Azterlan honetan gogoan izan diren sei albistegarritasun-faktore nagusiak honako hauek izan dira:

a) Gaia jasotzen duten hedabideen kopurua:

gai bakar bat zenbait hedabidetan agertzen bada, albistegarritasun-plusa duela uste da. Pentsa liteke albisteak zenbait argitalpenetan behar besteko oihartzuna izan duela.

b) Gaien kokapena:

hedabideek hierarkia bisuala ezartzen dute, irakurleei helarazteko gertaerei ematen dieten garrantzia. Hasiera batean, azalean kokatutako albiste guztiak bereziki garrantzitsutzat jotzen dira. Atal batean, albiste nagusiak hasieran kokatzen dira. Orrialde bakoitzean, goialdean kokatutako itemak dira garrantzitsuenak hedabide horretan. Hori dela eta, edukiek maketan duten kokapena beste faktore bat da, aintzat hartu behar dena edukiei ematen zaien informazio-garrantzia neurtzean.

c) Gaurkotasun luzatua:

gaien iraupena zenbait egunekoa denean, uste da gai horiek garrantzitsuagoak direla, egun bakar batean jasotzen direnak baino.

d) Interes orokorra:

gai jakin batzuek ondorio zuzenak dituzte pertsona askorengan; esate baterako, elikagai bat osasunerako kaltegarria izan daitekeela ebazteak. Halakoetan, esan daiteke "interes orokor"-eko albisteak direla. Interes orokorrari kontrajarriz, beste albiste batzuk Núñez Ladéveze bezalako egileek "irakurleen interesekoak" izendatzen dituztenak dira. Funtsean, entrenimendua bilatzen duten gaiak dira, batzuetan morbo apur bat ere badutenak.

e) Hurbiltasuna:

Euskadin gertatutako intoxikazio batek beti izango du oihartzun handiagoa euskal prentsan, Australian gertatutako intoxikazio berdinak baino. Irakurleek interes handiagoa azaldu ohi dute euren inguruan gertatutako albisteeetan, eta hori Elikagaien Segurtasunaren esparruari ere ezar dakiok. Hurbiltasuna ez da beti geografikoa: hurbiltasun afektiboa edo tematikoa ere egon daitezke.

f) Aktoreen garrantzia:

informazio jakin baten protagonisten garrantzia edo ospea (pertsonena, erakundeena edo enpresena izan) da informazioaren albistegarritasuna azal dezakeen beste faktoreetako bat.



4. KAPITULUA ELIKAGAIEN SEGURTASUNeko 2013ko GAI GARRANTZITSUENEN ANALISIA

4.2. Testuen banaketa, Elikagaien Segurtasuneko gaien arabera

4.1 taulan eta 4.1 irudian ikusten denarekin bat etorritik, azterlan honetan ikertutako gai guztiak (guztira, 7tik 5) egon dira hedabideek 2013ko zenbait hiletan gehien nabarmendutako albisteen artean.

Lehenengo eta behin, nabarmendu egin behar da bariazio argia dagoela lehenengo lau hiletako gai garrantzitsuenen eta urteko gainerako sasoikoen artean. "Zaldi-haragiaren krisia" delakoa indarrean egon zen, informazioari dagokionez, urtariletik apirilera bitartean. Banaketa-kate bateko hanburgesetan animalia-espezie horren trazak atzementarekin hasi zenak EBko behi-haragiaren DNA aztertzea ekarri zuen. Artean, zaldiekin lotutako iruzur berriak atzeman ziren beste multinazional batzuetan. Horrek guztiak ekarri zuen, Nafarroako ospitaleetako elikagaietan gorozkien hondakinak izan zitezkeenak aurkitu ondorengo salaketekin batera, **2013ko lehenengo herenean egunkarietan bereziki nabarmendutako gaiak honako hauekin lotuta egotea: "Elikagaien arriskua", "Elikagaien Segurtasuna", "Elikagaien industria" eta "Osasuna, nutrizioa eta alergiak".**

Maiatzaz geroztik, "Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza"-ri buruzko albisteak garrantzitsuago bihurtu ziren informazioaren ikuspegitik; bereziki, azken sektore horri lotutako albisteak zirenean. **Bizkaiko golkoko antxoaren kuoten inguruan sortutako istiluek, hegaluzearen kanpaina gorabeheratsuak edo Arrantza Politika Erkideak nolabaiteko arreta eragin zuten hedabideen artean.** Beste alde batetik, nabarmendu egin behar da ia urte osoan zehar egonkor mantendu dela osasunari eta nutrizioari lotutako gaien garrantzia.

Oro har, esan daiteke **bat etortze gehien gertatzen diren bi esparruak,** egunkarien artean, baita esparruoi ematen zaien garrantzia edozein izanik ere, **nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektoreari, eta osasunari, nutrizioari eta alergiari buruzkoak dira.** Eskuarki, informazio-esparru horietan ohikoagoa da iturri partekatutak erabiltzea, eta horien joera da, gainera, modu aktiboan jardutea. Horrek erraztu egiten du material bera egunkari gehienetara iristea.

4.1 irudia 3.2 irudian azaldutako datuekin alderatuta, ikusten da ez dagoela baliokidetasun zehatzik hedabideek 2013an jasotako itemen eta nabarmenentzat jotako hileko gaien artean. Egia da bi kasuetan **"Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza" ageri dela gehien aipatutako eduki gisa, "Osasuna, nutrizioa eta alergiak" multzoari lotutakoekin batera. Alabaina, proportzionalki, joera da "Elikagaien Segurtasuna"-rekin eta "Elikagaien arriskua"-rekin lotuta dauden gaiak balio berezia ematea.** Bi esparru horiek eragiten duten interes orokorrak azal lezake hedabideek horiek nabarmentzeko duten erraztasuna.


4.1. taula. Elikagaien Segurtasunari buruzko gai garrantzitsuenak, hilez hil

	Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	GUZTIRA
Elikagaiak/Elikadura													
Nekaz./Abeltz./Arrantza					1	1	1	1	1	1	1	1	8
Elikagaien industria	1	1	1	1									4
ELIKA													
Elikagaien arriskua	1	1	1	1									4
Osasuna/Nutrizioa/Alergiak	1		1	1	1	1			1		1	1	8
Elikagaien Segurtasuna	1	1						1		1			4
GUZTIRA	4	3	3	3	2	2	1	2	2	2	2	2	28




txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

4.1.a irudia Gai garrantzitsuenen kopurua



2012an eta 2013an gehien nabarmendutako gaia erkatuta (4.1.b irudia), aldaketak ikusten dira ia esparru guztietan. “Osasuna, Nutrizioa eta Alergiak” dira oraindik ere, % 25arekin, 2013an presentzia handiena (% 25) izan duten gaiak; baina, 2012ko zenbatekoekiko (% 37,9) distantzia nabarmena da. Halaber, murrizketa nabarmena dago “Elikagaiak/Elikadura” segmentuan (% 3,6, aurreko urteko % 13,8aren aldean). Bestalde, “Elikagaien arriskua”-ren indizeak antzekoak dira: **handitze nagusiak “Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza” arloan (% 25, % 10,3ren aurrean) eta “Elikagaien Segurtasuna” arloan daude (% 10,3tik % 17,9ra igarotzen da).** Zaldi-haragiaren iruzurrari eta arrantzaren sektorearen arazoei buruzko albiste ugariak azal ditzakete azken bi igoera horiek.

4.1.b irudia Gai garrantzitsuenen ehunekoa (2012-2013)



4. KAPITULUA ELIKAGAIEN SEGURTASUNEKO 2013ko GAI GARRANTZITSUENEN ANALISIA

4.3. Gaien deskribapena, hilez hil

URTARRILA

Gai aipagarrienak: "Elikagaien Segurtasuna", "Elikagaien industria", "Osasuna, nutrizioa eta alergia", "Elikagaien arriskua".

Obesitateak osasunari dakartzkion arriskuak.

Erreferentzia gisa zenbait informazio-iturri erabilia (Eusko Jaurlaritzaren eta Emergency Medicine Journal), lau hedabidek data berberetan argitaratu zituzten gehiegizko pisuari lotutako arriskuei buruzko albisteak.

Hala Garak nola *El Correo* (2013/01/23) eta *Deiak* zein *Diario Noticias de Álava* (2013/01/24) jaso zituzten Bizkaiko Medikuen Elkargoak bultzatutako neurriak, Euskal Autonomia Erkidegoan haurren obesitatea areagotzea geldiarazte aldera. Lakuako gobernuak eman dako datuek erakusten dute azken hamarkadan % 25 ugaritu direla 16 urtetik gorako pertsona obesoen kopurua. "Uno de cada tres niños vascos tienen sobrepeso" [Euskal haurren artean, hirutik batek gehiegizko pisua du] izan zen *Deia* egunkariaren titularrak. Halaber, *Diario Noticias de Álava* (2013/03/24) eta *Noticias de Gipuzkoa* (2013/03/23) egunkariak ere obesitatearen gaia jorratu zuten, osasunerako dakartzan arriskuak nabarmenduz eta, are gehiago, trafiko-istripu bat egonez gero hiltzeko aukerak areagotu egiten direla aipatuz, Emergency Medicine Journalen argitaratutako ikerketan adierazitakoarekin bat etorritik.

Iturria: Gara



OCUk zaldi-haragia atzeman du bi hanburgesa-markatan.

Urtarrilaren 30ean, gutxienez Euskadiko sei egunkaritan: *Deia*, *Gara*, *El Correo*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Diario Noticias de Álava* eta *El Diario Vasco*. Egunkari horiek informazio hori landu zuten euren orrialdeetan.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak zaldien DNAREN presentzia atzeman zuen Eroskik eta Alipendek merkaturatutako hanburgesetan. Eroskik, presentzia hori azaltze aldera, adierazi zuen behi-piezak eta zaldi-piezak elkar ukitzen egon bide zirela ekoizpenaren sasoiaren batean. Nolanahi ere den, Eroskiren hanburgesak "onargarria" notarekin jaso ziren txostenean. Hedabideetako ikuspegi nagusien arabera, albiste hori etiketatze-arazotzat jo zen; beraz, kontsumitzaileei eginiko ustezko iruzurtzat. Bestalde, Elikagaien Segurtasunari lotutako kontutzat ere jo zen, nahiz eta kasu batean ere ez den baieztatuta aipatutako hanburgesek arriskua eragiten dutela osasunean.

Iturria: Deia

txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

OTSAILA

Gai aipagarrienak: "Elikagaien Segurtasuna", "Elikagaien industria", "Elikagaien arriskua".

EBk eskatu du behi-haragiaren DNArekin lotutako probak Europar Batasun osoan.

Urtarrilean zaldi-haragia albiste izan zen jada; izan ere, OCUk espezie horren DNA atzeman zuen bi hanburgesa-markatan. Horren ondorioz, otsailean ere kaleratu ziren edukiak.

Hilaren 14an, zenbait egunkariek EBk diseinatutako bi faseko proiektu baten berri eman zuen. Horren helburua zen, alde batetik, behi-haragiz eginiko produktueta zaldien DNA zegoela egiaztatzea eta, bestalde, "fenilbutazonaren hondakinaren presentzia aurkitzea: zaldien artean erabilitako sendagaia da, eta arriskua ekar dezake osasunerako". (Deia, 2013/02/14).

Hilaren 15ean, 16an eta 17an albisteak argitaratu ziren, gai berari buruz, konnotazio ezberdinekin. *Noticias de Gipuzkoa* osasun-arriskua aipatu zuen, EBk egindako kontrolez aritzean. Halaber, Erresuma Batuan hiru pertsona atxilotu zituztela azaldu zuen, haragi-produktuen etiketak faltsutzeagatik ("La UE estudiará el riesgo sanitario de la carne de caballo" [EBk aztertu egingo du zaldi-haragiaren osasun-arriskua], *Noticias de Gipuzkoa*, 2013/02/15).

Garak ere aipatu zuen osasun-arriskua hilaren 15eko izenburuan: "El fraude con la carne de caballo apunta ahora al riesgo sanitario" [Zaldi-haragiaren iruzurrak osasun-arazoak eragin ditzake orain] (2013/02/15). Britainia Handian egindako azterlanek ohartarazi zuten hanturaren kontrako botiken bidezko kutsadura gerta zitekeela.

El Diario Vascok hilaren 16an nabarmendu zuen Frantziako enpresa bat itxi zutela, iruzurra zela eta, EBk hala eskatuta egindako kontrolen ondorioz.

Halaber, *Berriak* hilaren 17an aipatu zuen gai hori, Europar Batasuneko hainbat enpresatan eta estatutan gertatutako eskandaluak landuz. "Zaldikiaren eskandaluak luze du itzala" (*Berria*, 2013/02/17).

Iturria: Diario Vasco eta Berria



Nestlek eta Ikeak produktuak baztertu dituzte, zaldi-haragiaren hondakinak zituztela eta.

Hilaren 20tik otsailaren amaierara bitartean zenbait albiste agertu ziren, zenbait elikagaitan agertutako zaldi-haragiari buruz.

El Correo Español eta *El Diario Vasco* egunkariek hilaren 20an azaldu zuten Nestle multinazionalak baztertu egin zituela zaldi-haragiaren hondakinak zituzten produktuak. Albiste berberetan, *El Diario Vascok* hau gogorarazi zuen: "Frantziako justiziak Spanghero enpresa erregistratu du; izan ere, eskandaluaren erdigunean dagoelako susmoak daude" (2013/02/20).

Hilaren 27an eta 28an albiste berriak argitaratu ziren Nestle kasuari buruz, eta horietan Ikea enpresa ere aipatu zen, haragi-bolak eta saltxitxak baztertu zituelako, horietan ere zaldi-haragien trazak aurkitu ondoren (Deia, 2013/02/28).

Iturria: El Diario Vasco



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

MARTXOA

Gai aipagarrienak: "Elikagaien industria", "Elikagaien arriskua", "Osasuna, nutrizioa eta alergiak".

Ikeak zenbait tarta baztertu ditu, bakterioekin kutsatuta zeudela atzeman ondoren.

Zenbait egunkarik (besteak beste, *El Correo Español*, *El Diario Vasco*, *Diario Noticias de Álava* eta *Deia*) 2013/03/06an azaldu zuten Ikea multinazionalak banatutako txokolatezko eta arbendolazko tartetan bakterioek eragindako kutsadura zegoela. Almondy hornitzaile suediarrek ekotzitako postreak 23 herrialdetako jatetxeetatik kendu ziren. Aurreko urtearen amaieran Txinako osasun-agintariak aipatutako postreen bi tona inguru konfiskatu ondoren hartu zen neurria; zehazki, postre horietan bakterio koliformeak atzeman ondoren. Ikea Ibéricaren arabera, Espainiar saltokietan merkaturatutako produktuetan ez zen gorabeherarik gertatu: "...Espainian ez dago eta ez da egon bakterio koliformeen trazekin kutsatutako sortetatik eratorritako produkturik" (*El Correo Español*, 2013/03/06).

Iturria: *Diario Noticias de Álava*



Elikadura eta horren eragina koloneko minbiziaren prebentzioan.

Hilaren 20az geroztik, koloneko minbiziarekin lotutako albisteak agertu dira. Martxoaren 31n izandako "Koloneko minbiziaren aurkako munduko eguna"-ren karietara, zenbait hitzaldi eta konferentzia antolatu ziren aurreko egunetan. Esate baterako, *El Diario Vasco* (2013/03/26) orrialde bat erabili zuen, Loinzatz sozietate koraleko hitzaldi bati buruzko informazioa emateko. Zehazki, hitzaldia koloneko minbizia saihesteari buruzkoa izan zen, eta aipatu egunariak horren berri jaso zuen 6 egunen buruan. Egunkari berberak aipatu egin zuen hilaren 26an Minbiziaren Gipuzkoako Elkarteak eta Basque Culinary Center-ek Sukalde sozietatean egindako topaketa. Osasunari eta gastronomiari buruzko batzar horren helburua zen herritarrei minbizia saihesten erakustea, elikaduraren beraren bidez. *Noticias de Gipuzkoak* iritzi-zutabe batean birpasatu zuen koloneko minbiziaren eragina, eta zutabe horretan bertan zenbait elikagaien kontsumoa gomendatu zuen, "karramarroari ihes egiteko" (*Noticias de Gipuzkoa*, 2013/03/25).

Iturria: *Diario Noticias de Álava*

txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

APIRILA

Gai aipagarrienak: "Elikagaien arriskua" eta "Elikagaien industria".

Polemika, Nafarroako ospitale publikoetako elikagaie- tan E. Coli bakterioa aurkitu ondoren.

Nafarroako ospitaleetan 21 plater prestatutan (kontsumitzeko prest egon ez arren) kontrolak egin ondoren, 22 hutsegite aurkitu ziren, higiene faltarekin eta temperaturarekin (ezarritakoa baino baxuagoa) lotuak.

Hutsegite horiek guztiak urtarrilean sukaldaritzaz-zerbitzua pribatizatu ondoren atzeman ziren. Egunkari batzuek (*Diario Noticias de Álava* eta *El Correo*) euren titularretan aipatu zuten aztertutako elikagaieetan "gorozkiek eragindako kutsadura" egon zitekeela: "Polémica tras la denuncia de restos fecales en la comida de hospitales públicos navarros" [Polemika, Nafarroako ospitale publikoetako elikagaieetan gorozkien hondakinak daudela salatu ondoren] (*El Correo*, 2013/04/26), "Navarra halla restos fecales en la comida de sus hospitales" [Nafarroak gorozkien hondakinak aurkitu ditu bere ospitaleetako elikagaieetan] (*Diario Noticias de Álava*, 2013/04/26). *Deiak*, *El Diario Vasco* eta *Garak* nabarmendu egin zuten Nafarroako Gobernuak ukatu egin zituela akusazio horiek eta baztertu egin zuela osasunerako edozein arrisku egotea: "El Gobierno navarro descarta que haya materias fecales en la comida" [Nafarroako Gobernuak baztertu egin du elikagaieetan gorozkiak egotea] (*Gara*, 2013/04/26), "Navarra descarta peligro para la salud tras hallar E. Coli en comida hospitalaria" [Nafarroak baztertu egin du osasunerako arriskurik egotea, ospitaleetako elikagaieetan E. Colia atzeman ondoren] (*El Diario Vasco*, 2013/04/26), "Nafarroa niega «contaminación fecal» en comidas hospitalarias" [Nafarroak ukatu egin du «gorozkiek eragindako kutsadura» dagoenik ospitaleetako elikagaieetan] (*Deia*, 2013/04/26).

Iturria: El Correo eta El Diario Vasco



Francia y Grecia, los dos países europeos más afectados por el fraude de la carne de caballo

Bruselas descarta riesgos pero anuncia la presentación de nuevas medidas para reforzar los controles

El 13,5% de las muestras etiquetadas como caballo en Francia contenían equinos; en Grecia, el 12,5%

CONTROLES EN AÑO		CONTROLES EN EL PERÍODO	
País	2012	2013	2014
Francia	100	100	100
Grecia	100	100	100
Italia	100	100	100
Países Bajos	100	100	100
Polonia	100	100	100
Portugal	100	100	100
Rusia	100	100	100
Suecia	100	100	100
Reino Unido	100	100	100
TOTAL	1.200	4.244	3.920

Aztertutako hamar kasuetatik lautan atzeman da zaldien DNA, etiketatu gabe.

Zaldien iruzurra albistea da oraindik ere; izan ere, bere adarkatzeek hainbat albiste eragin zituzten 2013ko lehenengo hiruhilekoan.

Espanian, osasun-agintariek zaldien DNA atzeman zuten etiketatu gabe, produktu nazionaletan zaldi-haragiaren iruzurra egiaztatzeko eginiko proben % 4n.

Gai horren inguruan, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumena Ministerioak azpimarratu egin zuten fenilbutazona sendagaia atzemateko probetan (debekatuta dago sendagai hori ematea gizakiek kontsumituko dituzten animaliei) 108 lagin aztertu zirela, baina "ez zen kasu positiborik atzeman" (*Noticias de Gipuzkoa*, 2013/04/16).

Deiak, *El Correo Español*ek, *Diario Noticias de Álava*ek, *Noticias de Gipuzkoa*ek eta *El Diario Vasco*ek oso antzeko informazio-titularrak eman zituzten, eta osasunerako arriskurik ez zegoela azaldu zuten, osasun-agintarien esanei jarraiki.

Iturria: Deia

txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

EKAINA

Gai aipagarrienak: "Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza" eta "Osasuna, nutrizioa eta alergiak".

Bioterra azokak produktu ekologikoak bultzatu nahi ditu Ficoban.

Irungo Ficoba erakustazokan egin zen Bioterra azokaren X. edizioa, 2013ko ekainaren 7tik eta 9ra bitartean. Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren ingurukoak izan zen. Aztertutako egunkari gehienek ekitaldi horren berri eman zuten zenbait egunetan. Inaugurazioa baino 3 egun lehenago, ekainaren 4an, *El Diario Vasco* "Bioterra, sektore ekologikoa bultzatzen dutenen hitzordua Ficoban" aipatu zuen. *Gara* azpimarratu zuen "Bioterra azoka (Ficoba) izango da sektore ekologikoaren topalekua". *Noticias de Gipuzkoa* nabarmendu zuen "Bioterra azoka ekologikoak 141 erakusle bilduko ditu, Irunen, asteburu honetan".

Ekimenak iraun zuen egunetan, prentsak arreta jartzen jarraitu zuen. Berriak titular hau argitaratu zuen: "Osasuna hobetzeko produktu berritzaileak ardatz Bioterran". Azokaren X. edizioak izandako publikoaren eta erakusleen harremana onare nabarmendu zuten: "Bioterrak 10 urte bete ditu, errekorrekin eta doako sarrerarekin" (*El Diario Vasco*, 2013/06/07). "Bioterrak hamargarren edizioko atek ireki ditu, inoiz baino erakusmahai gehiagorekin" (*Gara*, 2013/06/08). Erakusketa amaitu ondoren, *El País* azpimarratu zuen "Bioterrak lortu egin du bisitarien errekorra, sarrera doakoa izanik" (2013/06/11).

Iturria: *Gara*



Zenbait ekimen Ingurumenaren Munduko Egunean.

Ekainaren 5ean egin zen Ingurumenaren Munduko Eguna. Efemeride hori gogorarazi zen prentsako orrialdeetan. *El Correo* eta *El Diario Vasco* gehigarri berezi bana argitaratu zuten, data hori zela eta. Besteak beste, gomendioak eman ziren: "Gomendioak, Atik Zra, mundu iraunkorra lortzeko" (*El Diario Vasco*, 2013/06/05). *El Correo*ek, bestalde, nabarmendu zuen "Gurutzetako eta Galdakaoko ospitaleek menu ekologikoak zerbitzatu dituzte Ingurumenaren Munduko Egunean" (2013/06/05). "Kontsumo arduratsua" izan zen *Noticias de Gipuzkoa* erreportaje zabal bati emandako izenburua. Bertan, elikaduraren eta ingurumenaren arteko harremana landu zen.

Iturria: *Noticias de Gipuzkoa*

UZTAILA

Gai aipagarrienak: "Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza"

Eusko Jaurlaritza kritikoa agertu da Nekazaritza Politikaren Erkidetaren ereduarekin.

Eusko Jaurlaritzak, *El Correo* argitaratutakoaren arabera (2013/07/26), "zentralista eta bateratzaile" gisa aipatu zuen Nekazaritza Politika Erkidea (NPE) kudeatzeko eredu, Sektoreko Konferentziak uztailearen 25ean Madrilen onetsitakoa; izan ere, ulertzen du mugatu egiten direla EAEko nekazaritza-eskumenak eta landa-garapeneri dagozkionak. Kritika berbera jaso zen, egun horretan bertan, beste hedabide batzuetan. "Euskadik salatu egin du Cañetek EAEko nekazaritza-eskumena inbaditu duela" izan zen *El Mundoko* izenburua (2013/07/26). *El Paísek*, bestalde, nabarmendu zuen "Gobernuak aurka egiten dio Nekazaritza Politika Erkideko ereduari" (2013/07/26). Garak adierazi zuen "Lakuak «zentralistatza» jo du NPEaren kudeaketa-eredua" (2013/07/26). *Deiak* ere ideia hori azpimarratu zuen: "Eusko Jaurlaritzak «zentralistatza» jo du NPEaren kudeaketa-eredua" (2013/7/26). Berriak beste horrenbeste egin zuen: "Jaurlaritzaren ustez, PPren gobernuak eredu zentralista ezarri du NPE kudeatzeko" (2013/07/26). Hala *Diario Noticias de Alavak* nola *Noticias de Gipuzkoak* euren azaletan jaso zituzten Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuorde Bittor Orozek gai horri buruz esandakoak: "NPEa kudeatzeko proposamenak 30 urteko atzerakada dakar" (2013/07/29).

Iturria: *El Mundo del País Vasco*

Euskadi denuncia que Cañete invade la competencia agraria vasca
El Gobierno vasco se opone a la aplicación de la PAC propuesta ayer por el ministro

9.800 parados menos en el País Vasco, según la EPA
La PRA dijo que el paro subió y el Irem de 20.000 desempleados más

Los arrantzales rechazan reducir otra vez la cuota de anchoa como propone la CE

Gipuzkoak aprobauko du generatzaile berriak
Las empresas vascas se comprometen a reducir el consumo de energía

La sostenibilidad de las pensiones se debatirá en septiembre

EBK % 17 murriztu du antxoaren kuota Bizkaiko golkoan.

Europar Batasuneko (EB) Batzordeak uztailearen 23an onetsi zuen % 17 murriztea antxoaren arrantza-kuota Bizkaiko golkoan. Bruselaren ekimena hedabide gehienek jaso zuten. *El Diario Vasco* Gipuzkoako flotaren aurkako erantzuna adierazi zuen: "Arrantzaleek gaitzetsi egin dute antxoaren kuota berriz ere murriztea, EBk proposatzen duen bezala" (2013/07/09). *El Correo*, aldiz, "Kantauriko flotaren ordezkariek" aipatuta, argitu zuen "Antxo % 17 murrizteak ia ez dio eragingo hurrengo kanpainari" (2013/07/09). Antzera, *Garak* azaldu zuen "Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradien Federazioak, onartu arren «inori ez zaizkiola murrizketak gustatzen», uste duela albiste positiboa dela; izan ere, «aintzat hartuta orain dela bost urte arrantza itxi egin zela, mahai gainean utzi du antxoaren kanpain berrezarri egin dela eta biomasa nahiko dagoela, kostera arrunta egin ahal izateko" (2013/07/09). *Deiak* honako izenburu deskriptibo hau jaso zuen: "Bruselak eskatu du % 17 murrizteko antxoaren kuota Bizkaiko golkoan" (2013/07/09).

Iturria: *El Diario Vasco*

Soría esgrimirá la 'absoluta inacción' de la Comisión hasta 2011 para convencer el Jueves a Alemania

Un ERE en Berle dejen a los trabajadores

txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

ABUZTUA

Gai aipagarrienak: "Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza" eta "Elikagaien Segurtasuna"

Kezka dago arrantzaren sektorean, hegaluzearen kanpaina gorabeheratsuagatik.

Abuztuan, Euskal Autonomia Erkidegoko egunkariek Bizkaiko eta Gipuzkoako hegaluzearen kanpaina gorabeheratsuaren berri eman zuten, baita horrek sektorean eragindako kezken berri ere. Hilaren 14an, *Berriak* argitaratu zituen gai horri buruzko lehenengo albisteak: "Urte ona izan arren, hegaluzearen kanpainak ez du iazkoa gaindituko". Hilaren 21ean, *El País*, *Gara* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkariek harrapatzen kopuru txikiak aipatu zituzten. Ondorengo egunetan gaiari buruzko zenbait informazio agertu ziren. *El Correo* nabarmendu egin zuen Bizkaiko arrantzaleek harrapatzen kopurua bikoiztu egin zela, baina gipuzkoarren artean deskargek behera besterik ez zutela egiten (*El Correo*, 2013/08/23). Hiru egunen buruan, *El Diario Vascok* informazioa eman zuen gipuzkoar arrantzaleen kezka eta frantziar eta irlandar arrantzaleen inguruan dituzten kexei buruz; izan ere, azken horiek arrastatze-teknikak baliatzen omen dituzte, eta horrela "tunidoen bankuetan sarraskiak eragitearen truke, harrapatze ikusgarriak eta irabazi handiak lortzen dituzte". *Diario Noticias de Álavak* bat egiten du bere albisteetan, eta gaia azalean dakar. Barneko orrialdeetan hala *Deiak* nola *Diario Noticias de Álavak* jaso egiten dituzte arrantzaleek gai horren inguruan esandakoak, eta euren kezka ere partekatzen dituzte: "Euskal arrantzaleek kezkatuta daude, eta ez dago horretarako arrazoi faltarik. Izan ere, arrantza-presioa areagotzen ari da hegalabur zuriaren/iparraldeko hegaluzearren populazioaren inguruan (itsasbazerreko arrantza-sektorearen ekonomia oinarrian dago horien arrantza), eta horrek ondorio larriak izan ditzake espezie horren biomasa erortzunean." (2013/03/26).

Iturria: *Gara* eta *Berria*



Donostiako Udala goagan darabil taberna eta jatetxeen segurtasun higienikoari eta sanitarioari buruzko notak argitaratzea.

Noticias de Gipuzkoak (2013/08/25) azalean nabarmendu zuen albiste hori, eta gaiari buruzko erreportaje zabal bat ere egin zuen. Donostiako Udaleko Ingurumen Sailak goagan darabil hiriko ostalaritza-estabiezimenduen segurtasun higienikoari eta sanitarioari buruzko puntuazioak publiko egitea, oraindik ere definitu gabeko formatu batean, Londres edo New York bezalako hirietan egiten den bezala. Xedea da ostalaritza donostiarraren kalitatea hobetzea; izan ere, hori da Donostiako turismoaren elementu erakargarrietako bat. "Zenbatetsi da ikuskatutako establezimenduen % 80k duela kalitate "onargarria", segurtasun higienikoari eta sanitarioari dagokionez. Taberna eta jatetxeen % 10ek ez du gainditu eta % 10ek bakarrik gainditu du nota onarekin (7 edo 8 batekin)". Osasun-kalifikazio horiek egiteko, bost eremu erabiltzen dira, eta horietako bakoitzari 0 eta 10 bitarteko puntuazioa ematen zaio. Udalaren datuen arabera, lokal gehienek 6,25 lortuta gainditzen dute: "nota onargarria da, baina hobetu egin daiteke, munduko gastronomiaren guneetako bat izan nahi duen hiri bat izanik". Sukaldearen garbitasuna eta hozkailuetan elikagaiak ordenatzeko modua dira baloratzen diren alderdietako bi, eta Udaleko Osasun Publikoko ikuskatzaileen arabera, hobetzeko tarte handiagoa dute.

Iturria: *Noticias de Gipuzkoa*



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

IRAILA

Gai aipagarrienak: "Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza" eta "Osasuna, nutrizioa eta alergiak".

Laborearen prezioa murriztea eta horren ondorioak ogiaren kostuan.

Laborearen kanpainaren amaieran, Araban murriztu egin da uzta. Halaber, prezioak % 30 eta % 50 bitartean murriztu dira. Irailaren 5ean, *El Correo* eta *Diario Noticias de Álava* egunkariak Arabako Nekazariaren Elkartearen (UAGA) kezka jaso zuten; izan ere, kostu horiek eragina izango dute ogiaren prezioan. 2007an laborearen kostua handitu zenean, ogiaren kostua ere % 20 areagotu zen. Hain zuzen ere, horregatik uste dute gaur egun ere ogiaren prezioa merkatu egin beharko litzatekeela, lehengaiak ere merkatu egin denez gero. *Diario Noticias de Álava* azaleko titularrean azaltzen du kezka hori: "Bajará el precio del pan?" [Ogiaren prezioa merkaturu ote da?]. Bestalde, tarte zabala darabil, merkatuen espekulazioaz eta UAGaren eskaerez hausnartzeko.

Iturria: *Diario de Noticias de Álava*



Azti-Tecnaliak atzeman egin ditu elikadurako eta gastronomiako joera berriak.

Aztertutako Noticias taldeko hiru egunkariak (*Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario Noticias de Álava*) orrialde oso bat hartzen duen erreportajea argitaratu zuten hilaren 16an, Azti-Tecnalia teknologia-zentroa elikadurako eta gastronomiako joera berriak atzemateko egiten ari den ikerketa-lanei buruz. Azterlan hori egiteko, *The Food Mirror* sortu du, joeren behatzaileen lehenengo komunitate globala ekarriko duen ekimena. Proiektua nolabaiteko joko/lehiaketa baten bidez gauzatu da, aztertuz zer eta nola jaten eta edaten den beste herrialde batzuetan, eta zein diren kontsumitzaileen eskariak. Horrek guztiak ahalbidetu egingo du merkataritza-potentziala duten produktuak ezagutzeko.

Iturria: *Deia*

txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

URRIA

Gai aipagarrienak: “Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza” eta “Elikagaien Segurtasuna”

Antxoaren kuota handitu egingo da Bizkaiko golkoan.

Bizkaiko golkoan arrantzatu ahal den antxoaren kuota 1.646 tona handituko da 2013-2014 kanpainen, 2012. urteko soberakinari esker. Hori jasotzen du Europar Batzordearen araudiak, Kudeaketa Komunitarioko Batzorde batek onetsi ondoren. Albistea, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumena Ministerioko iturriak aipatu zituen, urriaren 23an jaso zen *Noticias de Gipuzkoa*, *Deia*, *El Correo*, *El Diario Vasco* eta *El Mundo del País Vasco* egunkarietan. Erabaki horrek ahalbidetu egiten dio Kantauriko flotari espezie horren 15.226 tona harri-patu ahal izatea 2014ko ekainaren 30era bitartean. *Noticias de Gipuzkoak* gogorarazi duenaren arabera, kupo hori “aurreko denboraldikoa baino txikiagoa da”.

Iturria: *Noticias de Gipuzkoa*



Vitoria-Gasteizko Udalak hiriko kebabak eta bazarrak ikuskatu ditu.

Vitoria-Gasteizko Udalak hiriko kebabak eta bazarrak ikuskatzeko kanpaina egin zuen, eta horren berri jaso zen *El Correo* eta *Diario Noticias de Álava* egunkarien azaletan. *El Correo* azaldu zuenez (2013/10/15), ikuskatutako kebabak % 82,9tan “jarduketaren bat egin da, higienari eta lizentziari lotutako arazoak direla eta”. Egunkari horrek gehitu zuen ikuskaritza-kanpaina hori Gasteizko 51 bazarretan ere egin zela: “28 ultramarino aztertu dira; zehazki, elikagaiak beste produktu batzuekin batera saltzen dituztenak. Udal-langileek egiaztatu dute lokalen espazioaren okupazioa oso handia dela, elikagaiak lurtean zeudela, erreklamazio-orriak falta zirela edo establezimenduko komunak biltegi gisa erabiltzen zirela”. *Diario Noticias de Álava* horren berri jaso zuen 2013/10/18ko azalean, “La lupa en algunos comercios” [Lupa zenbait saltokitan] izenburupean. Gasteizko Udalak hartutako neurriekin kritiko agertuz, egunkari horrek hau adierazi zuen: “Javier Marotok Supermanen kapa jantzi du berriz ere; oraingoan, bazar txinatarren, kebabak eta lokutorioen aurka, Gasteizko «merkataritza tradizionala defendatzeko”.

Iturria: *El Correo* eta *Diario Noticias de Álava*

txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

AZAROA

Gai aipagarrienak: "Osasuna, nutrizioa eta alergiak" eta "Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza"

FDak proposatu du koipe saturatuak debekatea Ameriketako Estatu Batuetako elikagaietan.

*El País*ek eta *El Mundo del País Vasco* azaroaren 8an jaso zuten Ameriketako Estatu Batuetako FDAk (Food and Drug Administration / Elikagai eta Sendagaien Administrazioa) proposatu egin zuela koipe saturatu artifizialen (trans direlakoak) presentzia debekatea herrialde horretako elikagaietan. *El Mundo del País Vasco* azaldu zuenaren arabera, "Ameriketako Estatu Batuetako agintariek ebatzi dute trans gantz-azido saturatuak, gozogintza industrialean eta berehalako janarian asko erabiltzen direnak, kaltegarriak direla osasunerako, eragiten dituzten arrisku kardiobaskularrak direla eta". *El País*ek, bestalde, hau nabarmendu zuen: "agintariek (amerikarrek) jada ez dituzte segurutzat jotzen substantzia horiek, zenbait landare-olio hidrogenatzean sortzen direnak, solidoak izan daitezzen eta elikagaiak erakargarriagoak izan daitezzen (...). Zientzia-ebidentziak frogatu du arteriak buxatzen dituztela eta nabarmen areagotzen dutela bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua".

Iturria: *El País*



12/12/2013 EL CORREO CIUDADANOS 15

Un ascenso para el cerdo de baserri

El txerri de caserío se convierte en el decimosexto producto con certificación de calidad Eusko Label

L. LÓPEZ

En el mundo del cerdo, la asociación que agrupa a los productores de cerdos de caserío en el País Vasco está celebrando un momento importante. El cerdo de caserío vasco se convierte en el decimosexto producto con certificación de calidad Eusko Label. Este es el primer paso para que este tipo de cerdo pueda competir en igualdad de condiciones con otros productos de calidad en el mercado. Los productores de cerdos de caserío en el País Vasco están trabajando para mejorar la calidad de sus productos y obtener el reconocimiento de Eusko Label. Este proceso implica cumplir con unos requisitos muy exigentes en cuanto a la alimentación, el bienestar animal y el control sanitario. Los cerdos de caserío son un producto muy valorado por su sabor y su calidad. Su crianza es más lenta y humana, lo que se refleja en su carne. Este tipo de cerdo es un producto muy saludable y nutritivo. Su consumo contribuye a mejorar la salud y el bienestar de las personas. Los productores de cerdos de caserío en el País Vasco están orgullosos de su trabajo y de haber alcanzado este hito. Este reconocimiento les ayudará a seguir mejorando y a ofrecer productos de mayor calidad a los consumidores. El cerdo de caserío es un producto que merece ser reconocido y valorado. Su consumo es una opción saludable y sostenible. Los productores de cerdos de caserío en el País Vasco están comprometidos con la calidad y el bienestar de sus productos. Este reconocimiento es un gran logro para ellos y para todos los que valoramos la calidad y el bienestar en nuestra alimentación.

YO INVIERTO AQUÍ

Calendario de subastas de los **Palacios del Tesoro**

NOVIEMBRE		DICIEMBRE	
L	M	M	J
1	2	1	2
3	4	3	4
5	6	5	6
7	8	7	8
9	10	9	10
11	12	11	12
13	14	13	14
15	16	15	16
17	18	17	18
19	20	19	20
21	22	21	22
23	24	23	24
25	26	25	26
27	28	27	28
29	30	29	30
31		31	

www.felicitos.es | 900 18 50 50

Baserriko txerria izan da Eusko Labela lortu duen hamaseigarren produktua.

"Baserriko txerria da Eusko Label kalitate-ziurtagiria lortu duen hamaseigarren produktua. Ziurtagiri horrek bermatu egiten du produktua kalitate handikoa dela eta osasun-berme handia duela, eta Euskadin hazitako, hildako eta zatitutako animalietatik datorrela" zehaztu zuen *Deiak* azaroaren 12an. *El Correo*ek eta *El Diario Vasco* informazioa partekatu zuten gai horretaz aritzean. Biek lehenetsi zuten adierazkortasuna izenburuko esaldian: "Un ascenso para el cerdo de baserri" [Baserriko txerriaren igoera]. Vocento taldeko egunkariak bi izenburuetan hau adierazi zen: "ekimenaren sustatzaileek darabiltzaten datuen arabera, marka berriak hazkunde-aukera handiak ditu etorkizunean: gaur egun, Euskadin hamar kilo txerri-haragi kontsumitzen dira, per capita, urtean."

Iturria: *El Correo*



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

ABENDUA

Gai aipagarrienak: “Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza” eta “Osasuna, nutrizioa eta alergiak”.

EBk onetsi egin du Arrantza Politika Erkidearen (APE) erreforma.

Abenduan, berriz ere, euskal prentsak arreta berezia jarri zuen arrantza-gailetan, eta horrek islatu egiten du Euskadin ekonomiaren esparru horri informazioari dagokionez ematen zaion garrantzia. Hilaren 8an bertan *Berriak* iritzi-artikulu bat argitaratu zuen gai horri buruz, “Arrantza-politika berria” izenburupean. Aitziber Sarobek sinatu zuen eta bertan lau ardatz proposatu zituen egileak, Europako Parlamentuan eztabaidatu behar zen arrantza-politika erkide berrirako. Hilaren 10ean eta 11n, aztertutako egunkari gehienek ere kontu hori landu zuten. *Garak* hau adierazi zuen: “El Parlamento europeo aprobará hoy una reforma que busca evitar la sobrepesca” [Europako Parlamentuak gaur onetsiko duen erreformak gehiegizko arrantza saihestu nahi du] (2013/12/10). *Deiak* hau azaldu zuen: “EAK babestu egiten du Arrantza Politika Erkidearen erreforma” (2013/12/10). *El Correo*k, bestalde, hau argitaratu zuen: “Espainiak eurodiputatuek Arrantza Politika Erkidearen alde daude” (2013/12/10). Abenduaren 11n, Estrasburgoko legelariak APEa onetsi ondoren, baloraztuko iritsi ziren. “Europak 2019a ezarri du gehiegizko arrantza amaiarazteko data gisa” azpimarratu zuten *El Correo*k eta *El Diario Vasco*k. Bestalde, *Garak* hau adierazi zuen: “Europako Parlamentua arrastatze-arrantza eta sareen bidezko sakoneko arrantza debekatzearen aurka dago.” *Berriaren* ikuspegia antzekoa izan zen: “Arrantza politika berritu eta sakoneko arrastearren debekua atzeratu du EBk”.

Iturria: El Diario Vasco

40 | ECONOMÍA

La UE se pone 2019 como límite para acabar con la sobrepesca

La nueva Política Pesquera Común, que entrará en vigor en enero, subraya la importancia de promover el empleo en regiones costeras.

J. M. OTERO
STRASBURGO. Tras una jornada que se prolongó hasta las 12 horas, el Parlamento Europeo, reunido en sesión plenaria en su sede de Estrasburgo, aprobó hoy la reforma de la Política Pesquera Común (PPC) de la Unión Europea. El texto, que entrará en vigor el 1 de enero de 2014, incluye un capítulo que trata de la pesca en zonas de desarrollo económico de las regiones costeras de la Unión Europea y de la pesca en zonas de desarrollo económico de las regiones costeras de la Unión Europea.

La reforma de la Política Pesquera Común (PPC) de la Unión Europea, que entrará en vigor el 1 de enero de 2014, incluye un capítulo que trata de la pesca en zonas de desarrollo económico de las regiones costeras de la Unión Europea y de la pesca en zonas de desarrollo económico de las regiones costeras de la Unión Europea.

Descartes y exepciones

Las capturas de descarte de pescado en el mar, especialmente por su propio uso, aumentarán por su propia cuenta, especialmente por su propio uso, especialmente por su propio uso.

Los barcos no podrán volver más de un 5% de su captura a partir del 2019

Los barcos no podrán volver más de un 5% de su captura a partir del 2019, especialmente por su propio uso, especialmente por su propio uso.



El Tribunal Vasco de Cuentas pone en duda las ayudas públicas a Epsilon

El presidente de la entidad anuncia que emitirá el informe final sobre este fondo empresarial fundado por el Gobierno Vasco.

El Tribunal Vasco de Cuentas pone en duda las ayudas públicas a Epsilon, especialmente por su propio uso, especialmente por su propio uso.

El Tribunal Vasco de Cuentas pone en duda las ayudas públicas a Epsilon, especialmente por su propio uso, especialmente por su propio uso.

FRENO A LAS COMILONAS
 UNA CUNA ACCIDENTE JÓVENES LEVANTA UNA DIETA EQUILIBRADA PARA HACER EVITAR EL SOBREPESO QUE SUFRE EL 40% DE LA POBLACIÓN

CALENTANDO MOTORES PARA NAVIDAD

Pezados y ensalada de la dieta

Primero, ensalada

La sidra

Marisco vs. paté

Gabonetako tripakaden arriskuak.

Gabonek eta elikagaiek binomio bereizgaitza osatzen dute. Behar-bada horregatik, abenduan testu ugari argitaratu zen euskal prentsan, non gehiegikeria gastronomikoak saihesteko deia egiten baitzen, Gabonetan gure osasuna ez kaltetzeko. Hilaren 7an bertan, *El Correo*k Jacqueline de Andrés nutricionistari eginko elkarrizketa argitaratu zuen. Besteak beste, “gehiagizko ingestaren eta sedentarisismoaren ondorioz hiltzen ari gara” baieztatu zuen. Biharamunean, Noticias taldeko egunkariak aipatu zuten Obesitate Aztertzeko Espainiako Elkarteak (SEDO) gida bat egin duela: “Bilboko ospitale nagusietako endokrinologia-zerbitzuetan banatuko da” (*Deia*, 2013/12/08). Dokumentu horrek “ikusarazten digu posible dela Gabonekin elkarbizitzea eta Gabonak bizirik gainditzea, ukoen eta tentazioen tortura bizi gabe” (*Noticias de Gipuzkoa*, 2013/12/08). Nutrizioaren arloko katedraticoa María del Puy Portillok ere gai hori aipatu zuen *El Correo* egunkariaren Más Gastronomía gehigarrian, eta bertan hau adierazi zuen: “Gabonetan gehiegi jaten dugu” (2013/012/10). *Berriak*, bestalde, elikaduraren eta osasunaren arteko harremana gogorarazi zuen, Cristina Pérezek artikulu batean (“Elikadurak osasunarekin daukan harremana”, 2013/12/17).

Iturria: Noticias de Gipuzkoa

5. AZTERLANAREN ONDORIOAK

Honako hauek dira azterlan honen ondorioak, 2013an zehar 9 euskal egunkariren paperezko edizioetan Elikagaien Segurtasunari buruz argitaratutako 1.803 idatziak aztertu ondoren lortutakoak:

Guztira Elikagaien Segurtasunari buruzko 1.803 albiste argitaratu dira; hots, 150,2 albiste hileko edo 5 eguneko, aztertutako egunkari guztien artean. Zenbateko hori oso handia ez den arren, datu esanguratsua da eta hazteko egiazko aukerak ditu, aintzat hartzen bada Elikagaien Segurtasunaren eta nutrizioaren inguruan dagoen interesa.

Nahiz eta albisteak hautatzeko erabilitako informatika-tresnaren aldaketak alderatzeak egitean kontuz jardutera eramaten gaituen, gogoratu egin behar da 2012an guztira 820 testu zenbatu zirela.

9 egunkari
2013an 1
1.803 albiste
batez beste,
150 albiste/hil

2



“Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza”-ri buruzko informazioa ematen duten testuak ageri dira gehien egunkari guztietan.



Bigarren multzoa “Elikagaien kontsumoari lotutako osasuna, Elikagaien nutrizio-osaera eta Elikagaiek eragindako alergiak” gaiei buruzko albisteek osatzen dute.



“Elikagaien industria” eta industria horrek Elikagaien Segurtasunarekin lotutako gaietan duen eragina da 2013ko esparru garrantzitsuenetako bat. Egunkari guztiek eman diote hirugarren lekua gai horri, *Garak* eta *El País*ek izan ezik: bigarren lekuan kokatu dute.



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Elikagaien Segurtasunari buruzko albisteak oso atal zehatzetan multzokutzen dira. *El Diario Vasco*, *Diario Noticias de Álava*, *Noticias de Gipuzkoak* eta *Deiak*, funtsean, "Local/Territorial" [Tokikoa/Lurraldekoa] eta "Gizartea/Sociedad" gaiet buruzko ataletan kokatu dituzte. *El Correo* bere ohitura zehatzari jarraitzen dio, eta testu gehienak "Ciudadanos" [Herritarrak] izeneko atalean kokatu ditu. Tarte handira daude "Culturas y Sociedad" [Kulturak eta gizartea] atalean argitaratutakoak. *Garak* besterik ez du "Ekonomia" hautatu elikadurari buruzko albisteen argitaratze-leku nagusi gisa. *Berriak*, bestalde, testuak "Bizia", "Euskal Herria" eta "Ekonomia" ataletan argitaratu ditu.

Gizartea
atala

3

Tokikoa/Eskualdekoa

Gizartea

Herritarrak

Ekonomia

Bizia y Euskal Herria

4

Koadernotxo berezietan eta igandekoetan, Elikagaien Segurtasunari buruzko testuen % 13,7

Nahiz eta koadernotxo eta gehigarri bereziak nahiz igandekoak kokapen egokiak diren elikadurari eta nutrizioari buruzko testuak plazaratzeko, 2013an ez dira gai horietarako gune garrantzitsu bihurtu. Albisteen % 13,7 besterik ez da argitaratu igandekoetan, maiztasun jakin batekin, eta noizean behingo beste gehigarri berezi batzuetan; alabaina, ez dago jarraitutasunik. Besteak beste, *Sukaldea* aipa daiteke, *El Correo* eta *El Diario Vasco* 2013ko abenduaren 3an argitaratutakoa.

5

Argitaratutako testuen % 3,3 agertzen da egunkarien azaletan, % 42,5ek irekitzen ditu barneko atalak eta % 40,5ek betetzen ditu bigarren mailako espazioak atal horietan. Gainera, % 0,3 koadernotxoen azaletan dago, % 7,7k leku nagusia du gehigarri horietan eta % 5,7 bigarren mailan dago.

Azalean
% 3,3

Erdialdean
% 42,5

Bigarren mailan
% 40,5

6

1.296 argazki
+
52 infografia
=
1348 ilustrazio,
idatzien % 75ean

Aztertutako hedabideek guztira 1.348 ilustrazio argitaratu dituzte. Horien % 96 argazkiak dira. Bada, argazki gehienak (% 84,8) egunkarienak eurenak dira, agentziakoen (% 15,2) aldean. Orobat, gehiago dira argigarriak (% 71,5), informazioa ematekoak baino (% 28,5). Gainerakoak (% 4) infografiak dira, eta kopuru hori txikitat jo daiteke, idatzien % 75ean argitaratutako ilustrazioak aintzat hartzen badira.

txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Gaurkotasunaren ikuspegitik, % 70,2 azken aldiko gertakizunei buruzkoak dira, % 27,5 gaurkotasun iraunkorra dutenak eta % 2,3 bakarrik dira gaurkotasun luzatukoak.

Azken aldiko albisteak nagusi izateak adierazten du kazetaritza-beharrizanak guztiz asetzeko nahiko izan dela txertatze bakar bat. Gaurkotasun luzatuaren indize bereziki txikiak erakusten du urtean zehar ez dela gertatu elikagaien inguruko alerta- edo intoxikazio-kopuru handirik; izan ere, horrek jarraipen jarraitua ekarriko zukeen. Gaurkotasun iraunkorreko albisteen ehunekoa nutrizioari eta osasunari lotuta dago (albisteek ez daude eguneroko informazioarekin), baita iritzi-generoei ere. Halakoetan, gai orokorrak landu ohi dituzte.

1.803
testu

% 70,2
azken
aldikoak

% 27,5
gaurkotasun
iraunkorrekoak

% 2,3
gaurkotasun
luzatukoak

7

8

% 80,1
Informazioa
ematekoa:
% 12,5
Interpretazioa
% 7,3
Iritzia

Alde handiz, informazioa emateko generoa da nagusi (% 80,1), interpretazio-generoaren (% 12,5) eta iritzia ematekoaren (% 7,3) gainetik. Albisteen nagusitasuna handia da, oro har errazagoa delako informazioa ematea, beste genero batzuk lantzea baino. Oro har, informazioa emateak ez du interpretazioaren lana eta espezializazioa eskatzen, ezta iritziaren sakontasuna ere.

% 77,7
albiste
(2012an baino
% 6,1 gehiago)
% 22,2
albiste laburrak
eta fotoalbistek

Informazio-generoan, funtsean nagusi dira luzera jakin bateko albisteak: % 77,7 dira, albiste laburren (% 20,1) eta fotoalbisteen (% 2,1) aurrean. 2012arekin alderatuta, albisteen kopuruak % 6,1 egin du gora, eta horrek erakusten du kalitate handiagoko testuak, sakonago landutakoak, ugaritu egin direla. Halaber, informazio-iturriak ere areagotu egin dira.

% 53,5
elkarrizketa
% 33,6
erreportaje

Gainerakoei zati handia kenduz, interpretazio-generoen artean, aztertutako hedabideek elkarrizketa (% 53,5) eta erreportajea (% 33,6) erabili dituzte gehien. Kronikak % 4 baino ez dira, eta ez da kazetaritza-txosten bakar bat ere egin. 2012aren aldean, elkarrizketak ugaritu eta erreportajeak murriztu dira.

Iritzi-artikuluak
eta zutabeak
% 88,6
Zuzendariari igorritako
gutunak eta editorialak
11,3%

Iritzi-artikuluak (% 46,2) eta zutabeak (% 42,4) izan dira, antzeko proportzioetan, gehien erabilitako iritzi-generoak. Argitaratutako iritzien % 5,3 editorialak dira, eta zuzendariari igorritako gutunak % 6.



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

- Albisteen erdiak baino gehiagok (959) kazetariak editatu dituzte, eta kazetarien sinadura izan dute, eginiko lanaren berme gisa. Nolanahi ere den, sinatu gabeko testuen ehunekoa oso handia da: argitaratutako guztien % 31,8. Sinatu gabeko testuen ehuneko handi bat batez ere albiste laburrei (291 txertatze) eta fotoalbisteei (31 txertatze) dagokie.
- Halaber, garrantzitsua da adituen parte-hartzea aipatzea: batez ere iritzi-artikulu eta -zutabeak argitaratu dituzte, eta guztira testuen % 6,7 izan da. Bestalde, informazio-agentzien parte-hartzea % 5,5ekoa izan da.

% 53,1
erredaktoreek
sinatutako
testuak

% 6,7
adituek
sinaturiko
testuak

9

Elikagaien Segurtasunaren inguruko espezializazio mugatua

erredaktore bakoitzak

2,5 testu/urte
(areagotu egin da,
2012ko % 1,9aren aldean)

34 kazetarik
6 testu
edo gehiago
sinatu dituzte

- Oro har, albistek sinatu dituzten kazetarien artean espezializazio-maila mugatua dago Elikagaien Segurtasunari dagokionez, eta horrek dakar testu horien ekoizpenean hainbat erredaktorek parte hartzea. Esan dezakegu sinatutako 959 mezueta 388 kazetarik parte hartu dutela, eta horrek erakusten du erredaktore bakoitzak, batez beste, 2,5 testu ekoizten dituela urtean. 34 kazetarik besterik ez du 6 albiste edo gehiago editatu.
- *El Diario Vasco* da, gainerako egileei zati handia kenduta (egile berak eginiko 31 txertatze), espezializazio-maila handiena duena. Gainera, 8 kazetarirekin, 6 testu edo gehiago argitaratu dituzten profesionalen zenbateko handiena da. *El Correo* bigarren lekua du, 10 testu baino gehiago argitaratu dituzten bi kazetarirekin.

10

Adituek eginiko testuen % 6,7 (iritzi-artikuluak edo -zutabeak) 58 pertsonaren artean egin dituzte, kazetariak izan zein ez izan; hots, batez beste, 2 testu pertsona bakoitzeko. Joerak informazio-testuen antzekoak dira: idatzi gutxi idazten dituzten pertsona asko. *Berriak* du espezializazio-lerro egonkorrena: 3 egilek argitaratu dituzte bost testu edo gehiago. *Noticias de Gipuzkoa* da, pertsona bakar batek argitaratutako 13 testurekin, kolaboratzaile bakar batek eginiko txertatze-kopuru handiena duen egunkaria.

aditu asko
testu gutxi

58 adituk
2 testu egiten dituzte,
batez beste

11



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

12

elikagaien enpresek
testuen % 2,3 babestu
dituzte

Eroski

informazio-agentziek
testuen % 5,5 egin dute

EFE agentzia
eta Europa Press

Atal bereziki garrantzitsua izan ez arren (baina badu potentzialitaterik etorkizunera begira), argitaratutako testuen % 2,3k babesle bat izan dute (funtsean, elikagaien enpresak). 2013an 32 testu argitaratu dira, 11 enpresaren babesarekin. Atal honetan garrantzitsua da nabarmentzea Eroskiren zeregina: urte osoan 20 testu babestu ditu. Informazio-agentziek testuen ekoizpenaren % 5,5 hartzen dute, eta Efe eta Europa Press agentziek ekoitzi dituzte agentziek argitaratutako zenbateko osoaren % 84,7.

13

Autonomia-erkidegoa da albisteen jatorriaren geografia-esparrua (% 83,2). Estatutik 181 albiste datoz; beraz, bigarren jatorri-esparrua da, testu guztien % 10 izanik. 122 albistek dute nazioarteko jatorria, eta % 6,8 dira.

% 83,2 Euskadikoak
% 10 Estatukoak
% 6,8 Nazioartekoak

14

testuen % 35
informazio-iturririk
gabekoak

pertsonalak erakundeak

aldizkari espezializatuak
elikagaien enpresetakoak

Garrantzitsua da nabarmentzea zenbat testu argitaratu den, datuen informazio-iturria aipatu gabe (% 35). Oso kopuru handia da, aintzat hartzen bada iturria isiltzean irakurleari informazioaren irismena baloratzeko datu garrantzitsu bat ezkututzen zaiola. Edukiak egiteko erabilietako iturriak aipatzen dituzten testuetatik, iturri pertsonalak dira erabilienak (% 69,8). Ondoren daude erakundeak (% 20), argitalpenak (% 5,5) eta, azkenik, elikagaien sektoreko enpresak (% 4,7).

Iturri pertsonalen kasuan, % 27,6 euren izenean jarduten duten eta testuen ekoizpenean bigarren mailako zeregina duten pertsonak dira: 7 iturri bakarrik parte hartu dute 3 testuren edo gehiagoren ekoizpenean. Iturri pertsonal garrantzitsuenak dira organismo ofizialen baten ordezkari edo bozeramaile legez aritzen direnak (iturri pertsonal guztien % 72,4). Ugarienak administraziokoak eta Elikagaien Segurtasunaren dira (% 34,9), eta horren ondoren daude zientzialarienak eta adituenak (% 25,7), gizarteko ordezkarienak (% 25) eta elika-kateko kideenak (% 14,3).

% 73
bozeramaileak



administrazioa eta
Elikagaien Segurtasunaren
agentziak
zientzialariak eta adituak
gizartea
nekazaritzako
elikagaien sektorea

15

16

administrazioa

gobernuz kanpoko
erakundeak

nazioarteko
organismoak

ikerketa-zentroak

Euren izenean jarduten duten **erakunde-iturri** garrantzitsuenak, tartean ordezkatzan dituzten bozeramailerik gabe, administrazioa (% 34,6) eta gobernuz kanpoko erakundeak, sindikatuak, alderdiak, etab. (% 24,2) dira. Lehenengo bietatik tarte nabarmenera daude FAO, OME edo KME bezalako nazioarteko organismoak (% 9,3), profesionalen elkarteak (% 8,4) eta ikerketa-zentroak (% 7,9).

Funtsean elikaduraren esparruko **enpresek** hartu dute parte testuak egiteko iturri gisa; zehazki, 84 albiste izan dira, eta Eroski izan da informazio-iturri gisa jarduten duten enpresetan lehenengo, enpresen testuen % 31n hartu baitu parte. Iturri gisa diharduten enpresa gehienek noizean behin egiten dute. **Argitalpenek eta aldizkari espezializatuak** ere informazio-iturri gisa jarduten dute, eta potentzialitatea oso handia dute Elikagaien Segurtasuneko informazio-iturri gisa, aztertutako egunkarietan izan duten ehuneko txikia bada ere.

% 4,7
elikaduraren
sektoreko
enpresak

% 5,5
aldizkari
espezializatuak

17

18

~~“arrisku”~~
hitza

Idatzien (195 albiste) % 10,8n agertzen da “arrisku” hitza beren-beregi. Proporzio esanguratsua da, txikia izan arren, 2013an ez delako elikagaien arrisku-egoera askorik gertatu eta, halakoak gertatu direnean, euskal herritarrei ez dietelako osasun-arazorik eragin.

ez alertatzea
prebenitzea
eta
gomendatzea

Arriskuei buruzko testuen % 48,2n gomendioak ematen zaizkie irakurleei, % 36,9n prebentzio-neurriak iragartzen dira eta % 25,6n herritarrentzako elikagai-alertak edo -krisiak argitaratzen dira. Albiste horien ikuspegiari dagokionez, % 59,6 neutroa da, % 23 negatiboa eta % 17,4 positiboa.



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Arriskuei buruzko albisteetan sarrien agertzen diren gaiei dagokienez, % 47,2 osasuna, nutrizioa eta alergia topikoari buruzkoak dira; % 18,9 Elikagaien Segurtasunari buruzkoak eta % 15,4 elikagaien arriskuari buruzkoak.

Gaurkotasanaren ikuspegitik, arriskuari buruzko albiste guztietan % 41,5 azken aldikoak dira, % 33,4 gaurkotasan iraunkorrekoak eta % 25,1 gaurkotasan luzatukoak. Hori ikusita ondoriozta dezakegu litezkeen zenbait arrisku-egoera sortu direla (esate baterako, zaldi-haragiaren iruzurra), informazioaren ikuspegitik garrantzitsuak izan dira eta kasuen % 25,1ean zenbait txertatze eskatu dituztela, ondoz ondoko egunetan, jendeari informazio egokia emateko.

1. tokia

Osasuna, Nutrizioa
eta Alergiak

2. tokia

Elikagaien
Segurtasuna

3. tokia

elikagaien arriskua

19

20



Hedabideek 2013an gehien nabarmendutako gaiei dagokienez, bialdi aipa daitezke. Urtearen lehenengo herenean, zaldi-haragiaren krisiak ekarri zuen arreta berezia jartzea Elikagaien Segurtasunarekin, elikagaien arriskuekin eta elikagaien industriarekin lotutako gaietan. Maiatzaz geroztik, berriz, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako sektoreari lotutako edukiak nagusitu zirela atzeman zen. 12 hilabeteetan askoz ere iraunkorragoa da osasunari, nutrizioari eta alergieiei buruzko albisteei emandako arreta.

Oro har, joera da “Elikagaien Segurtasuna”-rekin eta “Elikagaien arriskua”-rekin lotuta dauden gaiei balio berezia ematea. Bi esparru horiek eragiten duten interes orokorrak azal lezake hedabideek horiek nabarmentzeko duten erraztasuna.



txostena: 2013 elikagaien segurtasuna Euskadiko prentsan

Zenbait ezberdintasun atzeman dira EAEko prentsak Elikagaien Segurtasunari 2012an eta 2013an emandako tratamenduan:

- 2013an, Elikagaien Segurtasunari buruzko testu guztien bolumena bikoiztu da.
- 2012an, "Osasuna, nutrizioa eta alergiak" alderdiekin lotutako testuek lortu zuten arreta handiena; 2013an, aldiz, txertatze gehiago egin ziren "Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza" gaiaren inguruan.
- 2013an errazagoa izan da Elikagaien Segurtasunaren inguruko testuak topatzea egunkarietako azaletan (2012an, % 0,12; 2013an, % 3,8).
- Halaber, albisteetan espezializazio-maila handiagoa ikusi da 2013an (kazetari bakoitzak, batez beste, 2,5 egin ditu, eta aurreko urtean 1,86 izan ziren); hala, 2012an sinadura bakar bat ageri zen bederatzi testutan edo gehiagotan, eta 2013an 10 izan dira.

2013ko datuak
eta 2012koak
erkatzea

21

testu-kopuru
bikoitza
baino gehiago

albiste
gehiago azaletan

garrantzi handiagoa
Elikagaien Segurtasunari
eta arriskuei

espezializazio-maila
handiagoa